

HAUR ETA GAZTE LITERATURA IRAKUR GIDA

Liburu oso gomendagarriak
2001-2014



Argitaratzailea:

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Erredakzioa Idazkaritza:

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegia

Dorleta Auzoa, z/g

20540 - Eskoriatza

Tfnoa: 943 714 157 - Faxa: 943 714 032

E-mail: biblioteka.huhezi@mondragon.edu

www.mondragon.edu/huhezi

SARRERA

Haur eta Gazte Literatura, 2001-2014

2001-2014 Irakur Gida talde zabal baten lan jarraituaren eta 1.614 libururen irakurketa konpartituaren emaitza da.

Lan horretan, Haur Liburu Mintegiak gomendatutako liburuak bildu ditugu, bakoitzari dagokion iruzkin laburrarekin batera, azken 14 urteotan argitaratu diren gidetatik hartuta.

Urte hauetan asko ikasi dugu, eta, horrek liburuak aztertzeko eta aukeratzeko irizpideak fintzera eramán gaitu. Ondorioz, konturatzen gara orain dela 10 urte gomendatuko libururen bat gaur egun ez genukeela gomendatuko, eta, baita ere, beste modu batean idatziko genukeela hainbat iruzkin. Hala eta guztiz, liburu gomendagarriak urteroko gidetan argitaratu ziren moduan bildu ditugu, eta idatzi ziren moduan mantendu ditugu iruzkinak.

Kuriositate moduan: irakurritako liburuetatik, 686 jatorriz euskaraz argitaratuak dira; 184, emakumeek idatzitakoak; eta emakume euskaldunek idatzitakoak, berriz, 58. Guztira, 192 izan dira gomendatu eta iruzkindutako liburuak.

Gida hau ontzeko edizio lanean iruzkin guztiak irakurri ditugu berriz, eta gu geu harrিতa gelditu gara zenbat liburu on daukagun euskaraz, eta eskura. Denek ez dute balio bera, baina badaude liburu oso onak, eta, iruzkinak jarraituz, irakurlea jabetuko da horietako askoren balioaz.

Bestalde, beti bezala, iruzkinean jartzen den adina orientazio bat baino ez da; izan ere, garapen-erritmoak, haurren zaletasunak eta testuinguruak, besteak beste, sailkaezinak baitira.

Eskoriatzako Haur Liburu Mintegiak eskerrak eman nahi dizkie, zinez, hainbat urtez taldean lan egin duten partaideei, irakasle zein liburuazainei, haien interes bakarra liburu, literatura eta irakurleekiko maitasuna izan baita.

Mintegiko partaideen zerrenda luzea da: batzuk denbora gutxi eman dute; beste batzuek, berriz, 20 urtetik gora. Bakoitzak, ahal zuen neurrian, bere onena eman du, eta hona hemen irakurle guztien ekarpenen emaitza. Taldean egin dugu lan, erabakiak batera hartu, eta ekoizpena denon izenean argitaratu dugu, urtero. Egun, gure lanaren fruitu oparoa dastatu dezakegu.

Denoi eta bakoitzari, gure esker ona, bihotzez.

Eta guretzat lan hau burutzea oso atsegina izan denez, zuretzat ere, irakurle, hala izatea espero dugu. Eskuartean duzun gida hau orientazio baliagarria izan dakizula!

AURKIBIDEA

2 urtetik aurrera.....	6.orr.
4 urtetik aurrera.....	14.orr.
6 urtetik aurrera.....	33.orr.
8 urtetik aurrera.....	52.orr.
10 urtetik aurrera.....	66.orr.
12 urtetik aurrera.....	78.orr.
14 urtetik aurrera.....	93.orr.
Zerrenda Berezia.....	113.orr.

Liburuak irakurri dituztenen izenak:

Lierni Legorburu.....	Antzuolako Udal Biblioteka
Lourdes Alberdi.....	Antzuolako Udal Biblioteka
Mila Elorza	Angiozarko Biblioteka
Olga Jauregi.....	Aramaioko Udal Biblioteka
Joseba López de Armentia ..	Aretxabaletako Udal Haur Biblioteka
Nerea Altuna.....	Aretxabaletako Udal Biblioteka
Asun Agiriano	Arrasateko Udal Haur Biblioteka
Nerea Mendizabal.....	Arrasateko Udal Haur Biblioteka
Igone Basabe	Bergarako Udal Biblioteka
Laida Zubia	Bergarako Udal Biblioteka
Mila Agirrezabal	Bergarako Udal Biblioteka
Iñaki Agiriano.....	Eskoriatzako Udal Biblioteka
Oskar Loiti.....	Eskoriatzako Udal Biblioteka
Jasone Erostarbe.....	Legazpiko Udal Biblioteka
Arantzazu Ibarondo.....	Oñatiko Udal Biblioteka
Marina Etxegoien.....	Oñatiko Udal Haur Biblioteka
Edurne Urbiztondo.....	Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Gurutze Urrutia.....	Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Itziar Murua.....	Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola BHI
Lucia Cabrero.....	Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Txaro Urrutia	Aretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Xabier Agirre	Arrasateko Ergüin Eskola
Amaia Azpiazu.....	Arizmendi Ikastola. Arrasate
Arantza Gallastegi (†).....	Arizmendi Ikastola. Arrasate
Itziar Aranburu.....	Arizmendi Ikastola. Arrasate
Kattalin Erdozia... ..	Arizmendi Ikastola. Arrasate
Lurdes Arregi.....	Arizmendi Ikastola. Arrasate
Miren Bego Garcia.....	Arizmendi Ikastola. Arrasate
Ana Etxeberria.....	Eskoriatzako Eceiza Eskola
Juli Leza (†).....	Eskoriatzako Eceiza Eskola
Amelia Barquín	Eskoriatzako HUHEZI
Nerea Alzola	Eskoriatzako HUHEZI
Marikarmen Apraiz	Eskoriatzako HUHEZI
Pello Añorga	Eskoriatzako HUHEZI

Azala:

Yera Sanchez

Mondragon Unibertsitatea.
HUHEZI

2 urtetik aurrera

Browne, Anthony

Gorila bat. Zenbatzeko liburua

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela & Pontevedra: Kalandraka, 2012

ISBN: 978-84-7681-713-1

Azpitulua esaten duen bezala, liburu hau zenbatzen ikasteko ipuin bat da. Baina ez fidatu, liburu hau ez da horretarako bakarrik, haratago doa eta beste hainbat gauza ere erakutsiko dizkigu.

Batetik hamarrera kontatzen dugun heinean, primate desberdinak ezagutuko ditugu. Guztiak antzekoak baina denak ezberdinak, bakoitza bere ezaugarri eta berezitasunekin, baina guztiak talde berekoak, gure giza taldekoak hain zuzen ere.

Baina, gaia hau izanik ere, ilustrazioetan dago liburu honen benetako indarra. Tamaina handiko marrazki errealistek bizitza propioa daukate. Primateen ilustrazioetan gure gizaki aztarna nabaria da, gure ispilu bilakatzen dira eta beraien begietan geure burua ikusten dugu irudikatua. Nahiz eta askotan ahaztu, gu ere animaliak gara, eta hori da Brownek azpimarratu nahi duen ideia.

Egile honek askotan aukeratzen ditu primateak bere istorioak ilustratzeko. Giza jokabideak irudikatzeko ezin aproposagoak dira bere ustetan. Gizakiok galtzen arigaren ezaugarriak askoz hobeto adierazten dutela dio, naturaltasuna ez dute oraindik galdu eta.

Brownek dagoeneko mundu mailako haur literaturan merezi duen izena lortu du, eta bere lanak euskaraz irakurtzeko aukera beti da gozamenerako unea.

Carle, Eric

Beldar txiki jatuna

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Madrid: Kókinos, 2012

ISBN: 978-84-92750-69-6

Oso jatuna den beldarraren istorioarekin gatoz berriz ere. Eric Carle ilustratzaile eta idazle handiak jatorrian 1969. urtean kaleratu zuen euskarazko bigarren edizio bat dugu hau. Lehena, 2007. urtean, Koldo Izagirrek ekarri zuen euskarara eta oraingo honetan, 2012ko edizio honetan, Miren Agur Meabek izan du molde berri batera ekartzeko aukera.

Formatu txikiko bilduma baten aurrean gaude, kartoizkoa, laburra, haur txikiek esku artean erabiltzeko ezin aproposagoa. Orri trokelatuek jolaserako bidea eskaintzen dute: haurren atzamar txikiak, beldarrak beregose ase ezinak hostoetan utzitako zulotxoetatik sartu ahal dira: begiekin ilustrazioek dituzten kolore biziak gozatu ahal dituzte eta narrazioaren errima eta egitura errepikakorrekin hizkuntza, matematika eta beste hainbat kontzeptu nork bere egiteko aukera izango du, naturalki eta jolasean.

Kokinos Madriddar argitaletxeak ez gaitu ohituta euskaraz lanak aurkezten. Ez diezaiotela egiteari utzi, eta are gutxiago horrelako maisu lan batekin.

Carle, Eric

Gose handiko beldarra

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2007 (Amets egiteko liburuak)

ISBN 978-84-8464-632-7

Beldarra oso jatuna da. Gose handia dauka eta denetik eta asko jatea du gustuko. Ipuineko orriak ere jaten ditu, eta egunetan jan eta jan aritu ondoren tximeleta ederra bilakatu ohi da.

Idazleak jakin du istorio dibertigarri bat uztartzen hainbat elementurekin: elikadura onarekin, astearen egunekin, zenbakiekin eta bizitzaren zikloarekin.

Orri trokelatuek jolaserako bidea eskaintzen dute. Behatzekin jolasteko, irakurtzeko, begiekin eta errepikaketekin jostatzeko, narrazioaren erritmoa eta detailea inoiz ere galdu barik ... Istorio xamurra baina hunkigarria, kolorez eta dibertimenduz jositako albuma.

Euskaraz argitaratzen den lehen edizioa dugu hau, jatorrian 1969. urtean kaleratu zutena eta gaztelaniaz, berriz, 1995. urtean argitaratu zutena. Diseinu aldetik, azken honekin alderatuta, formatua aldatuta dakar, eta tamaina handiagoa du; koloreen bizitasunean eta ilustrazioen egiturean ere nabarmen irabazten du.

Haur txikien gozamenerako oso liburu egokia.

Daporta, Mon

Piztia arraro bat

Ilustratzailea: Óscar Villán

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea ; Pontevedra: Pamiela; Faktoria K de libros, 2010

ISBN 978-84-7681-611-0

“Begira eta begira, zokomiran, piztia arraro bat topatu nuen, arrautzaren itxurakoa: gizona goian, behean flakua”.

Hasiera batean ezezaguna den animalia bati buruzko ipuin errimatua dugu hau.

Orrialde bakoitzean argibide bat jasotzen dugu, arrautza itxurako izaki misteriotsua zein den asmatu arte. Baina amaierarik gabeko ipuina denez, liburuari buelta eman eta ipuina berriro hasten da.

Izaki misteriotsuak bere ezaugarriak galtzen doa, arrautza bihurtu arte. Tamaina txikiko liburu honek jolasteko aukera aparta ematen digu. Horretan datza bere ezaugarriak indartsuena: irakurtzearen funtzio ludikoa ezin hobeto erakusten baitu.

Testu errimatua bat dator ilustrazioekin. Sinpleak eta zehatzak, kolore gutxiko ilustrazioek umearen arreta osoa eskatzen dute. Kartoizko liburua denez, beldurrik gabe erabili dezakegu umeekin eta lasai gozatuz.

Esku artean dugun liburua, originala, dibertigarria, xumea eta dinamikoa da. Txiki-txikien imajinazioa pizten duen horietakoa.

Hutchins, Pat

Loreren ibilaldia

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Pontevedra; Iruñea: Kalandraka; Pamiela, 2010

ISBN 978-84-7681-660-8

Liburu klasiko hau (1968an editatua) autorearen lehenengo albuma da, eta bost hizkuntzatan berrargitaratu izan da (gaztelera, galegoa, katalana, portugesa eta euskara).

Idazlearen proposamenak, nahiz eta liburua ezagun zaharra izan, harritu egiten gaitu bere edertasun sinpleagatik eta, era berean, detaileen aberastasun eta kolore laranja, gorri, hori biziengatik.

Ez da behar testurik guztiz murgiltzeko Rosalia oiloaren ibilbidean. Bi plano agertzen dira narrazioan: Rosalia lasai paseatzen etxerako bidean, pausu ziurraz eta itxura inozenteaz eta, haren atzetik, azeri baten korrikaldia oiloa harrapatzeko asmoarekin. Irakurleak bi planoak ikusten ditu: Rosalia paseatzen eta azeri maltzurak sufritzen dituen desgraziak. Rosalia, konturatu gabe bizi izan duen arriskuaz, lasai asko heltzen da etxera afaltzeko garaian eta, aldi berean, azeria korrika desagertzen da eszenatik erleek janda. Oso nabaria da beste animalia batzuen presentzia begirale moduan eta haien adierazteko moduak gertatzen denaren aurrean.

Album ederra haurrei kontatzeko edo haiek bakarrik irakurtzeko eta gozatzeko; umeei barre egiten dute eta liluratu egiten dira amaiera zoriontsua duen abenturarekin.

Artista izan behar horrelako istorio sinpletik hain narrazio aberats eta xarmanta sortzeko.

Jadoul, Émile

Nire etxea

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2008 (Ipurtagia)

ISBN 978-84-8394-201-7

Historia xumea dugu kontakizun txiki hau, baina, edonola ere, zailtasun gabeko gauzek izan ohi duten xarmaz zipriztinduta. Abileziaz kontatutako narrazioa, egitura berdina daukaten testu laburrak errepikatzen dira, eta, teknika hau erabilia, pertsonaien aurkezpena jarraian egiten da. Baliabide honi esker, bestalde, egileak lortzen du erritmo berezi eta errepikakorra, haur txikiek hain gustukoa dutena.

Lexiko aldetik, oso aberatsa. Arestian esandakoaren harira, esaldiek egitura bertsua dute, baina aldi berean kontzeptu bera definitzeko (etxea edo bizilekua), sinonimo ugari erabiltzen da narrazio honetan.

Bi edo hiru urteko umeez hizkuntzaren aberastasunarekin gozatzeko eta lehen hurbilketa egiteko aukera paregabea eskaintzen du liburu honek.

Ilustrazioak oso biziak eta adierazgarriak dira. Tamainen kontrasteak edo ñabardurak pertsonaien emozioetan sartzen du irakurlea: Poza, ezustea, ahultasuna, ihes egiteko beharra... eta horrek xarma berezia ematen dio istorioari.

Melling, David

Burgik besarkada bat behar du

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Bilbao: Ibaizabal, 2012 (Burgi)

ISBN: 978-84-8394-669-5

David Mellinek sortutako Burgi hartz maitekorraren ipuin bat daukagu hemen. Udaberria heldu da eta Burgik esnatu bezain laster besarkada baten premia sentitu du eta haren bila irten da. Berak badaki bere gustuko besarkadak nolakoak diren: handiak, luzeak, samurrak... baina inor ez dago berari besarkadarik emateko prest. Triste dago eta ez da gustura sentitzen.

Noren besarkada behar du ba? Amatxorena, noski. Pertsonaia amatxoren beso handi eta beroetan kuzkurtuta eta zoriontsu utziko dugu. Zer esan dezakegu halako bukaera daukan liburu bati buruz?

Ipuin kuttun eta goxo hau detailez betetako ilustrazio koloretsu eta adierazgarri osatuta dago. Testua ere sinplea eta samurra da, eta, ilustrazioekin batera, letren tamainarekin eta testuaren kokapenarekin konposizio bikaina lortzen da.

Tamaina txikiko liburua da eta kartoi gogorrekoa, aproposa txikienek erabiltzeko. Letra larriz idatzita dago, irakurketan trebatzen hasi direnentzat oso egokia.

Liburuari amaiera emateko, egileak besarkada mota desberdinen marrazkiak oparitzen dizkigu, sandwich besarkada, konga dantzarako besarkada... marrazki politikak eta dibertigarriak.

Liburuxka afektiboa, samurra eta umoretsua, maitasunezko ipuina ume eta helduak gozatzeko.

McBratney, Sam

Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan

Ilustratzailea: Anita Jeram

Itzultzailea: Miren Josune Muñoz

Madrid: Kokinos, 2007

ISBN 978-84-96629-58-5

“Batuetan norbait oso, oso, oso maite duzunean zure sentipenen neurria adierazten saiatzen zara. Baina, hurren koloreko erbi txikia eta hurren koloreko erbi handia konturatuko diren moduan ..., maitasuna ez da erraz neurtzen!” Honela dio 2007. urtean Kokinos argitaletxea euskaraz argitaratu zuen ipuin eder honetako kontrazalean. Maitasuna da liburu honen gai nagusia eta ia bakarra. Erbi txikiak oheratu aurretik erbi handiari galdetzen dio “ezetz asmatu zenbat maite zaitudan” , eta galdera hau izango da ipuinaren ardatza. Narrazioan zehar ikusiko ditugu galdera honi emandako hainbat erantzun. Erantzunekin batera murgilduko gara erbi bien arteko maitasun eta lehiakortasun istorio eder eta goxo batean, non erbi txikiaren nahia den bere maitasunaren tamaina neurtzea erbi handiarekiko.

Liburu honetan testua eta irudia elkarren osagarri dira. Sam McBraneyek idatzitako testu sinple eta samur honek, Anita Jeramen kolore leuneko ilustrazio goxoez hornituta, guztiz indartuta azaltzen zaigu. Marrazki panoramikoak bi orrialdeetan zabaltzen dira eta perspektibarekin jolasten du zenbatekoa den bi erbi hauen arteko maitasun hori irakurleari edo ikusleari adierazteko orduan.

Esan bezala, album ederra eta goxoa, kutsu poetikoa nabaria duena, batez ere ilustrazioak nahiko klasikoak direlako, erabiltzen dituen koloreen tonu leunengatik batik bat.

Oso liburu maitagarria, poetikoa eta samurra. Guztiz egokia haur txikientzat. Haur eta gurasoen artean maitasunez partekatzea.

Mendez, Raquel

Hiru txerrikumeak

Ilustratzailea: Helga Banschen

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Tafalla: Txalaparta, 2011 (Txo!)

ISBN 978-84-8136-599-3

Hiru txerrikumeak ipuinik ezagun eta maiteenetakoa da haurren artean. Bruno Bettelheim-ek Maitagarrien ipuinen psikoanalisi liburuan, istorio honetako pertsonaien sinbologia azpimarratzen du, pertsonaia horien ekintzak, bakoitzak aukeratutako irtenbideak eta horien ondorioak nortasunaren garapenaren eta haziera-prozesuaren metafora moduan interpretatuz. Bettelheimen dioen

moduan, haur bakoitza txerrikume batekin identifikatzen da eta, era errazean, alde batetik ikasten du pertsonak garatu, eboluzionatu egiten direla, eta bestetik, nagusi egiteak dakartzan onurez jabetzen da. Horregatik, txerrikume nagusia izango da azkenean garaile, esfortzua eta intelijentzia konbinatuz, gai delako bere anaiak salbatzeko eta otsoari merezi duena emateko.

Hiru txerrikumeek gizakiaren garapena eta eboluzioa sinbolizatzen dute; izan ere, haurrak ikasi egin beharko du haurra denetik nagusi egin arteko bidean sortzen zaizkion konfliktoak askatzen, eta horiek gaintitzen.

Hiru txerrikumeena istorio oso ezaguna da, baina horrek ez dio interesik kentzen bertsiio honi, Raquel Mendezen testuak eta Helga Banschen irudiek benetan ipuin biribila osatzea lortu baitute. Testuak errima eta indar handia du eta Helga Banschen ilustrazioak oso beroak eta adierazgarriak dira. Irudien testurak eta collageak oso aberatsak dira eta istorioari erritmo narratibo handia ematen diote. Istorio oso ezaguna izan arren, ilustrazioek balore gehigarria ematen diote.

“Kea ipurditik eta kea isatsetik, jo eta ke
ziztu bizian atera zen otsoa etxetik ...
eta ez zen gehiago ibili
txerrikumeen atzetik!”

Ross, Tony

Ahizpa txiki bat nahi dut!

Itzultzailea: Peru Erroteta

Donostia: Hiria, 2003 (Haurren aurrenak)

ISBN 84-95765-91-8

Marrazki ugari eta letra gutxiko liburu honetako neskatila protagonistak anaia-arreba bat izateko da. Nebarik ez duela nahi dio eta hainbat arrazoi emango ditu: “usain txarra dute mutilek”, “basati hutsak dira mutilak”, etab. ; baina arrazoi guztiak Tony Rossen ipuinetan ohiko diren pertsonaiek (almiranteak, presidenteak) zentzu barik utziko dituzte. Ospitaletik bueltan etortzerakoan aita-amak, ordea, neba bat duela esango diote. Lehenengo sustua igarota gero bukaera borobila eta zoriontsua izango du.

Liburu honetan testua eta irudia elkarren osagarri dira eta aukera ezin hobea ematen dute ikus-metaforak ikusteko eta hauetan trebatzeko. Hau da, orri batean, esatebaterako, neskatilak dio “usain txarra dute mutilek”; esaldi hau bere buru gainean isladatzen da bere nebaren hipotetikoaren marrazkiarekin bokadilo batean, non bere nebaren ezaugarri fisikoek nebaren usain txarreko ikus-metaforan bihurtzen dute: buztan eta buru txerriak ditu eta usain txarra dario bere gurputzari. Beraz, ikus-metaforak proposatzen diguna zera da: txerriek usain txarra dutenez, txerri ezaugarriak dituen neba batek ere usain txarra izango du.

Liburu aproposa semealabak zein ikasleak altzoan harturik ipuinaz gozatzeko.

Ross, Tony

Txupetea nahi dut!

Itzultzailea: Ane Erroteta

Donostia: Hiria, 2004 (Haurren aurrenak)

ISBN: 84-9797-015-2

Txupetea nahi dut!, horrela hasten da printzesaren beste abentura bat. Oraingoan printzesari txupetea alde batera uzteko garaia iritsi zaio, baina bera ez dago batere ados. Helduek (almirantea, sukaldaria) mila trikimailu erabiliko dituzte txupetearen ordezkia bilatzeko, baina gure protagonistak ez du etsiko.

Tony Rossen lana goraiatzekoa da, idazleak trebeki baitaki haurren arazo txikiei aurre egiten eta umore puntu batekin azaltzen. Ez da batere erraza eguneroko gertakizun arruntan aurrean (kasu honetan txupetea alde batera uztea), grazia eta ironiaz beteriko testua lortzea.

Testuari dagokionez oso laburra eta sinplea da: sinplea baina konplexua aldi berean, hain testu txipian ez baita samurra irakurlearen irribarrea lortzea, eta gure ustez, bertan datza Rossen abilezia. Irudiak, aldiz, kolorez jantziak dira eta primeran uztartuak testuarekin. Testu eta marrazkien arteko koordinazioa bikaina da, Rossek berak ilustratu baitu liburua.

Liburu aproposa etxeko txikiei irakurtzeko eta baita lehen irakurleentzat ere.

Sung Na, Il

Brrrr neguko liburua

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Ttartalo, 2011

ISBN 978-84-9843-301-2

Elurak lurra estaltzen duenean eta zuhaitzak biluzten direnean, dena aldatzen da ... untxi txikia ere bai. Untxitxoa, neguan zuria, naturan gertatzen diren aldaketa guztien lekukoa da: animalia batzuk urruti doaz, beste batzuk lotara goxo-goxo, beste hainbat ur epelen bila, besteak janaria dagoen lurraldetara, ... Baina elurra urtzen denean eta zuhaitzak tonu berdexkak hartzen dituztenean dena aldatzen da ... untxia ere bai.

Album handi honen orrialdeak irudi zoragarriak dira, kolore bizi eta ederrekin margotutako ilustrazioak: oparia begietarako eta poza bihotzerako. Eszena bakoitzak probokatzen duen kontenplazioa, animalien mugimenduen erritmoa, errepikapenak, detaileen eta koloreen ñabardurak, pertsonaien aberastasuna eta abarrek bihurtzen dute liburua hau artelan.

Irakurleek, handiak izan edo txiki-txikiak izan, aukera dugu esperientzia estetiko zoragarria bizitzeko. Uzten digu, barnean, hondoa, edertasunaren eta zorientasunaren hondarra, natura maitatzen eta naturari buruz ikasten dugun bitartean.

Oso gomendagarria txikientzat eta handientzat. Irakurleak asko gozatuko du.

Van-Hout, Mies

Pozik

Itzultzailea: Ihintza Elsenaar

Donostia: Ttarttalo, 2011

ISBN 978-84-9843-321-0

Sentimenduak islatzen dituen hitz soltez eraikitako album gozagarria dugu honako hau. Liburuan zehar sentimenduak maisuki daude adierazita, arrain desberdinen eskutik.

Ilustrazioek garrantzi handia dute sentimenduen adierazpenean. Aipagarria da kolorearen erabilera aproposa, hauek koloretsuak eta biziak izaki, indarra eta bizitasuna ematen baitiote irudiari. Haurrarekin partekatzeko eta jolasteko liburu aproposa dugu, ezbairik gabe, harreman hurbila eta berezia sortzen laguntzen duen horietakoa. Une gogoangarriak bizitzeko aukera izango dugu arraintxo gozagarrien eskutik, batzuetan triste, pozik bestetan, baina betiere, une atsegin bat igarotzeko tenorean.

4 urtetik aurrera

Añorga, Pello

Ipuin kontalariaren lapikoa

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilbao: Aizkorri, 2009 (Irakurri, bizi)

ISBN 978-84-8263-378-7

“Krik, eta denok erantzun dugu: krak”. Eta ipuin-kontalariak esan du: “txokolate, txokolate, ipuina bukatu arte”. Formula honen bitartez Pello Añorgak zabaltzen du bere ipuinaren ate magikoa. Aurrekoan moduan, Ipuin-kontalaria, sail honetako bigarrenean ere ipuin kontalaria (Peño Añorgaren alter egoa, alegia) liburutegira etorri da ipuinak kontatzera. Aurrekoan kutxa eta urrezko giltza batekin azaldu bazen, oraingo honetan lapikoa eta sua ekarriko ditu. Biak ala biak, haurren atenzioa erakartzeko objektuak alde batetik eta, bestetik metafora moduan azalduko direnak ipuinetan. Bigarrenean, suak bildu egingo ditu bere inguruan liburutegira joandako umeak, eta lapikoak hari narratiboa eroanez elikatu egingo ditu umeak eta baita irakurle guztiak ere.

Kontalariak hamar sagutxoek ipuina kontatzen du eta umeek parte zuzena hartzen dute istorioan, kantatuz, beldurra eta tentsioa azal-azalean biziuz: katuak harrapatuta sagutxoak euren larritasunean garrasika hasten direnean umeek ere garrasi egingo dute, baina beti ipuin bat entzuten ari direla garbi erakutsiz.

Liburua ez da “Hamar sagutxuen ipuina”ren kontaketa hutsa. Ez horixe!. Liburu eder honetan autoreak elementu desberdinen uztartze borobila lortzen du. Gure amandreek txokolate on bat egiteko bere denbora hartzen zuten moduan autoreak bere ipuina eraikitzeko, denbora eta espazioa ondo uztartuz, ederto asko maneatu egingo ditu hitzak, hitz-jokuak, kantikak, isiluneak, ... ipuinaren nota guztiekin sinfonia eder bat lortuz.

Ipuina borobila da. Eta hasieran moduan ipuin-kontalariak bukaeran ere formula magikoarekin ixten du ipuinaren leihoa: “txokolate, txokolate, dena bukatu arte”. On egin diezagula! Jokin Mitxelenaren ilustrazioak bikainak dira, eta testuak lortzen duen tentsioa ilustrazioek ederto asko islatzen dute. Ilustrazio gozoak eta beroak dira.

Urte asko daramate elkarrekin lanean Pello Añorga eta Jokin Mitxelena eta horrela jarrai dezatela opa diegu. Liburu bikainak egiten!

Añorga, Pello

Ni ez naiz txerria

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia : Elkar, 2003 (Birundan)

ISBN 84-9783-068-7

Joannes pertsonalitate handiko mutikoa da: marraztea gustatzen zaio eta nahi duena marrazten du, adibidez, txerri hori bat loren artean. Baina lagunek iseka egiten diote eta “txerria” deitu... Ai ze tragedia umearentzat! Marrazkiaren kolore bizi-bizirik beltzak estaltzen ditu eta tristura eta haserrea nagusitzen dira. Aaaaaaaaaaaaaaaaa, ni ez naiz txerria, ni ez naiz kurrin-kurrin! Umearen gorputz osoa errebelatzen da. Baina mutikoak bere bide propioa bilatzen du, beltzaren azpian, loraz inguraturiko txerri maitea azaldu arte.

Nabarmena da Añorgaren gaitasuna sentimenduak azaltzeko; haurren barnean eta umeen arteko harremanetan murgiltzen da eta bizitzan sarri ematen den egoera azaltzen du: umeen krudeltasuna, norberaren estimaren ahulezia, pertsonak duen ahalmena bide propioa jarraitzeko, etab. Narrazioan hamaika emozio (poza, harrotasuna, ahulezia, beldurra, tristura, amorrua...) indar handiarekin adierazten dira.

Narrazioak erritmo oso bizia dauka eta, agian, horregatik da hain egokia kontatzeko. Azpimarratzekoa da Mitxelenaren lana ere: ilustrazioek —kontrastez beteak— testu idatziarekin bat egiten dute eta ñabardura aberatsak eta koloreen (beltza, gorria, horia) hizkuntza ematen diote.

Oso liburu aproposa haur txikiei kontatzeko eta baita irakurtzeko ere.

Arnal, Txabi

Ilargi adarra

Ilustratzailea: Susanna Widmann

Donostia: Kalandraka, 2003

(Amets egiteko liburuak)

ISBN 84-8464-224-0

Eguzkiaren printzek euri tantak argitzen dituztenean ortzadarra sortzen da. Bere koloreetan barrena sartzen denari desiratutako hura emango dion zubia da ortzadarra.

Bizimodu berri bat zuten amets zazpi aberek eta zazpiak zeuden prest ortzadarraren barnean sartzeko. Pasa ziren zubi azpitik eta hara non nahiak bete ere, baina amestutako nahikaria amets gaizto bihur daiteke. Zer gertatu zaie gure zazpi animaliei?

Istorio honek zazpi animalien barnean sartzen gaitu, haien desioa amets gaiztoa bihurtzen denean eta ilargiari kontatu dietenean beren tristetasuna.

Ilargi adarra deritzan narrazioak oso erritmo ona dauka, zirkularra da eta, fantasia mundu horretan, murgiltzen du irakurlea animalia pertsonifikatuen oso egoera konkretuetan. Ozenki irakurtzeko oso aproposa eta bizia, animalia baten desiratik besteaerenera salto eginez.

Ilustrazioak ere mugimendu horretan laguntzen digute eta era berean ortzadarraren koloreetan murgil gaitzke.

Amaiera borobila haur eta helduontzako: ametsak izatea ondo dago... bai, baina norberaren izaeran datza zoriona.

Biondi, Chislaine; Dautremer, Rebecca

Erraldoia eta txoriak

Itzultzailea: Joxan Ormazabal

Donostia: Tarttalo, 2003

ISBN 84-8091-891-8

Oso istorio hunkigarria Hankaundi erraldoiarena. Pertsonaia honek oso bizimodu tristea darama gizakien artean: bakarrik sentitzen da, haiek iseka egiten diote, etab. Baina basoan, hiritik urrun, txoritxoaren artean adiskidetasuna eta zoriontasuna ezagutzen ditu.

Istorioaren erritmoa ona da eta zirkularra: irakurlea tipi-tapa urtarogatik abiatzen da eta naturaren ahotsak, koloreak eta izakiak bisitatzen ditu. Aldi berean ume handia den protagonistaren bihotzean eta sentimenduetan murgiltzen da eta identifikazio "sinpatetiko" bizitzen du. Eta, bestalde, gizarte klasistaren, itxiaren eta beldurtiaren kritika bat ere eskaintzen du narrazio honek, istorioan ez delako agertzen bihotz irekiko gizakirik.

Testuan, pasarte batzuk poetikoak eta musikaz beteak dira —“Hankaundi handia da, handiegia.

Hain da handia lurra dar-dar egiten baitu...”— eta naturarekiko harreman biziak eta goxoak adierazten dituzte —“nahiago du haizearen bizkarrean jolasean ibiltzea...”.

Diseinu aldetik, formatu handiko liburua da, hizkien tamaina eta posizioa aldatu egiten dira (hizki batzuk erraldoiak dira, beste batzuk txikiagoak, etab.) eta ilustratzaileak zooma erabiltzen du erraldoiaren sudurra, oinak edo atzamarrak gertutik ikusi ahal ditzagun. Ilustrazioek nahiko estilo klasikoa daukate eta koloreek —gorrixkak, horiak, okreak— oso tonu beroa ematen diote narrazioari.

Browne, Anthony

Nola sentitzen zara?

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela & Pontevedra: Kalandraka, 2012

ISBN: 978-84-7681-716-2

Nola sentitzen zara?

Galdera honekin ematen dio hasiera Anthony Brownek sentimenduei buruzko liburu eder honi.

Eta galderari erantzuteko bere liburuetan ohikoa denez, gorila kume bat agertzen zaigu, pertsonaia maitekor eta sinpatikoa, sentimendu bakoitza adieraziko diguna.

Testu sinplea erabiltzen du, eta zuzena. Hitzen tamainarekin ere jolasten da egilea, tipografiarekin. Baina ilustrazioak dira liburuari ukitu berezia ematen diotenak, Brownen ukitua; irudien tamaina, kolore, espazio eta gorputz-hizkuntzaren erabilera... marrazki apartak sortzen ditu eta liburu honetan sentimenduak bikain azaltzen dira. Ilustrazioek kontzeptuak indartu egiten dituzte. Horrela, gorila kumea aspertuta baldin badago, grisa da, eta jostailuak baztertuta edukiko ditu; bakarrik sentitzen bada, txikia da; euria egiten badu, triste dago...

Hamalau sentimendu (gose eta ase hitzak ere agertzen dira), erakusten dizkigu. Sentimendu horiek azkeneko bi orrialdetan agertzen dira eta galdera zuzen bat egiten digu: Eta ZU nola sentitzen zara?, entzule edo irakurlea gogoetara bultzatuz.

Beraz, haurri sentimendu eta zirrarak identifikatzen, bakoitzari izena ematen, hausnartzen eta horietaz hitz egiten lagunduko dion liburu aparta daukagu hemen, baita umearen sozializazio eta enpatiaren garapenerako balio duena ere.

Sentimenduen lanketan Brownen gaitasuna handia da eta horrela erakusten digu liburuak bisualki hain erakargarri eta adierazgarriak egiterakoan.

Gure artean beti dira ongi-etorriak autore handi honen lan bikainak.

Browne, Anthony

Tunela

Itzultzailea: Peru Euba

Donostia : Hiria, 2003 (Haurren aurrenak)

ISBN 84-95765-87-X

Tunela narrazioa gizakiaren, haurtzaroaren, fantasiaren, amodioen eta haur-lehia edo aurkaritasunaren barren-barrenean sartzen gaituen istorioa da. Eguneroko gaiak dira, aldi berean nonahikoak edo unibertsalak, eta maisutasunez erabiliak.

Kontaktaren lehen zatia istorio arrunta da, senide arteko desberdintasun eta lehiaren gainekoa. Gero, istorioa tunel ilun, hotz eta heze batean "sartzen" da, baina tunelaren beste muturrean alegiazko mundu bat agertzen da, non

neskatilak bere mamu eta beldur guztiakin topo egiten baitu eta bere neba galtzen du, "harrizkoa bezalako" irudi bihurtuta. Edurnezuriren kasuan, amodiozko musu batek bakarrik esnarazi dezake printzesa loalditik, eta kasu honetan arreba hauskor eta beldurtiaren besarkadak askatzen du mutikoa bere mugiezintasunetik, horrek ekartzen du heriotzatik bizitzara.

Senideen arteko adiskidetze eta baketzearen istorioa da: neba-arrebek maitasunaren eta elkarri laguntzearen garrantzia aurkitzen dute, beren konponezinak atzera utzita. Jarrantzen dute desberdin izaten, baina elkarrekin daude orain. Harri bihurtutako anaiarengatiko negarrak eta besarkada etsiak bizia ematen diote mutikoari. Maitasunaren indarra gai da blokeoak hausteko eta hori egoerarik kritikoenetan bakarrik gertatzen da batzuetan. Esan bezala, baketze eta adiskidetzearen istorioa da: fantasiaren hauskortasun eta ahultasunaren (neskatilaren munduaren) eta errealismoaren indarraren (mutikoaren munduaren) artean, kanpokotasunaren eta barnekotasunaren artean. Bi munduak elkartzeko, tunela zeharkatzeko ausardia edo adorea behar da.

Browne-ren irudiak, non akuarelaren eta argazkigintzaren teknikak erabiltzen dituen, ezinbesteko oinarri dira liburu ausart eta misteriotsu honetan. Bere irakurketa polisemikoarekin irakurleak liluraturik eta aberastuta geratuko dira.

Carle, Eric

Zaldi urdin bat margotu zuen artista

Itzultzailea: Manu López

Iruñea: Pamiela & Pontevedra: Kalandraka, 2012

ISBN: 978-84-7681-708-7

Omenaldi bat da liburu eder hau, zaldi urdin bat margotzera ausartu zen artistari egindako omenaldia, hain zuzen. Franz Marc (1880–1916) espresionismoaren aitzindaria izan zen. Konbentzionalismoei aurre eginez, behi horiak, ardi berdeak edo zakur urdinak marraztu zituen. Haren lana ezinbestekoa da arte modernoaren bilakaera ulertzeko. Eric Carle autore alemanian jaio eta haurtzaroko bere arte irakasleari esker deskubritu zuen Marcen obra, erregimen naziak margotzeko joera hura debekatuta zeukan garaian. Aurkikuntza eraginkor horretatik datorkio Carleri abstrakziorako joera, baita koloreekiko gustua ere. Arteak, errealitatea islatzeaz gain, mezu garrantzitsuak adierazteko balio duela ikasi zuen.

Liburu hau aurre-irakurle eta lehen irakurleentzat pentsatuta dago, oso testu sinpleak erabiliz eta eskala kromatiko osoa erakutsiz doa. Gainera, etxe-abere eta piztia batzuk erakusten ditu, ezohiko itxuraz eta kolorez irudikatuta.

Liburu honek irudimenaren eta sormen askearen leihotik begiratzen gaitu. Carlek egindako irudi ederrak lagun, mundu koloretsu eta iradokitzaile batean murgilduko gara. Guri dagokigu orain haren lekukoa hartu, eta gure umeen sormena akuilatzea, zaldi urdinak eta behi horiak margotzen jarrai dezaten.

Dematons, Charlotte

Goazen!

Itzulpena: Bakun, itzulpen zerbitzuak

Donostia: Ttarttalo, 2007

ISBN 978-84-9843-052-3

Dendara joateko bidea ez da luzea, patioa zeharkatzea besterik ez da. Dena den, etxe aurreko patio hau ez da nolana hiko irudimenaren begiekin ikusten denean. Eguneroko eginkizun sinpleak, abentura fantastiko bihurtu daitezke ume batentzako. Gure protagonistak herensuge eta erraldoi loti bat bizi diren basoa zeharkatu du. Ondoren, kostaldeko harkaitzak gainditu, itsasorantz joateko prest dagoen ontzia hartu eta baleen eta sirenen artean, piratei aurre egin die. Ezohizko abenturak leku arrunt batean.

Dematons dugu idazle eta ilustratzaile aldi berean. Irudi liburuetan erreferentzia, bere proposamena jostagarria da, akuarela erakargarrien bitartez. Testua, esaldi sinpleetan oinarrituta, bigarren mailan gelditzen da. Historian zehar eramaten gaituen hari fin bat izango balitz bezala. Ilustrazioak dira jaun eta jabe irudi liburu zoragarri honetan. Xehetasun bitxiak eta Haur Literatura tradizionalari egiten dizkion etengabeko keinuak ere (Txanogorritxo, iratxoak, erraldoiak ...) azpimarratzekoak dira. Eszena guztiak goitik ikusten ditugu eta milaka istorio alternatibo proposatzen dizkigute: Non dago Edurne Zuri eta zazpi ipotxen etxea? Mudantza lanak bukatu ote dira? Nork egin du graffitia margotu berria izan den etxean?

Bakarrik edo taldean ondo pasatzeko proposamen originala. Ikusmen zorrotza dutenentzat oso gomendagarria.

Figueras, Nuria

Aitona Patxiren txirikordak

Ilustratzailea: Roger Olmos

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Donostia: Kalandraka, 2003 (Amets egiteko liburuak)

ISBN 84-8464-184-8

Aitona Patxik bibote luze-luzeak ditu. Lurrera iritsitakoan moztuko dituela dio. Inork ez du nahi Aitona Patxik biboteak motz ditzan, erabilpen ugari dituztelako: hotzetik bera eta ingurukoak babestea, arropak zintzilikatzea... Baina biboteak ez dira sekula lurrera iritsiko, aitona Patxik sekretu bat gordetzen du eta... Nuria Figuerasek istorio xume eta xamur honetan kontakizun dibertigarria azaltzen digu. Umore kutsua duen istorioa gustura irakurtzen da. Narrazioak errima du eta, era berean, letrekin jolas eginez, tipografia desberdineko letrak azaltzen du egileak.

Roger Olmosen ilustrazioek ere estilo berezia dute: ilustrazio originalak dira, abstraktuak, karikatura kutsukoak, koloretsuak, barregarriak... Esan dezakegu sormena garatzeko aproposak direla: behin eta berriro irudiak ikustera gonbidatzen gaituzte; izan ere, lehenengo begirada batekin ez baitugu ilustrazioa

osotasunez ikusten, xehetasun asko dituzte eta. Nahiz eta album erraza ez izan, txikiei irakurtzeko aproposa izan daiteke.

García Schnetzer, Alejandro

Hondartzako gazteluaren ipuina

Ilustratzailea: Sebastián García Schnetzer

Itzultzailea: Inaxio Mujika Iraola

Irun: Pamiela, 2003

ISBN 84-95589-76-1

Narrazioa bi umeren ekintza baten kontakizuna da. Batak eta besteak gauza bera nahi dute, hondartzan gaztelu ederra eraikitzea... baina, eta hemendik datorkie arazoa, bakoitzarena ederrena eta bikainena izan dadila. “Arkitekto” bakoitzarentzat arrotza da bestea: laguntza eta laguna izan ordez, traba besterik ez da.

Hain zentzurik dago bakoitza bere gazteluan eta amorruan, ez baitira konturatzen itsasoaren indarrak, harik eta olatu batek gaztelu fantastikoak guztiz apurtu eta ezabatu arte. Orduan bakarrik jabetzen dira umeak egoeraz, eta elkarri eskua eta laguntza eskaintzen diote gaztelu eder eta bikain bat egiteko asmoarekin. Lorpena izugarria da.

Bata, Isaac da eta bestea, ordea, Jalil; bata, judutarra eta bestea, palestinarra. Narrazioa parabola bat da, oso estruktura sinplearekin eta ondo egokitua haur txikiei. Haur gazteenek ez dute ulertuko Palestinako konfliktoaz narrazioak ematen duen mezua, baina, parabola guztien modura, ikasketa hau unibertsa da, denontzat ulertzeko erraza eta aplikatu dezakeguna edozein egoeretan, baita gatazka txikienetan ere.

Ilustrazioak sinpleak eta egokiak dira narrazio honetarako eta testu eta ilustrazioaren arteko koordinazio ona lortu da. Bestalde, ilustrazioek —ume baten gorputzari kolore arrosa emanaz eta bestearen gorputza “oliba” kolorez margotuz— sujeritu eta laguntzen dute egoera ulertzen.

González, Xosé Manuel ("Oli")

Arturo

Ilustratzailea: Marc Taeger

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela, 2011

ISBN 978-84-7681-677-6

Arturo txitua deseroso sentitzen zen arrautzaren barruan. Oso hazita zegoen, eta gelatxo hura txikia zitzaion. Baina oskoletik irten arte, txitak ez zekien mundua zein erraldoia eta ezezaguna zen; baina, amaren babesa zoragarria da eta txitu txikiak amaren lumatxa azpian lokartu zen, lasai, zoriontsu.

Kartoi gogorreko liburua, Xosé Manuel Gonzálezek, Olik, gailegoz idatzitakoa, hainbat hizkuntzatarara itzuli da, euskarara barne. Bertan jaioberrien ahultasunaz eta hauskortasunaz aritu da narrazioan: mundura irteteko garaia heltzen denean bizitzen duten esperientzia gogorra, ezezaguna, esperimendatzen duten beldurra,

kuriositatea, hotza, segurtasun falta. Eta istorioan, hainbat haur istoriotan moduan, amaren presentziak eta samurtasunak ematen dio protagonistari indarra eta istorioaren amaiera edo bizitzaren hasiera zoriontsua.

Oso testu sinplea eta sinbolikoa, maitagarria, non txikiak nahiz helduak identifikatzen diren txita txiki eta ahul horrekin. Txita ahula baina aldi berean askea, prest baitago bide propioa egin ahal izateko.

Marc Taegerren Ilustrazioak oso ondo doaz testu idatziarekin: marra lodikoak, kolore bizikoak, eta, nahiz eta oso eskematikoak izan, oso adierazgarriak dira eta oso ondo marrazten dituzte protagonistaren egoerak eta sentimenduak.

Irakurlea identifikatzen da protagonistarekin eta probokatzen dio samurtasuna, bihotzeko ikara eta babes nahia.

Güettler, Kalle; Helmsdal, Rakel

Munstro handiek ez dute negarrik egiten

Ez! dio Munstro Txikik

Ilustratzailea: Áslaug Jónsdóttir

Cangas de Mozarro: Sushi books, 2014

ISBN 978-84-15920-31-1

ISBN 978-84-15920-27-4

Islandiar sail bateko bi album bikain argitaratu ditu Shusi books argitaletxeak. Munstro Txiki eta Munstro Handi dira ipuin hauetako protagonistak: elkarren lagunak dira, baina, ezberdinak direnez, sufritu egingo dute biek ala biek, bestearen izaera eta portaera direla eta.

Ez! Dio Munstro Txikik liburuan, Munstro Handiren zakarkeria jasan beharko du Munstro Txikik. Munstro Handi gaizki portatzen da, beti nahi du agindu, eta egin nahi ez dituen gauzak egitera behartzen du Munstro Txiki. Kontua da Munstro Txiki ez dela ausartzen ezer esatera. "Ez!" esatera ausartuko balitz...

Munstro Handi, berriz, gaizki sentitzen da Munstro Txikirekin dagoenean. Munstro Txiki azkarra eta trebea da, eta bera, berriz, oso traketsa, eta ez daki Munstro Txikik bezainbeste.

Hori dela eta, lelo, ezgai eta triste sentitzen da, baina okerrena da negar egiteko beldur dela, munstro handiek ez baitute negarrik egiten...

Bi album hauek adiskideen artean izaten diren gatazken eta zail egiten zaizkigun egoeren aurrean jartzen gaituzte; hala, munstro batekin edo bestearekin identifikatzen denez irakurlea, bere emozioez jabetzera heltzen da. Ez hori bakarrik, ordea; ipuin hauek adierazten digute garrantzitsua dela nork bere emozioak azaltzea. Tristura, egonezina edo frustrazioa azaltzeko beldurra galtzen ere lagunduko diete hurrei, inor ez baita perfektua. Eta beste gauza bat ere erakusten digute: hitz eginez adiskidetasuna indarberritu daitekeela.

Hiru egilek hartu dute parte testuan: Kalle Güettler suediarrek, Rakel Helmsdal daniarrak eta Áslaug Jónsdóttir islandiarrak. Istorioaren bizigarri diren ilustrazio adierazgarrien egile ere bada Jónsdóttir. Tipografia ere aipatzekoa da, letra mota eta tamaina ezberdinak erabiltzen baitituzte. Azal gogor luze eta estuez eginda daude liburuak, eta, beraz, estetikoki ere liburu originalak dira.

Haur guztien gustuko izango diren istorio burutsu, atsegingarri eta kutunak.

Igerabide, Juan Kruz... [et al.]

Egizu lo. Lotarako ipuinak

Ilustratzailea: Eider Iribar

Donostia: Elkarlanean, 2005

ISBN 978-84-9783-300-4

“Egizu lo” izeneko kanta eta ipuin sorta bi produktu dira, liburua eta CDa, baina helburu bera dute, haurrak goxo-goxo ametsetara bideratzea euskarazko musikaren eta literaturaren laguntzaz.

Juan Kruz Igerabidek, Harkaitz Canok, Miren Agur Meabek, Txilikuk, Mitxel Muruak, Anjel Lertxundik, Joxan Ormazabalek eta Kirmen Uribek argitalpenerako propio idatzitako eta moldatutako ipuin eta poemak biltzen ditu liburu berezi honek. Era askotako kontakizunak dira: herri-ipuinak (gaur egungo idazleek moldatu eta egokituak), urrutiko tradizioetatik hartutako bat edo beste (Arabia, Txina, Tibet, India) poemak, kanta eta sortu berriak diren ipuinak. Denak ezberdinak, motzak, bereziak, loaren atarian gaudenean irakurtzeko edo entzuteko oso aproposak.

Liburuak marrazki ugari ditu, Eider Eibarrek egindakoak. Zornotzar gazte honen lana gero eta ezagunagoa da, ilustrazio mailan ez ezik, animazio filmetan ere bai. Akuarela goxoak, ametsen munduan murgiltzeko aproposak.

Diskoaren abiapuntua, oster, ezberdina da, kantu guztiak baitzeuden aurretik argitaratuak. Gehienak sehaska kanta dira, haurraren munduari eskainiak guztiak. Musikari ezagunak bildu dituzte: Benito Lertxundi, Oskorri, Julen Lekuona eta Jon Bergaretxe, Olatz Zugasti, Amaia Zubiría, Xabier Lete eta Lurdes Iriondo, Niko Etxart, Imanol Aritza, Haizea, Urretxindorrek, Maddi Oienhart eta Pello Ramírez. Diskoa musika hutsezko bi piezarekin hasi eta bukatzen da, eta tartean “Haurra sehaskatxoan”, “Amaren bularra”, “Loa-loa ttunturrun” (lehen aldiz CDan) edota “Loa loa” kanta daude.

Luxuzko edizioa, beraz, puntako idazle, musikari, ilustratzaile eta maketatzaileak batu dituena. Gurasoentzako proposamen oso gomendagarria, umeei irakurtzeko eta kantatzeko lotara doazen unean. Oso aproposa baita oparia egiteko ere.

Ume guztiek izan behar duten liburu kuttuna, beraien loaldia zaintzen duena.

Könnecke, Ole

Antton eta hostoak

Itzultzailea: Lola Erkizia eta Inazio Mujika Iraola

Irun: Alberdania, 2008

ISBN 978-84-9868-029-4

Udazkena! Antton prest dago hosto guztiak jasotzeko eta hala egiten du, baina, bat-batean, hosto txiki batek ihes egingo du... Liburu honek aurkezten digu haur txiki baten bat-bateko begirada freskoa. Istorioa sinpletasunez eta poesia kutsu ederrez deskribatzen da. Horrela, bada, Antton, irakurle txikienekin identifikatuko den heroi bilakatzen da.

Testu gutxi dago, eta kolore zuria nagusitzen da ilustrazioetan. Ole Könnecke, umorez eta goxotasunez, janzten ditu eguneroko egoera sinpleenak. Könnecke, Alemaniako ilustratzaile bikainenetarikoak, protagonista txikiaren ahaleginak azaltzen dizkigu udazkeneko koloreez baliatuta. Zuriaren gainean trazu beltzak, laranja eta horiekin dotoretasunez nahasten ditu, edizio ederra sortuz.

Laguntasuna eta adiskidetasuna oinarri dituen irakurketa atsegina, haurren album gogokoena bihurtzeko bidean dagoena.

Könnecke, Ole

Antton eta neskak

Itzultzailea: Lola Erkizia eta Inazio Mujika Iraola

Irun: Alberdania, 2008

ISBN 978-84-9868-030-0

Antton pozik doa parkera. Egun berriak aukera paregabea eskaintzen dio ondo pasatzeko eta mundua ezagutzeko. Baina gauzak ez zaizkio hain erraz gertatzen. Neskek ez diote kasurik egiten. Zer pasatzen da?... Aibilezia guztiak erakutsiko ditu lagunaren arreta erakartzeko: dituen gauza materialak “pala, ontzi auto eder baten jabea naiz”; bere ahalmenak “indartsua naiz” ; bere trebeziak “ txirristatik jaitsi naiteke buruz behera begiak itxita ”... Dena dela, porrot egingo du bere ahaleginetan, nesken bihotza ezin baita harropuzkeriekin irabazi.

Hain zaila da harremanen mundua ulertzea!...

Azkenik, frustrazioa askatzeko aukera heldu zaio: kolpearekin batera, negarra! Orain neskek kasu egingo diote...

Liburu honek harremanen mundua ikertzeko aukera eskaintzen du.

Protagonistak hasierako bidaia egiten du mundu honetan, eta, horri esker, gai korapilatsu hau ulertzen hasten da.

Esaldiak sinpleak dira, baina, aldi berean, sakontasun handia dute. Ilustrazioak bikainak eta esaldien moduan sinpleak badira ere, oso adierazgarriak dira irakurleen begietara.

Sentimenduak oso ondo islatzen dira, maisutasunezko zertzeladekin lortzen du efektu hau ilustratzaileak.

Ume txikiekin harremanak lantzeko liburu zoragarria daukagu honako hau.

Lionni, Leo

Frederick

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2004

(Amets egiteko liburuak)

ISBN 84-8464-506-1

Frederick, 1963an argitaratua, Leo Lionni-ren (1910- 1999) liburu klasiko eta adierazgarria da.

Negua hurbiltzen ari da eta, beraz, sagu-familia batekoek hornigaiak bildu behar dituzte, gero ez badute goseak akabatzea nahi. Gau eta egun dabilta guztiak lanean, guztiak Frederick izan ezik.

Frederickek eguzki-izpiak biltzen ditu, neguko egun hotz eta ilunetarako; koloreak biltzen ditu negu griserako; hitzak batzen ditu, neguko egun luze eta ugarietan hitzak agortu egingo direlako.

Iritsi da negua eta pixkanaka janaria bukatu egiten da eta hotz egiten du. Orduan, saguak Fredericken hornigaiez oroitzen dira: “Zertan dira zure hornigaiak, Frederick?”.

Frederick-en mezuaren aurrean (“Oraintxe bidaliko dizkizuet eguzki-izpiak. Ea sentitzen duzuen horien distira urrekara!”), sagutxoan ondoan, guk ere begiak itxi eta eguzkiaren epeltasuna sentitzen dugu berriro. “Fredericken ahotsa al da? Magia al da?”, galdetzen dute saguek. Testuaren ahalmena da.

“Eta koloreak, zer?” galdetzen dute irrikaz. Berriro begiak itxi eta Frederickek gari horien arteko mitxoleta gorriez hitz egitean, koloreak ikusten ditugu, geure buru barruan “margotuta baleude bezain garbi”.

“Eta hitzak, Frederick?” Elipsiak premia adierazten digu, saguen larritasuna. Hitzak behar dituzte, hitzak bizirik irauteko, hitzak bizitzeko.

Testu hau poesiaren indarrari egindako abestia da, bizitzeko eta geure nortasuna aurkitzeko narrazioaz eta arteaz daukagun premiari egindako abestia.

Liburua, formatu handikoa, collage teknika erabiliz ederki irudiztatua, haurrek nahiz nagusiek gozatzeko eta atsegin hartzeko liburua da, amets egiteko eta babestuta sentitzeko liburua.

Lionni, Leo

Igeritz

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2007 (Amets egiteko liburuak)

ISBN 978-84-8464-630-3

Zaila da oso Leo Lionniren liburu hau komentatzea, istorio honek gauzak aztertzeraz eta lasai hartzeraz gonbidatzen gaitu-eta. Lionnik hain erraz eta soil azaltzen ditu egoerak, zaila dela hitz proposak aukeratzea.

Igeritz ipuinak betiko sentimendu eta balio etikoei buruz hitz egiten du: ezberdintasunaren garrantzia eta besteenganako begirunea, adiskidetasuna, beldurra eta gainditze lanak, zorigaitza eta bizitzeko gogoak, naturarekiko errespetua, taldearen indarra... Gure heroi txikiak, aldi ezberdinetako sarbide-erritua bizi izango du: “**sorkuntza**”, bera desberdina baita; “**galera**”, bakardadeari aurre eginez; “**gainditze ahalegina**”, itsas azpiko bizimodu zoragarriaz gozatuz; eta, azkenik, “**garaipena**”, guztion artean osaturiko arrain erraldoiaren begitxoa bihurtzen baita. Idazleak erakusten digu denon artean lortutako arrakasta askoz ere pozgarriagoa. Mezu baikorrak dira nagusi, norbera aldatuz eta hobetuz gero, gure ingurua ere ondus joango dela ziurtatzen digu.

Lionni poeta eta pintore bezala azaltzen zaigu. Bere pintzeladek pintore impresionistak dakarkigute burura, mugimenduarekin eta koloreekin jolasten du-eta. Mundua ukitu zirriborrotsuekin, ukitu mugagabeekin deskribatzen du.

Gogoetarako eta bizi-indarrak neurtzeko gonbidapen dotorea.

Lobel, Arnold

Osaba Elefante

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea ; Pontevedra: Pamiela: Kalandraka, 2011

ISBN 978-84-7681-672-1

1981. urtean ingelesez argitaratutako klasikoa dugu Lobelen liburu hau, haur literatura unibertsean aitzindaria eta lehenengo aldiz euskaratua.

Osaba Elefante atea zabaltzen du ... horrela hasten da narrazioa.

Osaba Elefante gabonmusua eman zidan eta atea itxi zuen ... horrela amaitzen da narrazioa, istorioari egitura zirkularra emanez.

Narrazioa, lehenengo pertsonan kontatua, bederatzi kapitulutan banatua dago, eta kapitulu bakoitzak pasadizo bat lantzen du. Bertan osaba elefante atea ireki eta jaso egiten du elefante txikia, haren etxera eraman, hainbat esperientzia bizi eta, gero, bueltan eraman kumea haren gelara eta atea itxi.

Bi pertsonaia: osaba elefante, heldua, zaharra, zimurraz beterikoa, eta elefante txikia, gaztea, esperientzia gabekoa, umezurtza. Eta bien arteko harremana, helduaren eta kumearen arteko harreman goxoa, bakoitza bere rolean, bakoitza bere adinean, baina biok elkarrekin biziz, maitekor, mundua esperimendatzen, gauza txikiekin gozatzen, deskubritzen.

Gure ustez, Lobelen artea handia da: nola ulertzen duen hauraren unibertsoa, hauraren erritmoa, nola planteatzen dituen errepikapenak, nola uztartzen dituen naturaren behaketa eta fantasia, eguneroko gauza arruntak eta misterioa, umorea eta jolasa, nola lortzen duen zirkularitatea. Harrituta, liluratuta uzten gaitu!

Euskarazko edizioak jaso ditu Lobelen ilustrazio originalak: okre, berdexka, marroi kolore ilunak. Ez dira egun ohituta gauden koloreak, baina oso ondo doaz testu berbalarekin eta liburu eta edizio klasikoa errespetatzea oso egokia da, gure ustez.

Laburbilduz, oso liburu bikaina, ederra, irakurtzeko, kontatzeko haur txikiei edo ez hain txikiei. Helduok ere asko disfrutatuko dugu Osaba Elefantearekin.

Lobel, Arnold

Sagu zopa

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2004

(Amets egiteko liburuak)

ISBN 84-8464-226-7

2004. urtean euskaratu zen lehenengoz 1977an idatziriko liburu hau. Urte dezente pasa diren arren, liburu honekin haur literaturaren historian dagoen harri bitxi bat eskuratu dugu irakurle euskaldunok.

Haur literatur lanetan maisu dugu Arnold Lobel idazle estatubatuarra. Idazlea eta ilustratzailea aldi berean, haur liburuaren ohiko bi esparruak era paregabean landu zituen, eta titulu ahaztezin asko eskaini zituen, esate baterako Igel eta Ugel, Sagu kontuak...

Sagu zopan erbinude batek irakurtzen ari den sagu bat harrapatzen du harekin zopa egiteko asmoz. Baina sagu zuhurrak sinistaraziko dio zopa goxo bat egiteko beste osagai batzuk ere ezinbestekoak direla, alegia ipuinak. Ipuinak kontatu ondoren, erbinudea osagaien bila irtengo da; bitartean, saguak ihes egingo du eta irakurtzen ari zen liburuari ekingo dio berriro.

Saguak kontatzen dituen ipuinak itxuraz sinpleak izan arren, apur bat sakonduz gero konturatuko gara poesiaz eta filosofiaz beterik daudela. "Bi harri handi" ipuinean, adibidez, zoriontasuna zeren menpe egon daitekeen ikusiko dugu.

Ahozko tradizioetik edaten duten ipuin hauetan, gai unibertsalak jorratzen dira. Edonon eta edonoiz irakurtzeko balio duten istorioak dira, baina, liburu onekin gertatzen den bezala, irakurketa maila ezberdinak eskaintzen dituzte eta irakurle bakoitzaren ezaugarrietara eta ikuspuntura egokitzen dira.

Ipuin motzak eta ilustrazio goxoak bat eginik, txikienei kontatzeko atseginak eta helduek gozatzeko are atseginagoak.

Lobel, Arnold (1933-1987)

Txerritxo

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela; Sevilla: Kalandraka, 2009

ISBN 978-84-7681-593-9

Txerritxo baserrian bizi da bere txerritegian, lokatzetan pozik. Baina egun batean, hain gustuko duen lokatza desagertu egiten da baserritik, eta, guztiz nahigabetuta, txerrixok baserria utzi eta beste lokatz batzuen bila abiatuko da.

Bidean gorabehera batzuk pairatu ondoren, hirira iritsi eta han lokatzaren antzeko zer edo zer aurkituko du, porlana. Porlanetan murgilduko da lokatza delakoan, baina ondorioa ez da izango berak espero zuena.

Arnold Lobel haur literaturan izen handiko idazlea eta ilustratzaile dugu eta ezagun da hemen aurkezten digun lan honetan. Izan ere istorio xumea bezain hunkigarria dugu esku artean, irudi apalak baina umoretsuak era berean dituen eta nola ez ilustratzaile honek hain ederki baliatzen dituen sentimendua eta mezua maisuki uztartuak.

Kalandraka eta Pamiela etxeak elkarlanean haur literaturan klasikoa dugun album ederra argitaratu dute haur txikientzat, ikusgarria den edizio batean.

Minhos Martins, Isabel

Inuiten mila zuriak

Ilustratzailea: Madalena Matoso

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Tafalla: Txalaparta, 2011 (Txo!)

ISBN 978-84-8136-745-4

Album ilustratu honen protagonista haur inuit bat da. Berak lehenengo pertsonan deskribatzen ditu era xume eta samur batean bera bizi den lekua, paisaiak, ohiturak, animaliak ... Eta deskribapen narratibo honen lotura bakarra kolore zuria izango da: inuiten mila zuriak. Haur inuit horrek bere mundu zuriko nabardura guztiak erakusten dizkigu eta gu harritu egiten gara, konturatzen garenean mila zuri bereizten dituela, guk gure inguruan horia eta urdina bereizten ditugun bezalaxe. Tantaren zuria, hodeien zuria, izozmendien zuria, elur-maluten zuria ...

Honetaz gain, Madalena Matosok collage lan izugarria egin du ipuin honetan, zuri guztien desberdintasunak islatzen eta baita, mugimendua eta naturako forma guztiak irakurleari erakusten ere.

Aldi berean, testuak irakurlearekin jolas egiten du, bai letraren tamaina aldatuz, bai bere kokapena irudien arabera aldatuz, testua eta ilustrazioaren arteko koordinazio oso ona lortuz.

Beraz, album ederra eta atsegina txikiekin gozatzeko eta honekin batera urruneko beste haur batzuk nola bizi diren erakusteko.

Núñez, Marisa

Kokoriko

Ilustratzailea: Helga Banschen

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Tafalla: Txalaparta, 2009 (Txo!)

ISBN 978-84-8136-563-4

Kokoriko txitatxo bat da, eta bere amarekin oso pozik bizi da. Egun batean bere amak bizkotxo bat egin behar du eta bera basora doa egur bila sua pizteko. Basoan dabilela, katu handi eta maltzur batekin topo egingo du. Katuari bizkotxo erdia agintzen dio bere biziaren orde, baina gure txitatxoa oso gozozalea denez, bizkotxo osoa jango du. Hemen hasten da bere zori txarra.

Ez da lehenengoko aldia Marisa Nuñezek ahozko tradiziotik hartutako ipuinak egokituz bere lanak aurkezten diguna. Kokoriko Birmaniako ipuin tradizional batean oinarrituta dago. Idazleak onomatopeiak eta errepikapenak erabiliko ditu irakurlea istorioan sartzeko. Hizkera samur eta sinple batekin baina aldi berean hitz jokoak erabiliz, irakurle txikiei emozioak transmititzea lortuko du: amaren gozotasuna, katuaren haserrea, txitatxoaren beldurra.

Aldi berean, Helga Banschen ilustratzaileak ezin hobeto irudikatzen ditu sentimendu horiek kolore biziko irudiak erabiliz. Irudi hauek marra fin eta

delikatuekin eginda egon arren, indar handikoak dira. Horretarako marrazki panoramikoak bi orrialdeetan zabaldu eta perspektibarekin jolasten du katuaren handitasuna edo amaren babes a islatzeko.

Emozioz beteriko album atsegin eta dibertigarri baten aurrean gaude, oso aproposa haurrei ozen irakurtzeko.

Bertan ikusiko dute zenbat kostatzen zaigun konpartitzen ikastea eta zein garrantzitsua den hitza betetzea.

Ramón, Elisa

Ez da erraza katagorri

Ilustratzailea Rosa Osuna

Pontevedra : Kalandraka, 2003 (Amets egiteko

liburuak)

ISBN 84-8464-227-5

Album honetan heriotzarekin egingo dugu topo.

Ama hil eta gero oso maitekiro kontatzen da katagorri-kumearen sufrimendua. Alde batetik, buruan bueltaka dabiltzan sentimendu kontrajarriak (bakardadea, haserrea amaren faltagatik, etab.) eta, bestetik, aitaren ahaleginak semeari laguntzeko. Hontza ere —basoko laguna— saiatuko da katagorriari babes a ematen, baina paisaiak eta inguruan duen guztiak amaren gogo a ekartzen diote.

Gaia ulertzeko zaila izan arren, oso modu gozoan eta sinesgarrian dago islatuta. Berehala antzematen dugu protagonistaren tristura eta aitaren azalpen guztien aurrean bere ulertezintasuna. Aitaren egitekoa ere bikain agertzen zaigu: ondoan dago eta aldi berean errespetatzen du katagorriak bakarrik egoteko duen desioa. Izan ere, gertaera ulertu arte ez baitu ez jolasteko ez jateko gogorik. Amaieran, gaia hobeto antzematen duenean, katagorriak berak aitaren presentzia eskatuko du, sentitzen duena konpartitu behar duelako.

Oso lagungarria gerta dakioke gertukoren baten heriotza izan duenari; eta heldu batek haur txikiei kontatzeko ere, oso aproposa da.

Marrazkiei begiraturik, tonu grisak alaiagoekin tartekatzen ditu ilustratzaileak. Ederto adierazten dute gaia, zuzenean. Testua bera irakurri barik ere ulertzeko aukerakoak dira. Horretaz gain, jolas liburu bat ere bada album hau, orri bakoitzak aurkitu behar den animalia harrigarri bat gordetzen du eta.

Album ederra, bai irakurtzeko, bai entzuteko, bai ikusteko eta baita jolasteko ere.

Schneider, Anne

Ekilorea

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Ttartalo, 2009

ISBN 978-84-9843-152-0

Pazientzia ikasi egiten da, eta adituek diotenez, txiki- txikitatik ikasi beharreko bertutea da. Hona hemen pazientzia izaten irakasten digun liburua eta, bizitzan

onartu behar ditugun eskarmentuei aurre egiteko, isileko hainbat baliabide ematen digun narrazioa. Gure protagonistak, Margotek, ekilore bat lantzen du bere baratzean eta itxaron egin behar du. Itxaron eta bizitzak zikloak dituela ikasi; gauzak ez direla bat-batean lortzen egiaztatu; zoriona tristurarekin bat doala ezagutu; zerbait lortzeko, lana gogoz egin behar dugula eta, hala ere, guzti-guztiak amaiera duela onartu. Nolanahi ere, mezu baikorra luzatzen digu autoreak eta bukaera itxaropentsua da: bizi-zikloak urtaroak bezala, etengabe hasten dira.

Hau trebetasuna! Orrialde eskas batzuetan, halako mezu sakona helaraztea! Horretan datza liburu txiki honen handitasuna. Testu sinplea eta ilustrazio koloretsu eta adierazgarrien bitartez, bizitzan landatzen eta itxaroten ikasiko dugu.

Goza ezazue liburu hau etxeko txikiekin eta ez ahaztu pazientzia jakintsuen bertutea dela.

Sung Na, II

Z z z z... Loaren liburua

Donostia: Ttartalo, 2009

ISBN 978-84-9843-193-3

Istorio sinplea eta, esan dezakegu, deskriptiboa, aurkitzen duguna album honetan: Zerua iluntzen denean, lotara joaten dira guztiak... Eta eguzkia irtetean, guztiak esnatu egiten dira, hontz zelataria izan ezik.

Egunerokotasunaren narrazio honetan, errepikatzen den egun eta gauaren zikloa kontatzen zaigu, animaliak protagonista direla, erritmoa bera bizitzeko era desberdinak plazaratuz. Baina kontakizun arrunt honetan, artearen eta literaturaren magia aurkitzen dugu baita ere: istorioa arrunta poesia bihurtua, deskripzioa literatura egina. Bestalde, ilustrazioen edertasuna aipagarria da: konposizioa, koloreen konbinazioa, sentsibilitatea, detaileak, iradokizunak... Hainbat sariren irabazle den egile korearrak, testu berbala laguntzaile moduan erabiliz, bere pintzel magikoak eta zoragarriak zabaltzen ditu.

Gure ustez, gozatzeko liburua, kontatzeko eta haurrak zein nagusiak estetikan murgiltzeko album paregabea.

Timmers, Léo

Hamar txerrikume

Itzultzailea: Ane Euba

Donostia : Hiria, 2003 (Haurren aurrenak)

ISBN 84-95765-86-1

Baserritarrak txerritegitik hiltegitara daramatzen hamar txerri txikien bidaia kontatzen du narrazio honek: bidea luzea da, txerriak triste doaz. Nola ez, bada? Baina, bat-batean, sinistu ezinik daude! Ez da posible! Kamioko atzeko ateak bideko salto batean zabaldu egin dira. Hori da, hori!! Zer egin? Aukera ezin hobea da. Ezin da galdu! Banan-banan kamioki gainera igotzen hasiko dira, eta ezusteko

bat baino gehiago jasoko dute. Baina hamarrek lortuko ote dute gainera igotzea? Hiltegiraino iritsiko ote dira?

Ipuin maitagarria, borobila, umorez betea.

Irudiak adierazgarriak dira oso, biziak, politikak, umorez jantziak. Orrien diseinua, aldiz, aparta: ezkerreko orria, orri osoko irudia; eskumakoa, berriz, marrazki txiki bat eta, bertan, pasartearen protagonista.

Testua letra larriz idatzia dago; irakurtzen hasita edota hasteko daudenentzat aproposa.

Quintero, Armando

Ikusi al duzu lehoia?

Ilustratzailea: Geraldine Alibeu

Itzultzailea: Arkaitz Garaikoetxea

Tafalla: Txalaparta, 2011

ISBN 978-84-8136-618-1

Album ilustratu honetan maitasun istorio polit batekin egiten dugu topo.

Igel postariak lehoiarentzako gutun eder bat du, baina lehoia arraro xamar dabil. Korrika eta presaka, antza, ilargira iritsi nahian. Igelak oihanean aurkituko dituen animaliei lehoia ikusi duten galdetu die, beti esaldi berbera errepikatuz. Hauek, bere bila aritzeko argibideak emango die baina beraiengan ere jakinmina piztuko da eta gutunak zer dioen jakin nahiko dute.

Azkenik, lehoia aurkitzean, gutuna irakurriko du. Lehoi emearena da. Honek, ez du maitasun froga handien beharrik, nahikoa du ilargiaren argiak zipriztindutako ura flaskotxo batean bildua eramaten badio. Beste animaliak ere poztuko dira eta bere maitearengana joatera animatuko dute. Maitasunak ez du erakustaldi handien beharrik, bera dela nahikoa handi erakutsiko digu istorio honek.

Testua eta irudia oso ongi uztartzen dira istorioan. Egiturari dagokionez, testua ezkerreko orrialdean eta irudia eskuineanazaltzen da. Bi orrialdeetako irudiak ere badaude. Kasu honetan, lehoiaren ibilbidea deskribatzen dute.

Bestalde, detailez betetako liburua dela esan daiteke. Liburuko orrialdeetan zehar, irakurleari lagun eginez, istorioaren testigua den ume bat azaltzen da. Testuetako lehenengo hizkian, berriz, igelarekin hitz egiten duen animaliaaren ezaugarriren bat azaltzen da.

Ume txikiei gustatzen zaizkien elementuak ditu: errepikapenak, aurreikusi ditzaketen egoerak, jakin mina pizteko elementuak, sorpresa, amaiera polita...

Armando Quintero da idazlea, Venezuelako ibilbide luzeko ipuinkontalari bat eta irudigilea, Geraldine Alibeu. Bien artean, haurrei kontatzeko elementu aproposak dituen liburu zaindua osatu dute.

Ramos, Mario

Hiru txerriren txerrikeriak

Donostia: Tarttalo, 2005

ISBN 84-8091-005-4; 978-84-8091-005-7

Ikasle berri bat etorri da gaur eskolara. Ez da izango ikasle bat gehiago gelan. Ez horixe!. Ikasle berria is different : “beldur pixka bat ematen du”, “gaiztoa ematen du”, “gizajoa”, pentsatu eta esango dute bere ikaskideek. Badira kantatuko diotenek ere : “Ileak lepoan! Ileak oinetan! Ileak edonon! Zataragarrik non?”

Baina, badago ikasle bat, Aritz, taldeko isileko arauak apurtu eta berriarengana hurbilduko dena. Lagun handiak egiten dira. Eta beronek, Aritzek, laguntzen dio azkenean, ikasle berriak duen arazo potoloa, eta, sekretuan gordetzen duena, askatzen...

Animaliak protagonistak izanik, txerri eta otso, idazleak ederto asko azaltzen ditu gizakien arteko harremanetan sortzen diren egoera desberdinak eta baita sentimenduak ere.

Ilustrazioak oso adierazgarriak dira, eta testuaren eta irudien arteko uztardura bete-betea da. Edizio zaindua, atsegina, bai irakurtzeko eta baita kontatzeko ere oso gomendagarria den istorioa.

Valdivia, Paloma

Goikoak eta behekoak

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea; Pontevedra: Pamiela; Kalandraka, 2010

ISBN 978-84-7681-659-2

Paloma Valdivia Bartzelonan bizi den idazle eta ilustratzaile txiletarra dugu. Haur txikientzat aproposa den album honek bere lehenengo esaldian esaten duena kontatzen du: munduan bi biztanle mota daude, goikoak eta behekoak, goikoak behekoak bezala bizi dira baina alderantziz. Itxuraz sinplea den ideia hau abiapuntutzat hartuta, apur bat sakonduz gero irakurketa aberatsa eskaintzen digun liburua da honako hau. Adibidez, geografiaz hitz egiten digu, zein ezberdintasun dago ipar hemisferioan edo hego hemisferioan bizi diren biztanleen artean? zein eragin dauka bertako biztanleen ezaugarri fisikoetan, kliman, nekazaritzan...? Horrez gain, ezberdinei diegun beldurrez ere hitz egiten du liburu honek; leku ezberdinetan bizitzeak desberdinak egiten al gaitu? eta horrela bada ere, besteei lotzen gaituena ez al da askotan banatzen gaituena baino indartsuagoa?

Liburu honen irakurketak galdera hauek edo beste batzuek sortaraziko dizkio irakurleari, baina horrez gain, irakurlearen irribarrea ere lortuko du. Liburuak tonu alaia eta umoretsua dauka eta hori azpimarratzeko ezinbestekoak dira umeez egiten dituzten marrazkien antza duten kutsu naifdun ilustrazioek. Liburu osoan zehar luzatzen den marra gorri batek bi munduak banatzen ditu fisikoki, goikoa eta behekoa. Beheko biztanleak buruz behera ikusiko ditugu

irakurtzerakoan, baina liburuari buelta ematen badiogu, orduan nor dago behean eta nor goian?

Beraz, hitz egiteko, eztabaidatzeko, hausnartzeko eta jolasteko balioko digun liburua da, azken finean, helduok eta umeak elkarrekin irakurri eta gozatu dezakegun narrazio dibertigarria eta atsegina. Eta ez ahaztu, noizean behin alderantziz begira dezakezu!

Ventura, Antonio

Bi otso zuri

Ilustratzailea: Teresa Novoa

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Bilbao: Ibaizabal, 2004

ISBN 84-8325-771-8

Bi otso baso elurtu eta bakarti bat zeharkatzen ari dira. Bidean otseme zauritu batekin eta bere semearekin topo egiten duten arte. Hortik aurrera, laurek elkarrekin jarraituko dute bidea.

Horrela esanda badirudi ez dela ezer kontatzen, ez dagoela ezer... Baina Antonio Venturak idatzi, Juan Kruz Igerabidek itzuli eta Teresa Novoak marraztutako ipuin zoragarri honetan hitz gutxitan zirrara aunitz jasoko ditugu.

Marrazkiak lagun, bakardadea, isiltasuna, elur zuriaren hotza eta gauaren arrastoa bezalako sentazioak hezurretaraino iritsiko zaizkigu eta kolorearen erabilpenak (zuriak, grisak) eta perspektibak... lagunduko digute deskubritzen irudiak testua erabat indartzen duela.

Gainera itxuraz hain samur eta simple den kontaketak, misterioa eta emozioa gordeko du bukaeraraino.

Esan bezala, album laburra eta zaindua, kutsu poetiko nabaria duena batez ere marrazkiaren eraginez. Eta atsegina haurrak zein helduak elkarrekin konpartitzeko.

Weninger, Brigitte

Iratxoaren txanoa

Ilustratzailea: John A. Rowe

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Tarttalo, 2012

ISBN: 978-84-9843-379-1

Goiz eder batean iratxo bat basoan barrena doa eta txano gorria galdu du zuhaitz baten adarrean trabatu zaiolako. Bertatik pasatzen diren animalia guztiek txanoa hartzen dute etxetzat: igelak, saguak, erbiak, trikuak, beleak... Denek dute lekua bertan, arkakuso ñimiñoak izan ezik.

Ahozko literaturan hain arruntak diren baliabideen erabilerak, narrazioari bizitasun handia ematen diote.

Umorea ere ageri da istorio honetan eta John Rowen ilustrazioa ederrak lagungarri izango dira hau lortzeko. Zehetasun ugariko irudiak dira, originalak eta koloretsuak, biziak eta dinamikoak. Idazle eta ilustratzailearen arteko elkarlan honek emaitza ezin hobea eman du. Oso ipuin aproposa haur txikiei ozenki kontatzeko eta heldutxoagoak direnei irakurtzeko ere.

Zubizarreta, Patxi

Urrezko giltza

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena Eritze

Donostia: Erein, 2005

ISBN 84-9746-282-3; 978-84-9746-282-2

Lehen urtearen hondarrean plazaratu baldin bazen liburu ederrik, hori, Patxi Zubizarretaren Urrezko giltza izan zen, batere zalantzarik gabe. Hain da bikaina, hain ederra eta biribila, ezen etorkizunean ere emango baitu zer esanik. Hain dago zainduta liburuaren edizioa: dela testua, dela ilustrazioa eta dela diseinua! Esaterako, azalak. Gustua ematen du, benetan, hain azal gogorra ireki, eta hain kontrazal iradokitzailearekin topo egitea! Dena da intimoa, dena sentibera eta samurra; baina, aldi berean tinkoa eta sendoa. Hitz batean esateko: dotorea. Plazerra da liburua ukitzea, plazerra orriak pasatzea eta arnas hartzea hain orri handietan, hitzek arnas hartuko balute bezala, kometak bailiran, edota arrainak estreinatu gabeko paradisuetan barrena.

Horretarako, jakina, ezinbestekoa izan da liburua zaintzea zaindu den bezala: testuaren tipografia, paragrafoen konposizioa, koloreen tonu distiragarria, atalen ordena... Esan daiteke, hain edizio zainduan, espazioak aireratu egiten duela testua, eta, orduan, testua hegaldatu egiten dela marrazkiekin batera, eta dena agertzen dela argi, eta dena gordetzen dela garbi, eta sortzen dela erresuma oniriko bat, txikitako jokalekua balitz bezala, non dena den posible: ipuin bat entzutea, zaldiko-maldikoan ibiltzea, kantatzea, ikusi-makusika dibertitzea, testu bat irakurtzea, ilustrazioa dastatzea, cd-a entzutea...

Izan ere, horrelakoxea baita liburua: alde batetik, sinplea, eta bestetik, anitza, urrezko giltzaren magiak harrapatua bailegoan. Horretarako, urrezko giltzaren erresuman sartu ahal izateko, ezinbestekoak dira Jokin Mitxelenaren marrazki espresiboak; eta, dudarik ez, testua, zeinean gure ahozko tradizio onaren iturrian edaten den. –Ezin dugu ahaztu Patxi Zubizarreta betidanik izan dela ahozko tradizioaren mireslea.– Eta, hain zuzen ere, tradizioa gogoko duelako, eta batik bat etorkizunari begira diharduelako, liburu hau mamitu du.

Ipuinen jatorria, oro har, Euskal Herrikoa da, baina asko eta asko bestelako tradizioetatik hartutakoak dira. Aldiz, bai kantuak eta bai jolasteko formulak, euskal jatorrikoak dira denak.

Diskoari dagokionez, Joserra Senperena arduratu da alderdi musikalaz. Hona partaide batzuen izenak: Martin Tejeria, Mari Karmen Odriozola, Josune Lopez, Xabi Lopez, Maddi Oihenart, Olatz Zugasti, Gasteizko Abendaño ikastolako abesbatza, eta abar.

Hona, beraz, helduek eta hurrek elkarrekin konpartitzeko liburu bikaina, adinik gabekoa, eta balio duena ez lo hartzeko baizik ametsak esnatzeko, ipuinak, pipitakiak, marrazkiak, musika doinuak eta hainbat formula lagun.

6 urtetik aurrera

Añorga, Pello

Gure hiztegi magikoa

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilbao: Aizkorri, 2012 (Irakurri, bizi. Ipuinak)

ISBN: 978-84-8263-399-2

Lotara joateko ordua iritsi da eta ipuin honetako protagonista, Igor, gauero bezala, aitak ipuina kontatzeko zain dago. Baina gaurkoan aitak beste zerbait dauka, HIZTEGI MAGIKOA. Zein magia ote du? Ba, bertan agertzen diren hitzak azkar errepikatuz gero, beste hitz bat bihurtzen direla.

Hitzak solasgai bilakatu dira Pello Añorgaren liburu honetan, soinu eta musikaz beterik. Hasieran, jolasaren mamia azalduta, “arbel” magiaren bidez “belar” bihurtzen dela, geroago entzulearen esku uzten du sorpresa edo aurkikuntza: Zer bihurtu daitezke beste hitz batzuk? “tukan”, “alboka”... Modu honetan, irudimen eta entzumenari tarte ematen zaie, haurren jakin-mina piztuz.

Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman osasuntsu baten eredia ere eskaintzen du liburu eder honek: arauak betearaztearen garrantzia, gertutasunaren eta maitasunaren beharra...

Jokin Mitxelenaren ilustrazio ikusgarriek osatzen dute kontakizuna.

Añorga, Pello Mari

Haur zeru lurtarra

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkarlanean, 2004 (Birundan)

ISBN 84-9783-117-9

Elkar-eko Birunda bildumako hirugarren alea, eta bertan Pello Añorgaren lan bikaina dago testuan eta Jokin Mitxelenarena irudietan.

Poesia ala narrazioa da? Hori da liburuaren lehenengo irakurraldian sortzen den galdera. Añorgak “prosa poetikoa” erabili du istorio sakon, xume eta ederra sortzeko, hitzak pixkanaka bizia hartuz doazelarik.

Etengabeko errepikapenek erritmo pausatua ematen diote testuari, baita gozoa ere, eta musikaltasun hau areagotu egiten da testua ozen irakurtzen bada.

Testuak eta irudiek bat egiten dute tonu urdinxketan, sinbiosi biribila lortuz. Natura, maitasuna, bizi berri baten jaiotza eta alaitasunaren eta biziindarraren lehertzea tonu gorrixka eta horietan adierazten dira, zuria eta beltza elkartzetik sortuak.

Liburu ederra da, irakurtzeko nahiz kontatzeko. Adin eta kultura guztien gainetik, maitasunaren indar sortzaileari buruzko istorioa da, haurren bihotzera nahiz geurera iristen dena.

Istorio unibertsala da, sorkuntza eta jaiotzari buruzko istorio eta mitoen ildokoa, denboran iraunkorra eta liburu eder batean kontatua.

Bisseuil, Rachael

Zeta elefantea

Ilustratzailea: Guibbaud, Christian

Itzultzailea: Txiliku

Donostia: Ttartalo, 2003

ISBN: 84-8091-849-7

Anabelle sagutxo berezia da ez baitzaio gustatzen beste saguekin ibiltzea eta jolastea, bere bizitzako ametsa elefanteak ezagutzea eta maitatzea baita. Bestalde, elefanteen artean, ohikoa den moduan, Zeta ez da saguez beldurtzen ez dituelako ikusten, itsua baita.

Egun batean, biak, Zeta eta Anabelle, elkartu eta adiskide banaezinak bihurtzen dira. Zetak bere gorputza, konfiantza eta adiskidetasuna eskaintzen dizkio sagu txikiari eta hark mundua eta munduko koloreak erakusten dizkio eta haien xarmaz gozaten irakasten dio. Oso istorio polita eta erakargarria da. Narrazioak erritmo ederra dauka, pertsonaiak ondo definituak daude eta haiengan umorearen eta xamurtasunaren presentzia nabaria da. Bestetik, pertsonaia onak eta gaiztoak ondo bereiztuta daude eta, ipuin klasikoetan bezala, bihotz zabaltasuna, inteligentzia eta sen ona irteten dira garaile.

Barne zentzuen aldeko apustua da istorio hau eta, sarritan gertatzen den moduan, begiekin ondo ikusten duena da itsu handiena, bihotza guztiz itsutua duelako.

Ilustrazio koloretsuak, ausartak eta dibertigarriak liburu eder batean.

Browne, Anthony

Urdaburutarrak

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2006 (Amets egiteko liburuak)

ISBN 84-8464-572-X

1986. urtean kaleratu zuen Anthony Brownek "Piggybook" izenburupeko albuma. Urte batzuk geroago "El libro de los cerdos" izenez atera zuten,

gaztelaniaz, eta berriki Kalandraka argialetxeak euskarazko bertsioa eskaini digu: “Urdaburutarrak” da Koldo Izagirrek itzultzaileak aukeratu duen izenburua oraingo honetan. Bistan da, izenburutik hasita, liburu kritiko baten aurrean gaudela, mezu zuzena eta garbia duen liburua, alegia. Hala ere, 20 urte pasa dira liburua lehenengoz kaleratu zenetik, bi hamarkada pasa dira gizartearen rol banaketa kritikatzeko ipuin hau argitaratu zenetik, eta urte hauetan gauzak aldatu dira, asko edo gutxi, baina aldatu egin dira.

Gaur egun izango dira mezu hau gaituzte dagoela pentsatuko dutenak, baina ez dago dudarik Brownek haur literaturan sekulako urratsa eman zuela gaia hain era gordinean eta ironikoan erakutsi zuenean.

Browne idazlea da, baina batez ere irudien bidez idaztea du gustuko. 2000. urtean jaso zuen, ondo merezita, Nazioarteko Andersen Sari ospetsua, ilustratzaile gisa egindako obrari esker. Brownek unibertso propioa eratu du bere obra zabalean zehar, estetika berezia sortuz. Ilustrazio hiperrealistak xehetasunez josita ageri dira beti, hori dela eta era guztietako irakurketak beharko ditugu marrazkien zehaztasun guztiak aurkitzeko (gezurra badirudi ere, hurrek helduek baino azkarrago bereganatzen dituzte). Irakurketa aberatsa eskaintzen digu, beraz, Brownek, eta pertsonaien eta objektu arrunten (entxufeak, telefonoa, hormetako papera...) itxuraldaketa etengabea denez, metamorfosia poliki-poliki gertatzen da orri batetik bestera. Horrez gain, erreferentzia kulturalak ere ez dira falta, hormetan ageri diren margolanetan, adibidez. Elementu hauek guztiek giro irreal, fantastikoa, komikoa lortzen dute, paradoxikoa izan arren, erreal den egoera bat salatzen.

Dena den, denborak ematen digun perspektibarekin aztertu behar dugu ipuin hau, eta, zentzu horretan, ukazina da haur literaturari egin dion ekarpena.

Carballeira, Paula

Hasiera

Ilustratzailea: Sonja Danowski

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Iruñea: Pamiela, 2012

ISBN: 978-84-7681-710-0

«Hasiera» liburu ilustratua gogorra da, sakona, izua islatzen duen horietakoa, baina era berean samurra, kementsua, bizipoza isurtzen duena. Paula Carballeira poesia egiteko gauza da gerra baten ondorio krudel eta suntsigarrien gainean. Estilo sinplea darabil, hitz gutxikoa, gai unibertsalak planteatzen dizkigu etengabe; nolabait, erantzunak aurkitzera bultzatzen gaituztenak.

Sonja Danowskiren ilustrazio hiperrealistek, berriz, bonbardaketen ondoriozko hondamendiaren eszenatokietaraino daramatza irakurleak. Kolorearen erabilpen trebeak eta trazuaren xehetasunak orrialde bakoitza betetzendute, halako trebeziaz, non liburuak dardarazten gaituen.

Lan sentikor eta samur hau, bestalde, liburuari egindako omenaldia da bakerako tresna den aldetik; bibliotekei egindako omenaldia, jakituriaren faro argitsuak diren aldetik; ahozko hitzari egindako omenaldia, arimaren elikagaia den aldetik.

«Hasiera» liburuak itxaropenezko mezua dakar: bizitzak aurrera egiten du, barre algarak nahigabe lehertzen dira, umeek ezin diote haurtzaroa bizitzeari utzi, edozein gerrak kendu nahi dien arren.

“Hasiera”, gaur egun beharrezkoa den liburua dugu; luxuzko irakurketa, familiar edo lagunen artean partekatzeko. Gogoeta egiteko eta bizitza ospatzeko aukera aparta.

COUTO

Hamalau, jostun kementsua

Ilustratzailea: José Ignacio García

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2001(Amets egiteko liburuak)

ISBN 84-8464-069-8

Kalandraka argitaletxeak, Grimm anaien testuan oinarrituta, edizio berria eskaintzen digu Amets egiteko liburuak bilduman.

Bazen behin jostuntxo bat etxeko leihoan egoten zena josi eta josi. Egun batean hamalau euli akabatuzituen kolpe bakarrean. Harrituta hizki handiko gerriko bat josi zuen HAMALAU zioena, eta munduan aitzina abiatu zen bere balentriaren berri emateko...

Betiko ipuin bat dugu honako hau, baina Xoan Couto eta José Ignacio Garciak osatutako lan honek proposamen estetiko berritzaileaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digu, testu eta ilustrazioak biek elkartuta liburu eder bat osotzen baitute.

Edizio zaindua, atsegina, bai irakurtzeko eta baita kontatzeko ere oso gomendagarria dena.

Heide, Iris van der

Klarion gorria

Ilustratzailea: Marije Tolman

Donostia: Ttarttalo, 2007

ISBN 978-84-9843-062-2

Bada esaldi bat eskoletako sarrera guztietan jarri beharko litzatekeena: "Hezkuntza metodorik onena zorientasuna da". Hau berau da, hain zuzen, album honen protagonistari falta zaiona: zorientasuna bizitzeko, zoriona jolasteko.

Sarak, asper-asper eginda dabilela, klarion gorri bat aurkitu du, eta marrazki bat nahi du egin lurrean, baina ez du ondo margotzen, "Zergatik ez du ondo margotzen? Sara klariona pikutara bidaltzear dagoela, hara non ikusten duen Tim...

Erritmoan eta errepikapenean oinarritzen den ipuin bat da hau. Beretako ez badira ere, Sarak magikoak bihurtzen ditu ukitzen dituen objektuak eta norbaiti ematen dizkionean haren desioak bete egiten dira. Pertsonaia desberdinak agertzen dira eta hauek fantasiako egoeretan murgiltzen dira neskak ematen dizkien objektuen bidez. Sara da asetu ezin den bakarra. Lagunei trukaturako gauza guztiekin saiatzen da, baina ezin du zoriona bilatu. Azkenean, hasierara bueltatu da dena. Eta amaieran, hain justu ere, pertsonaia guztien maitasuna sentitzerakoan Sara ere zoriontsu da.

Ilustrazioak oso adierazkorrak dira, marrazkiak eta koloreak oso biziak dira eta mugimenduz beterikoak.

Ibarrola, Begoña

Koxkor kale txakurra

Ilustratzailea: Emilio Urberuaga

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Donostia: Elkar, 2010 (Sentipuinak)

ISBN 978-84-15-33700-3

Koxkor txakur zahar bat da. Kalezulo ilun batean bizi da, gaixo eta tripak orroka gosearen gosez. Baina Koxkorrek ilusio bat dauka: norbaiten txakurra izatea, elkar maitatzeko eta zaintzeko. Ez dago bakarrik, ordea. Bere lagunak, Partxe, Muxu eta Txist, laguntzeko prest daude, eta ahalegin guztiak egiten dituzte Koxkor zoriontsua izan dadin.

Elkartasuna eta laguntasunari buruzko liburua daukagu hemen, sentimendu solidarioei eta bihotz onei egindako kantua. Istorio kateatuak eta biribilak bukaera zoriontsura eramaten gaitu, eta irakurlea guztiz hunkituta uzten dute narrazioaren protagonistek.

Emilio Urberuagaren ilustrazio ederrek oso ondo laguntzen diote istorioari, narrazioa aberastu eta irakurleari placer estetiko handia oparitzen baitiote.

Begoña Ibarrolaren “Seintipuinak” bildumaren lehenengo liburua kuttuna eta oso atsegina da.

Igerabide, Juan Kruz

Tanta baten istorioa

Ilustratzailea: Lorena Martínez Oronoz

Donostia: Ttarttalo, 2011

ISBN 978-84-9843-327-2

Hona hemen Juan Kruz Igerabide eta Lorena Martinezen album poetikoa.

Ura da protagonista istorio honetan, ur tanta bat. Tantarekin bidaiatuko dugu, zerutik lurrera, gure barru-barruraino, sabeleraino iritsi arte, eta hor garatuko da persona bihurtu arte.

Juan Kruzen poesia sinple, sentibera eta dotorez idatzita, berak adierazi duen bezala gizakiaren sorrerari azalpen poetikoa eman nahiaz idatzi du liburua, ez baitago gauza biziagorik sabelaren barruan amatzen ari den ur tanta hori baino. Aldi berean, tanta hori nola garatzen den sabelaren barruan eboluzioaren prozesu guztia ere agertzen da: narrastiak, arrainak eta ugaztunak, eboluzioa ere poesiaren bidez azalduz.

Bukaera irekia dauka istorioak, alde batetik ur tanta hori arimaren sinboloa bezala ikus daiteke, bestetik bizitzaren sormuin bat izan daiteke.

Lorena Martinezen ilustrazioekin osatzen da liburua. Guztiz adierazgarriak eta biziak dira, protagonismo handia daukate liburuan: laranja, gorria, beltza, grisa, urdina erabiltzen ditu. Edizioa ere ona da, zaindua.

Bizitzaren eta arimaren misterioa liburu eder eta hunkigarri batean.

Janosch

Posta tigrearentzat

Itzultzailea: Ainhoa Irazustabarrena

Iruñea ; Pontevedra: Pamiela; Kalandraka, 2011

ISBN 978-84-7681-678-3

Nola hartz txikiak eta tigre txikiak lurreko posta, aireko posta eta telefonoa asmatu zituzten..

Behin batean, hartz txikia ibaira joan behar zuenean tigre txikiak honela esan zion: Joaten zarenean, hain bakarrik sentitzen naiz beti. Zergatik ez didazu gutun bat idazten?

Bai, hartz txikia eta tigre txikia lagun minak dira, elkarrekin bizi dira eta haien arteko edozein banaketa handiegia da, luzeegia da; horregatik, bat etxetik irteten denean, derrigorrez biok elkar komunikatuta egon behar dira. Horretarako, gutunak dira tresna garrantzitsuak, ... baina norekin bidali ibai ondoan idatzitako gutuna?, nola asmatu komunikatzea gero eta azkarrago, gero eta efikazago.

Istorioan zehar, lagun biak bide guztiak bilatzen dituzte ondo komunikatzeko: postariak aurkitu, baina postari bizkorak, sistema antolatuak eta efikazagoak

antolatu, aireko posta, posta idatziaren ordezkari telefonoa deskubritu lurpeko kable sarea eraikiz, etab.

Azken finean, lagun biak, beharrari erantzun nahian, asmatzen dute beste batzuei lagunduko dien sistema anitza. "Eta, hala, basoan eta ibaian bizi ziren guztiek gutunak bidali ahal zizkieten edonori, eta bikotekidearekin hitz egin ahal zuten urrun zeudenean" Akwarela antza duten ilustrazio zoragarriak ditu liburuak, haiekin bakarrik irakurleak gozatzeko modukoak. Liburu dibertigarria, hunkigarria, samurtasun handia sorrarazten duena, kantu ederra adiskidetasunari eta maitasunari.

Jiang Hong, Chen

Han Gan-en zaldi magikoa

Ilustratzailea: Chen Jiang Hong

Itzultzailea: Itziar Alizabalaga

Donostia: Ttarttalo, 2006

ISBN 84-8091-879-9

Duela mila eta berrehun urte jaio zen Han Gan Txinan. Txikitatik maite zuen marraztea, baina, gauza guztien gainetik, zaldiak marraztea zuen gustuko, ahalik eta zaldi errealeak. Bere fama handituz zihoanez, Enperadoreak deitu zion Margolari Ofizialen Eskolan sar zedin. Baina, han, Han Ganek zaldiak lotuta marrazten zituen beti, eta honen zergatia galdetzen ziotenean bere zaldiak bizirik zeudela erantzuten zuen, eta bizirik zeudenez paperetik ihes egiteko gaitasuna zutela azaltzen zuen.

Gau batean, gerrari indartsu batek Han Gan-en atea jo zuen eta zaldi bat eskatu zion gerrara joateko, munduko zaldirik indartsuena eta ausartena, alegia. Baina menderaezina zirudien zaldi honek sentimendu zintzoak erakutsi zituen eta, tristeziak jota, gerra utzi eta Han Gan-en koadrora itzuli zen betirako.

Artearen magiari buruzko istorioa da hau, txinatar kondaira magikoa, non errealtatea eta fantasia gurutzaturik agertzen diren. Baina, honez gain, eta batez ere, gerratea den absurduaren kontrako liburu baten aurrean gaude.

Marrazki panoramikoak bi orrialdeetan zabaltzen dira, egileak Han Gag-en margolan originalak hartzen ditu oinarritzat, eta berak erabilitako teknika berberak erabiltzen ditu txinatar pintura tradizionalaren erara.

Espazioan eta denboran garraiatuko gaitu album zoragarri honek, aintzinako Txinan murgilduko gara xehetasunez beteriko ilustrazioei esker, hitzak baino ilustrazioak baitira hemen esanguratsuagoak. Istorioak hunkituko gaitu eta ilustrazioek, berriz, zirrara estetikoak piztuko dute irakurlearengan.

Ka, Olivier; Perrin, Martine

Nire sekretuen zuhaitza

Donostia: Ttarttalo, 2014

ISBN 978-84-9843-554-2

Bat-bateko maiteminak ez dira maiz suertatzen, baina, halakorik gertatuz gero, gogo handia izaten da aurkikuntza hori beste irakurleekin konpartitzeko. Nire sekretuen zuhaitza ireki bezain pronto, lau haizetara gomendatzeko liburua dela sentitzen dugu. Dena da ederra liburu honetan: azala, koloreak eta formak, baita erabilitako paper mota ere. Irakurtzen hasi aurretik, jakin badakigu magiaz beteriko istorio bat aurkituko dugula. Izenburu iradokitzaileagatik ote?

Istoria sinplea da, ume batek bere barruan dagoen zuhaitzarekin konpartitzen ditu bere sekretuak. Sekretu horiek azalpera iragazten dira, txoko bat aurkitzen dute, eta bertan gelditzen dira, eroso. Baina, noizean behin, urrutirako bidea hartzen dute, eta, zenbaitetan, beste ume baten sekretu bihur litezke. Eskimal txiki baten sekretua elurrez blai eginga ote? Ume ijito baten sekretua herriz herri ibiltzen ote da? Berdinak ote dira neskak txinatar baten eta gazte afrikar baten sekretuak?

Galderak, jolasak... esku artean erabiltzeko eta ukitzeko liburu bat da hau. Jolasean doaz hitzak orriz orri, forma ezberdinak hartuz, dantza goxo batean bezala, biribilduz, lausotuz, jolastuz.

Testua eta irudiak ezin dira bereizi, bat egiten dute era errazean; era miresgarrian ere esango genuke. Dena da naturala liburu honetan. Orrialde bakoitzak sorpresa bat gordetzen du, sekretuz beteriko liburua da, poetikoa, aberatsa, jakin-min sortzailea.

Bi kolore dira nagusi liburuan, urdina eta berdea, eta, tarteka, gorri apur bat ere agertzen da. Urdinak askatasuna adierazten du; berdeak, lurra, eta gorriak, bizitzaren taupadak. Kolore gutxi liburu dotore bat osatzeko, edizioaren dotoretasuna biribiltzeko.

Sekretu txikiak eta handiak, asmatutako sekretuak eta mundu guztiak ezagutu behar dituenak. Baina, ixo! Sekretua da! Isilpean zabaldu behar den horietakoa! Ez zarete damutuko, ez.

Lertxundi, Anjel [et al.]

Begira begira. Tradizioaren leihotik

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Jon Oyanguren Azkue

Donostia: Elkar, 2006

ISBN 84-9783-432-1

Anjel Lertxundi, Kirmen Uribe, Juan Kruz Igerabide, Miren Agur Meabe, Txiliku, Joxan Ormazabal, Harkaitz Cano eta Mitxel Muruaren testuak topatuko ditugu Elkarrek argitaratutako Dona Dona saileko azken liburuan.

Bilduma honetako beste liburuetan bezala, tradizioa dugu oinarri oraingoan ere. Egileek aitortu dutenez, “arnasberitutako” tradizioa lortu nahi izan dute

liburu honen bitartez. Bertan, euskal tradizioetik gaurdaino heldu diren ipuinak, poemak, hitz-jokoak... biltzen dira, baina, egileek diotenez, hauek osatu eta aberasteko ahalegin bereziak egin dituzte, eta honetarako Elena Odriozola ilustratzaile ezagunaren laguntza ezin hobea izan dute.

Egileek emandako ukitu berezi hauez gain, ipuin tradizioaletako ohiko elementuak ere topatuko ditugu kontakizunetan: egoeren errepikapena, abereak nonahi, baserri giroko mundua, ipuinen bukaerako irakaspena eta, nola ez, umorea eta ironia.

Besteak beste, Rafaelen aje xelebreen berri izango dugu, Ttote izeneko mutiko bati maitagarri batek desio bat eskaini zionean zer gertatu zitzaion ere jakingo dugu, San Jose eta Ama Birjinaren kontakizun ezezaguna, Erramun Babarrun-en familia berezia, Ura, Sua eta Konfiantzaren ipuina...

Ipuin laburrak dira guztiak, bizpahiru orrialdekoak, eta poesiak eta hitz-jokoak tartekaturik daude ipuinen artean. Egitura hau oso aproposa izango zaie gurasoei gauero lokartu aurretik ipuintxo edota poesia bat hurrei irakurtzeko eta era honetan gure ahozko tradizioaren zati txiki batekin goxo-goxo gozatzeko aukera izango dute hurrek zein helduek.

Le Thanh, Tai-Marc

Arreba haragijalea edo arkume eroaren

gaixotasuna (978-84-8394-104-1)

Artzaina edo zer pentsatzen duten arkumeek

lokartu aurretik... (978-84-8394-102-7)

Nor izan da? edo haizekirri perfumatu bat...

(978-84-8394-103-4)

Zerriak edo paper ziztrin sorta

(978-84-8394-101-0)

Ilustratzailea: Rébecca Dautremer

Itzultzailea: Patxi Ezkiaga

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2008

(Serafin arkume)

Bilduma berri bat, umorez betea, Ibaizabal argitaletxeak etxeko gazteenentzat plazaratutako azkena. Absurdoak eta umoretsuak dira album hauek. Politikoki zuzenak ez diren horietakoak. Lokartu aurretik haurrak zenbatzen dituen arkumea da gure protagonista: Serafin arkumea, hain zuzen ere. Baina bildumako beste liburuetan arkume haragijaleak edota puzkertak azaltzen dira.

Serafin arkumearen pasarteak irribarrea sortzeko bestekoak dira hainbatetan, eta, batzuetan (eta batzuei), algara sortzeko modukoak ere bai. Liburu hauek albumaren eta komikiaren artean kokatu daitezke; zenbaitetan bineten bidez agertzen dira denboraren eta ekintzen sekuentziak, baita bestelako ikuspuntu

bitxiak ere, baina testua biñetatik kanpo geratzen da. Marrazkiek garrantzi handia hartzen dute kontaketa osatzeko. Rébecca Dautremerren marrazkiak, soilak eta garbiak dira, eta sakontasun handia hartzen dute espazioek. Biñeten banaketa eta marrazkien kolore eta itzalen aldaketek erritmo desberdinak ezartzen dizkiote irakurketari.

Zenbat eta beren ipuin gehiago irakurri, hainbat eta atseginagoa egiten den pertsonaia horietakoa da Serafin. Egoera edozein dela ere, Serafinen imajinazioa bukaezina da, eta, arkumetxo baten azalean, sinesgarria bihurtzen da. Tai-Marc Le Thanhек egiten duen rolen aldaketa maitagarria da benetan.

Zoragarria hitza etortzen zaigu burura album hauek irakurtzerakoan.

Fantasia eta umorea nahasten dira, eta emaitza zoragarria da. Benetako oparia irakurle, ume eta nagusientzat!

Machado, Ana María

Mamu-hezlea

Ilustratzailea: María Luisa Torcida

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Bilbao: Ikasmina, 2008 (Baporea)

ISBN 978-84-9855-042-9

Ana María Machadok 1980. urtean idatziriko liburu baten aurrean gaude, oraingoan, Ikasmina argitaletxearen eskutik, euskarazko edizio zainduan argitaratzen dena. Irudimena lantzeko eta haurraren barne beldurrei aurre egiteko ipuin gozagarri bat dakarkigu egileak.

Sergio dugu liburuko protagonista eta beldur die zuhaitzek bere logelan islatzen duten irudi beldurgarriei, baina beldurrak uxatzeko, ustezko mamuekin hitz egitea erabakitzen du, bide honetatik Sergiok munstro itsusi eta dibertigarriak sortuko ditu bere irudimenaz baliatuz.

Aipatzekoa da liburuak azaltzen duen hiperbolearen aldeko joera, betiere tonu alaia gailentzen dela. Hainbat munstro agertuko zaizkigu liburuan, zein baino zein aldrebesagoa eta itsusiagoa. Puntu honetan irakurle gazteak gonbitea jasoko du jolasean sartzeko eta bere munstro propioak sortzeko, inongo muga eta trabarik gabe, soilik bere irudimenak ezartzen dizkionak.

Egituraren aldetik errepikapenak lagundu egiten du jolasean murgiltzeko. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi ilustratzailearen lan aparta, modu ezin hobean islatu baititu munstro guztiak, eta ironia eta alaitasuna erabat irudikatuta geratzen dira liburuan. Ezbairik gabe, gomendatzeko moduko liburu xume eta dibertigarria.

Mazo, Margarita del

Artaldea

Ilustratzailea: Guridi

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Fraga: La Fragatina, 2014

ISBN 978-84-16226-04-7

Erraza da ardia izatea, zeren eta eginbehar bakarrak paseatzea, jatea, lo egitea eta besteri lo egiten laguntzea baitituzte. Pertsona bakoitzari artalde bat egokitzen zaio, eta Mikeli, besteoi bezalaxe, berea egokitu zaio.

Lokartu ezinik dabilenean, deitu egiten die, eta ardiak jauzika hasten dira, lokartzen den arte. Egun batean, ordea, lau zenbakia duen ardiak ez du egin nahi beste ardi guztiek bezala, eta hesia ez saltatzea erabakitzen du.

Horrela hasten da narrazio eder hau. Margarita del Mazok istorio goxo eta umoretsu bat ontzea lortu du, maiz erabili izan diren bi kontzeptu modu egokian lotuta: ardiak zenbatzearena eta familiako ardi beltza izatearena.

Ilustrazioek lotura handia dute hitzezko testuarekin, eta Guridi ilustratzaileak oso ondo uztartu ditu umorea eta samurtasuna, irudi soil eta garbien bidez. Istorioaren parte ezinbestekoa da ilustrazioa, eta narrazioari umorea, adierazgarritasuna eta esangura gehitzen dizkiote.

Irudimen handiko istorio polit bat da Artaldea, non pertsonaiek arauak apurtzen baitituzte ustekabeko gauzak egin ahal izateko.

Murua, Mitxel

Maripuzker

Ilustratzailea: Iñaki Martiarena "Mattin"

Donostia: Elkar, 2002 (Batela; 1)

ISBN: 84-8331-915-2

Puzkerrak botatzea gustuko duen neskatoa dugu Maripuzker. Egun batean, dantzan ari zela, puzker batek ihes egin zion; lotsa-lotsa egin eta munduko ipurdian egon gura zuen gure neskatoak. Bai hala gertatu ere!

Abiapuntua hori izanik, esan beharrik ere ez dago ipuinaren ardatza umorea dela. Ausarta ere badela gainera daiteke, ezen Mitxel Muruak aukeraturiko gaia —puzkerrak—, irakurleengan irribarrea eta artegasuna eragingo baititu. Ausarta, puzkerrak pertsonaia bihurtzea ezohikoa delako.

Muruak narrazio lineala egitea erabaki du, baita amaierarako irakaspena gorde ere. Luzera aldetik, txikientzako egokia da Maripuzkerren bidaia. Aise eta atseginez irakurtzen den ipuina da, irakurle lehen irakurleei zuzenduta baitago.

Mattinek erraztasunez egin ditu testuaren lagungarri baino gehiago osagarri diren marrazkiak: sinpleak, baina xedearekin bete-beteen asmatzen dutenak. Haurren arreta lortu, eta esanguraz beteriko marrazkiak eskaini dizkio irakurleari. Irudiek zirkuaren mundua agertzen dute eta kolore biziak erabiltzeak areagotu egin du sentsazio hori. Zalantza barik esan daiteke marrazkiek eta testuak, bakoitzaren bitartekoak uztarturik, ipuin osoa eta irudimenerako aukera eskainiko dié teta Maripuzker entzun edo irakurriko duten hurrei, bietarako —kontatzeko nahiz irakurtzeko— baita aproposa.

Olaso, Xabier

Auskalo! Igarkizun eta aho-korapiloak

Ilustratzailea: Agurtzane Villate

Iruña: Pamiela, 2001 (Tamaina ttikia; 41)

Honela diosku Xabier Olasok hitzaurrean: "...esku artean duzun liburu honetan luzaroan idatzi ditudan hainbat eta hainbat igarkizun eta aho-korapilo bildu ditut, denak ala denak ere zu jolas zaitzen ondutakoak. Nik ondo baino hobeto pasatu dut guztiguztiak asmatzen, zeharbideak bilatzen, hitzak josten, mezuak makilatzen, esaldiak moztuz, janzten, erantzten... Orain, liburua plazan dagoen honetan, zeu zara protagonista nagusia eta zera nahiko nuke, igarle, zeuk ere ondo baino hobeto pasatzea aho-korapilo eta igarkizunon hitzak askatzen, mezuak desmakilatzen, esaldiei moztuz kentzen, erantzten, janzten, igartzen..."

Hitzok ederki laburbiltzen dute liburuaren nondik norakoa. Eta ez bakarrik laburbildu, ongi baino hobekiago lortzen baita esandakoa. Horretarako, estilo oso zuzena darabil Olasok, bizia, plastizitate handiko irudiez lagunduta, testuinguru hurbileko egoerak azalduz. Horregatik uste dugu oso erraz iritsiko dela ez haur koskorrengana bakarrik, baita haur txikiengana ere. Hain dira jostalariak! Hain elektrikoak eta ustekabeak! Eta zorrotzak, batez ere zorrotzak!

Agurtzane Villateren marrazkiak ere guztiz azpimarragarriak gertatzen dira, baita edizioaren kalitatea ere. Izan ere, oso ondo baitago zainduta edizioa, nola diseinua ala enkoaderazioa, eta ziur gaude oso une atseginak sorraraziko dituela hainbat haurren.

Hona hemen, bada, helduek eta haurrek elkarrekin konpartitzeko liburu bikaina. Besterik ez: ea igartzen dituzuen igarkizunak eta ea errepikatzen dituzuen aho korapiloak batere okerrik esan gabe! Hala izan dadila!

OLI (Xosé M. Gonzalez)

Hamaika andere ausart

Ilustratzailea: Helle Thomassen

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2001 (Amets egiteko ipuinak)

ISBN 84-8464-095-7

Tituluan aipaturiko hamaika andereak bidaia harrigarri eta liluragarri murgilduko dira eta irakurleok hasieratik sartuko gaituzte bertan. Hamaika leku ezagutuko ditugu hamaika orrialdetan (Arabia, basamortua, Txina, Ilargia...); baina andere bat desagertu egingo da —edo galdu edo soilik ezkutatu egingo da— toki miragarri horietako bakoitzean. Horrela, hamaikatik hamar, hamarretik bederati... gutxitzen joango dira bat bakarra gelditzen den arte eta hori goxogoxo bere etxean geratuko da, liburuari begira, azkeneko orrialdean.

Kontakizunak bi euskarri sendo ditu: testua bera, errimatua, eta ilustrazioak. Bata bestearen lagun ezinbesteko.

Testuek, errimaren eskutik, ozenki irakurtzeko bizitasuna eskaintzen dute. Motzak dira, hizki molde biribiletan eginikoak, mugitzen ariko balira bezala

agertzen dira orrietan eta marrazkiari egoki atxikitzen zaizkio. Marrazkiak ere mugimendu handikoak dira, kolore biziz apainduak, ñabardura anitzez osatuak. Orrialde bakoitzean luze gelditu eta beste hainbat istorio amestera gonbidatzen dute.

Liburua Kalandraka argitaletxearen eskutik dator eta azaldu behar da haur txikientzako argitalpenetarako apustu handia egin dutela. Bertako arduradun Eva Mejutok dioen bezala, "Kalandrakaren lehen helburua estetikoki eta literarioki kalitate handia eskaintzea da; haurrek lehen urteetatik goza dezatela irakurketaz, ezagutu dezatela liburu batean ezkutatzen den magia". Uste dugu, beste hainbatetan bezala, horretan ere lan bikaina egiten dutela. Bi ezaugarriak kontutan hartuta, estetika eta kontakizuna, oso gomendagarri irizten diogu liburu honi, modu askotara kontatzen diezaiotzeko irakurtzen ikasteko eta ipuinekin gozatzeko adinean dagoen haurrari.

Pennart, Geoffroy de

Otso bihotzbera

Itzultzailea: Mixel Jorajuria

Uztaritze: Ikas, 2011

ISBN 978-2-84963-045-7

Otsoa beti izan da beldurra edo ezinegona sortzen duen pertsonaia haur literaturan. Liburu honetan mito hori hausten da. Kasu honetan, bere bidea egiteko gogoz dagoen otso gazte, sentibera, zuzena...azaltzen zaigu.

Familia zorionsuan bizi da, sentimenduak lekua duten familia batean. Agurtzen denean, aitak jateko aproposak direnen zerrenda ematen dio, tradizionalki otsoak jan dituenen zerrenda.

Bere bidea egiten hasten denean zerrendako guztiekin elkartzen da: ahuntza eta pitikak, txanogorritxo, hiru txerritxoak... baina denek, nolabait, bere bihotza ukitzen dutenez, ezin ditu jan. Goseak jota, etxe bateko atea jotzen duenean berriz, gizon beldurgarri batek ez du batere ongi tratatzen. Orduan otso bihozberak bere barruko haserrea atera eta orduan bai, orduan zeharo asetzen du bere gosea. Gizon beldurgarria, haur jalea da, bere zerrendan idatzi duen azken izena. Ilustrazioek ere ipuinari asko laguntzen diote, oso deskriptiboak baitira. Haurrari ipuina kontatzen zaion bitartean, arazorik gabe istorioa jarraitzeko modukoak:

lehenengo zatian Lukas otsoaren eta bere familiaren aurkezpena eta agurrak; bigarren zatian, bideko topaketak (lehenengo, bi orrietako ilustrazioak bidean eta gero beste bi orrietan), pertsonaiekin izaten duen elkarrizketa eta hartzen duen erabakia; hirugarren zatian, haur jalearen pasarteak.

Ipuin klasikoetan ondo eta gaizki dagoenaren dikotomia argia izaten da. Otsoa orokorrean gaiztoa, maltzurra, zatarra, iluna izan ohi da. Gainerakoak, berriz, onak, zintzoak, batzuetan gizagaixoak ere bai. Ipuin honetan pertsonaien konplexutasunak badu lekua. Hor dago zazpigarren pitikaren bihurrikeria, otsoari jarraika dabilen mutikoaren desobedientzia edota otsoaren sentiberatasuna. Denok barruan ditugun elementuak.

Irakurlea, ipuineko pertsonaia guztiekin identifikatua sentitu daitekeela dirudi. Ipuina iparraldeko euskarara itzulia dago. Hegoaldeko zailtasunak izan ditzakegu irakurtzerako orduan, baina hurrei kontatzeko ipuin ederra da.

Ramstein, Anne Margot

Aurretik ondoren

Donostia: Ttartalo, 2014

ISBN 978-84-9843-462-0

Testurik gabeko irudi-liburua dugu honako hau. Bi ilustrazio agertzen dira parez pare, eta denboraren eraginez batetik bestera sortu diren aldaketak ikusten ditugu. Aldaketa horiek nabariak eta logikoak dira batzuetan, eta finagoak eta burutsuagoak besteetan. Irakurlearen gain geratzen da bi irudien arteko ibilbidea irudikatzea, denborak kasu bakoitzean zer eragin duen ulertzeko.

Egileak adierazi nahi izan duen ideia sinplea da: bizitzan ezer ez da aldaezin; izan ere, denborak, lehenago edo beranduago, den-dena aldatzen baitu, etengabe. Aldaketok hainbat arrazoiengatik gerta daitezke: naturaren zikloak eragindakoek ez dute erremediorik (ilargiaren ondoren, eguzkia; ekaitzaren ostean, barealdia; arrautzaren ondotik, oiloa... edo alderantziz da?); beste batzuk, ordea, gizakiak eragindakoak dira (harri puska bat eskultura bilakatzea, edota zelai zabal batean bide bat eraikitzea), edo are gizartearen bilakaerak eragindakoak (lehendabizi, usoa; ondoren, luma, eta hirugarren irudian, eskutitza). Txikienen begiak ere gai izango dira, ilustrazio errealistei esker, egoerak aztertzeke eta haien gainean hausnartzeko.

Liburu honek irakurketa ugari eskaintzen ditu, irakurleak beste. Nork bere esperientzia eta ezagutza maila gehituko dizkio irakurketari. Ez da, beraz, ume txikienezako ohiko ezagupen-liburu bat; urrunago doa, eta horrek ematen dio benetako literatur balioa.

Rodari, Gianni

Nor naiz ni?

Ilustratzailea: Miguel Tanco

Itzultzailea: Iñaki Zubeldia

Bilbao: Ibaizabal, 2006 (Paper txoriak)

ISBN 84-8325-959-1

Nortasuna garatzen ari den edozein ume bezala, liburuan zehar identitate bila dabil gure protagonista txiki hau. “NOR NAIZ NI?” “... etengabeko galderarekin bere izaeraren alderdi desberdinak deskubritzen doa pixkanaka –pixkanaka, eta, aldi berean, garrantzitsua dela sentitzen.

Liburu xumea forman, zailtasun gabekoa, baina sakontasun handiz aztertzen dituena haur baten pentsaera eta sentimenduak. Protagonistaren azalean sartzen zaitu idazleak eta hamar minututan irribarrea ezpainetan, ume bihurtzen zara berriro, haren garapenarekin gozatuz.

Narrazio honetan errepikapena da ildo nagusia, eta, era honetan, alde batetik, idazleak azpimarratzen du zein den benetan umearen kezka, eta, bestalde, haurrek hain gustuko duten hizkuntzaren elementu honekin jostatzen da.

Oso liburu egokia heldu batek kontatzeko hurrei, edota sei-zazpi urteko umeak eurek bakarrik irakurtzeko.

Ilustrazioei dagokienez, oso originalak, desberdinak, direla esan daiteke. Ipuin klasikoetan agertu izan diren estilotik oso urrun daude. Gorputzeko atalak exageratu samar azaltzen dira: handituta, txikituta...karikaturen eitea dute.

Ruiz, Ruben

Eta txorimaloa mintzatu zen

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Bilbao: Aizkorri, 2003

ISBN 84-8263-337-6

Baserritar batek baratzean zazpi letxuga ureztatu ondoren, lotara doa hurrengo egunean barazkiak plazan saltzeko asmotan. Gauean ordea, baserriko animaliak gosetuta, baratzetik pasa eta letxugak jatera doazenean, txorimaloaren oharra entzungo dute: "Azkeneko letxuga jaten duenak etxea galdu du". Goizean jaiki ondoren, baserritarra baratzerara hurbiltzen da eta bere zazpi letxugak desagertu direla ohartzean zer gertatuko ote da txorimaloaren esanak beteko al dira?

Ipuin polita, gustu handiz irakurtzen dena, istorioak intriga eta jakin-mina pizten du irakurleengan, bai eta amaiera ezustekoa eta borobila aurkitu ere. Liburuaren estrukturari dagokionez, eskema berdintsua erabiltzen du pasarte guztietan. Txorimaloaren leloaren errepikapenarekin sonoritatea lortzen du eta erritmoari biziki eusten dio.

Aipagarria, benetan, alderdi estetikoa, ilustrazioen dotorezia Elena Odriozolaren eskutik: txorimaloaren garrantzia eta sinesgarritasuna bikain azaltzen du.

Liburuaren gaia, berriz, hau: animalia batzuek, pertsonak moduan, beraien norberekeria nabarmen azaltzen dute une askotan. Baliteke gizakiaren metafora izatea, besteen oharra eta lana kontutan hartu gabe, kasu honetan baserritarren lana; izan ere, beraien gosea asetzeko, gizonaren barazkiak jango dituzte inongo errespeturik gabe eta beren ekintzen kalteak kontutan hartu gabe.

Serres, Alain

Animalia harrigarriak

Ilustratzailea: Martin Jarrie

Bilbao: Ibaizabal, 2003

ISBN 84-8325-676-2

Uholde unibertsalak lurra urez estali behar duenean, Noeren semeak, Imajinoek, ideia zoragarri bat du: ez bakarrik animalia errealak salbatzea, baizik eta hark marraztutakoak ere bai. Horretarako, Imajinoek marrazki-koaderno handi batean bere ametsetan agertzen zaizkion animalia harrigarriak marrazten ditu eta erabakitzen du horiek ere uholdetik salbatzea.

Ez da lehen aldia Serres idazleak eta Jarrie ilustratzaileak elkarrekin lan egiten dutena eta emaitzak ezin hobeak izan dira, aurrekoetan bezala. Bien artean irakurlearekin jolas egin nahi duen álbun harrigarria eta ausarta egin dute. Bertan agertzen diren animalien irudiek, oso zainduak eta indarrez beterikoek, integratzen dituzte naturaltasuna eta arte indigenaren adierazkortasuna.

Irudi bakoitzeko testu labur bat irakurri dezakegu. Bertan animalien deskribapen laburrak, konparaketak, smakizunak, hitz jokoak... erabiltzen ditu idazleak umore puntu bat ere sartuz álbun harrigarri eta ikusgarri honetan. Testu labur horiek poemak dira eta oso aproposak ozen irakurtzeko.

Smet, Marian de

Komun barruan

Ilustratzailea: Marja Meijer

Itzultzailea: Peru Euba

Donostia: Hiria, 2004 (Haurren aurrenak)

ISBN: 84-95421-35-6

Ane eta bere ama liburutegira joan dira. Beti bezala, amak denbora asko behar du libururen bat aukeratzeko eta Ane, bitartean, komunera doa. Komuneko atea barrutik ixten du eta irtetera doanean konturatzen da atea ezin dela ireki. Hemen hasten dira Aneren buruhausteak.

Liburuan islatzen den egoera nahiko ohikoa eta, aldi berean, larria izan daiteke. Baina gertaera hau liburutegi baten kokatzea eta protagonistak haurrak izatea leundu eta gozotu egiten du egoera. Gainera, liburu bat estuasun batean, lagungarri izan daitekeela ere erakusten digu idazleak.

Bestalde, istorioak jakin-mina pizten du irakurleengan eta intriga puntu hori amaieraraino mantentzen du. Nola irtengo dira komunetik?.

Aldi berean, Marja Maijerren ilustrazioak adierazkortasun handikoak dira: biziak eta umorez beterikoak, komunaren handitasuna eta haurren txikitasuna azpimarratu nahirik. Protagonisten aurpegi esanguratsuak oso lagungarriak dira egoera desberdinak adierazteko.

Esan beharra dago edizioak akats bat duela: istorioaren azkeneko irudiaren aurretik sail bereko beste tituluen zerrenda agertzen da; Detaile hau, gure ustez, ez da aproposena edizio zaindu batetarako.

Hala ere, istorioa polita eta dibertigarria da eta oso gustura irakurtzen den liburu baten aurrean gaude, edonori irribarrea aterako diona.

Sobrino, Javier

Basoak badu sekretu bat

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Tafalla: Txalaparta, 2009 (Txo!)

ISBN 978-84-8136-560-3

Udaberriko egun batez urtxintxak norbait ezagutu du eta burutik ezin kenduz dabil. Basoko beste lagunekin konpartitzen du bere kezka; muxarra, otsoa, hartza, hontza eta azeriarekin. Hauek, banan-banan euren ustez, egoera horrek sortzen dion sentimenduaren deskribapena egiten diote eta nola jokatu aholkatu.

Baina laguna nor den jakitean, ezinezkotzat jotzen dute harreman hori. Hala ere, azkenean, urtxintxak lagunarekiko sentimenduak onartzen ditu eta bien arteko harremanak sekretu izateari uzten dio.

Euskara aberatsa du liburuak, esaldi laburrak erabiliz eta egituren errepikapenarekin jolastuz. Teknika honen bidez, idazleak erraz eta modu atseginean murgiltzen du irakurlea narrazioaren mamian, sekretuaren partaide eginez. Sinonimoz betea dago. Hizkuntza tratatzeko era goxoa eta gertukoa da. Aldi berean, naturaren erreferentziak etengabekoak dira: zuhaitzak, animaliak, usainak...eta zentzumenekin jartzen gaitu kontaktuan liburu honek.

Azpimarratzekoa da bereziki liburuaren hasiera eta itxiera, daukaten kutsu poetikoak edertasuna ematen baitio istorioari.

Ipuin honetan maitemintzean agertzen diren jarreraren deskribapena egiten zaigu. Istorio hunkigarria, zer pentsatu ematen duena, desberdinen arteko harremanak ere posible direla erakusten diguna.

Torras, Meri

Nire arreba Aixa

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Elkarlanean, 2001 (Kuku; 8)

Liburu honetan Arnauk bere arreba Aixaren historia kontatzen digu. Horretarako Arnau amaren sabelean zegoen garaiarekin eginiko konparazio batekin hasiko zaigu kontakizuna "Aixa hegazkinez Afrikatik etorritako neska baita". Mutiko gazte honek, bere bizipenetan oinarrituta, gozotasunez, adopzioen munduan murgilduko gaitu eta baita gizakien kontrako minen ondorio latzetan ere. Horrela, gaztetxoaren hizkeran, apurka-apurka, adopzioa, integrazioa, elbarritasuna eta maitasuna garatuko dira kontakizunean zehar. Meri Torrasek idatzi eta Mikel Valverdek ilustratutako liburu hunkigarria dugu "Nire arreba Aixa".

Testu eta irudiaren osotasun paregabeaz gozatzeaz gain, itxaropenaren leihoa zabalduko zaigu irakurtzen dugun bitartean.

Winter, Jonah

Frida

Ilustratzailea: Ana Juan

Itzultzailea: Ainhoa Basterretxea; Joseba Santxo

Madrid: Santillana, 2003

ISBN 84-8147-393-6

“Frida munduratu da”...Horrela hasten da Frida Kalhoren biografia labur eta eder hau, non margolari mexikarra umetan, nerabezaroan eta heldutasunean ezagutzeko aukera izango dugun.

Jonah Winter-en testu labur honek kontatzen digu, besteak beste, Fridak ez zuela bizi erraza izan. Zazpi urte zituela poliomielitisak jota herren geratu zen eta hamazortzi urterekin trafiko istripu bat izan zuen, betiko arrasto fisiko zein psikikoak utziko zizkiona. Baina ezbeharrek ez zuten bere sormena zapuztu, areagotu baizik, Fridak gaixotasuna eta mina edertasun bihurtzen asmatu baitzuen pinturaren bitartez.

Denboraldi luzeak igaro behar izan zituen ohean, eta une haiek aprobetxatu zituen etengabe margotzeko...

Eta, artistek egiten duten erara, margotu zuena sentitzen zuenaren ispilu bilakatu zen.

Izan ere, liburu honetan bere bizitzaren eta sentipenen zati handi bat aurkituko dugu. Ana Juan ilustratzaileak Frida Kalhoren margolanak hartzen ditu oinarri eta iturri. Ilustrazio koloretsu hauetan, Frida Kalhoren estetika bereziaren ezaugarriak nabariak dira; baina mexikar arte herrikoiaren irudi tradizionalak ere (hezurdurak, deabrutxoak, jaguarrak...) liburu osoan zehar agertzen dira eta Frida Kalhok eratu zuen mundo pertsonala ezin hobeki osatzen dute.

Margolan bihurtutako liburu honek irakurlearen zentzuak iratzarriko ditu eta, albumekin gertatzen den bezala, irakurtzeko ez ezik, ikusteko ere egina dagoela ohartuko da. Arte liburu bat, biografia bat edota txikienez album bat, hiru liburu batean, irakurle bakoitzaren esku geratzen da gustuko den ikuspuntutik murgiltzea

Zubizarreta, Patxi

Marraztuidazu gutun bat

Ilustratzailea: Marko Armospach

Bilbao: Descleé De Brouwer, 2001

ISBN 84-330-1585-0

Ainhoaren ama, Ageda, bidaia luze bat egitera joango da, eta Ainhoa bera eta aita agurtzera joan dira. Agedak alabari agintzen dio telefonoz deituko diola eta gutunak idatziko dizkiola. Alabari eskatzen dio, berriz, gutunak marrazteko,

oraindik ez baitakiidazten; aitak lagunduko dio bidaltzen. Hortik aurrera komunikazio horren bilakaera ezagutuko dugu, beti Ainhoaren ikuspuntutik: batzuetan gutunak iristen zaizkio umeari, leku urrunetatik, baina ez egunero; telefono deiren bat ere jasotzen du; haurrak, bere aldetik, marrazkiak egiten ditu amari bidaltzeko. Umeari luzea egiten zaio ama ez egotea; aitak ere etxetik kanpo pasatzen du Ainhoak nahi baino denbora gehiago azken egunetan... Denbora pasa ahala, Ainhoak zalantzak eta beldurrak agertzen ditu ama ez egotearen inguruan.

Azkeneko orrietan jakingo dugu amak denbora hori guztia ospitalean pasatu duela eta onik atera dela ebakuntza handi batetik. Bere “bidaia” pertsonal horretatik bueltan, familia berriz bilduko da eta pasatutako tristezia ahaztuko zaio Ainhoari. Hona hemen, beraz, familiari gertatutako pasarte latz baten kontakizuna, modu sentikor eta originalean narratuta.

Markoren marrazkiak oso atseginak dira eta ederto integratzen da haien artean ilustrazioaren aurkikuntza bat: Ainhoak amari bidaltzen dizkion zazpi marrazkiek benetan dirudite umeez egindakoak, eta horrek sinesgarritasuna — eta edertasuna— gehitzen dio istorioari.

8 urtetik aurrera

Añorga, Pello

Gerlari handia

Ilustratzailea: Jokin Mixelena

Iruñea: Pamiela, 2007

ISBN 978-84-7681-535-9

Añorgaren eta Mitxelenaren azken liburuak berriro ere ezustean hartu gaitu. Xumea azalean baina sakona funtsean, liburu honen irakurketak Platon filosofoaren haitzuloaren metafora dakarkigu burura. Honen ustetan, gizakiak sentipenen munduan bizi dira, ilunpean, haitzulo beltz batean sartuta, gatibu, askatasunerako bidea ongia aukeratuta soilik izango dutelarik. Gure Gerlari Handia ere kartzela batean bizi da, beti borroka, gerra eta heriotzaz inguratuta. Ilunpean, bere beldurretan preso, etsaia beti kanpoan ikusten duela, etsai handiena barruan daramala ohartu gabe (bere itzalaren aurka patetikoki borrokatuko da); ongia aurkitzeko bidea sufrimenduz beterik dago, baina bere arimara hurbiltzen doan heinean, pixkanaka joango da gure gerlaria argia ikusten, bere buruaz barre egiten (kanpoko eta barruko armadura puskatzen) eta azken finean, aske sentituko da, bakean (eguzkia elurra urtzen hasiko da) ...

Indar handiko ilustrazioak erabilita, gerlariaren kemenak horiz eta beltzez marraztuta, denboraren eta geografiaren mugak gainditzen duen istorio UNIBERTSAL bat dugu begien aurrean. Gizatasunaren ikuspegia, barne-ezagutza aurkitzeko egin behar den bide minkorra, etab. dira, besteak beste, album honen ardatzak.

Eskuetan dugun liburuan konkretuki, ideia unibertsal hauek umeentzat era zoragarrian daude egokituak. Beraz, ez da harritzekoa liburu honek jaso izana 2007. urtean haurrentzako album ilustratuak sortzeko I. Etxepare Bekarekin saria. Metafora bikainez beteriko liburua, interpretazio anitzei irekia irakurlearen adinaren arabera. Gerlari Handia hausnarketarako gonbidapen ederra da. Gizatasunari buruz gehiago jakitea nahi dutenentzat oso gomendagarria.

Añorga, Pello

Txinpartaren izakiak

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkarlanean, 2002 (Xaguxar; 119)

ISBN: 84-8331-902-0

Bibliara edo kontakizun mitikoetara jo behar dugu, komentatzen dugun liburuan agertzen den testu mota aurkitzeko, Añorgaren liburua bizitzaren sustraien eta galdera garrantzitsuen alegoria baita.

Bibliaren Genesisia-ren hainbat elementu erabiliz (hutsa eta sorkuntza; argia eta iluntasuna; bizitza eta heriotza; sagarra eta sugea, etabar.), narratzaileak bizitzaren txinpartaren indarrean itxaropena jartzen du, nahiz eta gaitza, iluntasuna eta lur-azpiak bertan daudela kontutan izan.

Testuaren arabera, dena da bizitzaren partaide: eguna eta gaua, lur-azpiak eta airea, itsutasuna eta argitasuna; baina txinpartarik gabe ez dago ez argirik, ez itxaropenik, ez bizirik: izakiak oro hilik.

Komentatzen dugun testua ezin da Bibliarekin konparatuko eta ez dago gure asmoan hori egitea, baina judutarren eta kristauen testu sakratuarekin hainbat antzekotasun eta desberdintasun du, ez dakigu nahita edo nahi gabe: pertsonaiak mitikoak dira, baina ez dago Jangoikorik; izakiak sortuak dira eta kreazioan gertatzen den moduan bizitzeko bokazioa dute; sugea eta sagarra, txinpartaren suspergarriak edo iturriak dira, eta ez gaitzaren bideak edo tresnak, etab.

Ez ditugu ezagutzen autorearen iturriak eta asmoak baina testu sinboliko honek irakurketa oso anitza izan dezake. Testuaren polisemian kokatzen dugu narrazio honen balore nagusi bat.

Narrazioa sinboloz josita dago (adibidez, sua eta uraren funtzioak, argitasuna eta iluntasuna, sugetzarraren estatusa edo sagarrondoaren indarra, etab.) eta, nahiz eta oso fondo sakona eta serioa izan, jolasa dago idazlearen luman: errepikapenak, onomatopeiak, elipsiak, izaki pertsonifikatuak, etab. Joku honek testuari oso tonu poetikoa ematen dio eta irakurleari kantu melodikoa heltzen zaio.

Norentzat da testu hau? Sentsibilitate handiko pertsonentzat. Azkenengo liburuetan, ohituta gaitu Pello Añorgak testu bereziak eta oso pertsonalak ematen. Uste dugu, mesedagarria dela horrelako pintzelada desberdina izatea gure literaturan eta irakurleei, nahiz ume, gazte edo heldu, horrelako estetika eta sormen txinpartak eskaintzea.

Jokin Mitxelenaren ilustrazioak, edizio honetan zuri beltzean, nahiz eta ondo egokituak egon testu idatziari, bigarren “planoan” gelditzen dira eta nahiko tonu iluna ematen diote liburuari.

Ozenki irakurtzeko testu egokia eta ederra entzutzeko.

Añorga, Pello

Zuni

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Bilbao: Aizkorri, 2006 (Mendi sorgindua)

ISBN 84-8263-356-2

-Poesia-

Esaten dena bezain garrantzitsua delako esaten ez dena, haiku itxurako poema labor hauek poesiaren helburu nagusia bete-betean atzematen dute: bizitzaren uneen eta sentimenduen PINTZELADAK izatea. Irakurlearen lana izango da poema hauen bihotzeraino heltzea, norberaren esperientzian oinarrituta, azken ukitua ematea. Zu (poema) eta ni (irakurle), ZUNI, poesiaren irakurketa nire bihotzaren taupadekin bat egin arte.

Zu eta ni, ni eta zu, ZUNI. Bizitzaren iragankortasuna eta naturaren ziklo irmoak, MAITASUNA, unibertsoaren funtsezko oinarria dena, harremanak (hartu eta eman), beti bi, zu eta ni, ni eta zu, binomio estetikoak leunkiro proposatuz.

Idazlea ausarta izan behar da ugaritasunaren gizartean hersturaren bidea hartzeko. Pello Añorgari naturaltasun osoz atera zaio, badakielako, ondo jakin ere, bizitzan kolore askotako PINTZELADAK.

Jokin Mitxelenak modu guztiz egoki eta erakargarrian ilustratu du poema-liburu hau. Kolore goxoak eta beltzak, halako sentimendua honako kolorea, eta berriro PINTZELADAK, berriro bi, zu (poesia) eta ni (ilustrazioa), ni eta zu, banaezinak, plazer estetikoa iradokiz. Ozenki irakurtzerakoan erritmoa da nagusi, hitzak eta sentimenduak bat datoz, dantzaldi dotore baten bezala, eta poematxoen irakurketa gozamen bihurtzen da.

Umeentzako eta bihotzarekin irakurtzen dakiten helduentzako liburua. Zu (umea) eta ni (heldua), ni eta zu, ZUNI.

Fondacci, Élodie

Basoko Loti ederra

Ilustratzailea: Éric Puybaret

Itzultzailea: Joxe Antonio Sarasola

Bilbao: Ibaizabal, 2014

ISBN: 978-84-8394-287-1

Bazen behin Mila Dorreko Erresuma zeritzon erresuma bat. Bikaina zen erresuma hura, edonor zorientsu bizitzeko modukoa, baina, hala ere, errege-erreginak ez ziren zorientsu, biziki desio zuten hura, haur bat izatea, ez baitzen betetzen.

Horren ondorioz, etsipena nagusitzen joan zitzairen. Baina, hara non, egun batean, erregina bainatzen ari zela, igeltxo bat azaltzen zaion bainuontzian, haurtxo bat izango zuen seinale.

Handik gutxira, printzesa eder bat jaio zen. Inguruko maitagarriak bataio-ospakizunetara gonbidatuak izan ziren, eta dohain bereziekin hornitu zuten neskak. Zoritxarrez, ordea, maitagarri bat ez zuten gonbidatu. Haserre eta mindurik, jauregira azaldu eta madarikazio bat bota zion haurrari: hamasei urte betetzean, hil egingo zen, goru baten ardatzak zizta egin ondoren. Eta, halaxe, printzesak hamasei urte egin zituen egunean, maitagarri hark esandakoa bete zen, baina ez guztiz, neskak ez baitzen hil...

Perrault eta Grimm anaiei esker, oso ezaguna da maitagarrien ipuin hau gure kulturaren. Nori ez diote kontatu, era batera edo bestera, ipuin klasiko hau?

Oraingoan, ipuinaren beste bertsio bat heldu zaigu, hain zuzen ere Elodi Fondacci-k fideltasunez berreskuratutako testua. Eriz Puybaret-en ilustrazio distiratsuak indar handikoak dira, estetikoki bereziak, eta dotoreziaz janzten dute liburua. Egileek bertsio ederra eta gaurkotua lortu dute, eta eskertzekoa iruditzen zaigu klasiko batekin gozatzeko aukera hau izatea.

Bestalde, testuaren luzera aintzat hartuta, zortzi urtetik gorako haurrentzat egokia izan daiteke, nahiz eta, zenbaitetan, idazleak irakurlearengana zuzentzeko hartzen duen tonua aintzat hartuta, egokiagoa dirudien txikiagoentzat.

Heras, Chema

Amama eta aitita

Ilustratzailea: Rosa Osuna

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra, Kalandraka, 2002 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 84-8464-169-4

“Udaberriko arratsalde batez aitita lorategia ihinztatzen ari zen, auto bat azaldu zenean nzalapartaka”. Horrela hasten da ipuin poetiko eta xarma handiko hau.

Protagonistak, aitita eta amama, zahartzaroan sartuta biak. Aitita, dantza gogoaz. Amama, ordea, festetan ibiltzeko gogo gutxirekin. Amamak zahartzaroko alde tristenak (zimurak, freskotasun falta) azaltzen baditu ere, aititak lore politenak botaz —“intxaurrik gozoena lako azal zimurragaz, udako hodeia lako ile zuriagaz...”— amama konbentzitu egingo du eta dantzara abiatuko dira. Bukaeran, dantzan ari direla, amama konturatu egingo da aitita ere bere azala bezain zimurra duela, udako hodeia bezalako ile zuria...

Ipuinean zehar garbi ikusten dira gizakiaren zahartzeak ekartzen dituen aldaketa fisikoak eta mugak eta horiek oztopo izan daitezkeela norberak hori bakarrik ikusten badu. Baina, maitasunak, benetako maitasunak, “txikikeria handi” horiek samur gainditzen dituela. Ipuin positiboa beraz, liluragarria, bizitzaren aro ezkutatuena, zahartzaroa, alegia, ohoratu egiten duena.

Egitura aldetik, errepikapenez osatzen da eta bizkaierazko forma asko dakar: horregaz, lako, besteak beste. Irudiak ere oso esanguratsuak eta gozoak dira. Azken finean, amamak dioen moduan, ilargia bezain ederra.

Igerabide, Juan Kruz

Printzesa begi-zulo

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Donostia: Elkar, 2009 (Kuku)

ISBN 978-84-9783-748-4

Molde tradizionala duen istorio xume honek harritu egiten gaitu, bai bere bilakaeragatik bai bere amaiera zoriontsu eta irekiagatik.

Honako hau kontatzen zaigu: printzesa batek bere herri afrikarreko pobretasun eta gaitzetik ihes egin eta mundo berri aberats batera joaten da. Bertan, bere ama zaintzeaz gain, aurrera egin beharko du; eta egunerokotasun horretan, bere printze zoragarria aurkituko du.

Kontakizun laño honen bitartez, idazleak bere alderdi poetikoena eta artistikoena zabaltzeko aukera du. Igerabide poeta, idazle sentibera, hizkuntzan trebea, ironia fina duena, eta sormena. Erabiltzen dituen baliabideak (errepikapena, adibidez), hiztegiaren oparotasuna eta bere poetika lagun, esperientziaren uretan murgiltzen gara, begien bistako eta itxurazkoa denetik haratago joanez, eta kontaketa hau istorio gizatiar sakona bilakatuz. Obra hau irakurrita, are gehiago konbentzitzen dugu geure burua literaturaren indarraz, kontatzen eta idazten jakitearen arteaz.

Iturbe, Arantxa

Amona basoan galdu zenekoa

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Donostia: Elkar, 2003 (Berria)

ISBN 84-9783-042-3

Maddiri amona Elenaren ipuinak gustatzen zaizkio eta txikitatik bere magalean jesarrita entzun izan ditu; baina egun batean amonari Txanogorritxu ipuinaren amaiera ahaztu egiten zaio eta Maddi beldurtu egiten da. Handik gutxira, amona zaharren egoitza batera eramaten dute.

Amona eta Maddiren arteko harremana oso ondo deskribatzen du idazleak, eta pertsonaiak sinesgarritasun osoz azaltzen ditu. Alzheimerren gaia, egun dagoen gizartearen arazo larria, ondo tratatua dago eta ipuin honek oso ondo islatzen ditu amonaren beldurra eta Maddiren sentimendu nahasiak, amona ondoezik ikusi eta gaixotu ote den beldurra duelako.

Hunkigarria da amona, Txanogorritxu moduan, basoan galduta dagoen pasarte; emakumeak amaiera hurbil dagoela sumatzen du nonbait eta negar malkoak ezin eutsi agertzen da ilobaren aurrean. Arantxa Iturbek liburuaren izenburutzat aukeratu du pasarte hau.

Elena Odriozolaren ilustrazioek —zoragarriak eta testuarekin bat datozenak— momentu askotan hunkitu egiten gaituzte, amamaren irudiak oso ondo islatzen baitute ipuinaren esanahia eta amonak daukan etsipena gaixotasunaren aurrean.

Sentiberatasunez beteriko narrazioa da, hondohondoraino heltzen dena eta gure barneak astindu egiten dituen

Janosch

Zein polita den Panama!

Itzultzailea: Ainhoa Irazustabarrena Barriola

Iruñea ; Pontevedra : Pamiela : Kalandraka, 2010

ISBN 978-84-7681-646-2

Ibai bazter batean bizi diren hartz txiki bat eta tigre txiki bat dira ipuin eder honen protagonistak. Egun batean platano usaina duen kutxa bat agertzen da ibaian behera, Panama hitza bertan idatzita duena. Hortik aurrera, haien ametsetako lurraldea Panama izango da eta bidaiari irtegarria dira leku magiko hori topatzera. Bidean animalia askorekin egingo dute topo eta denei Panamara joateko bidea zein den galdetuko diete...

Janosch idazle eta ilustratzaile emankorra dugu hunkiberatasun handiko istorioak kontatzen dituenak. Kasu honetan gizartutako animaliak erabiltzen ditu istorio alai eta baikorra kontatzeko, elkarrizketa umoretsu eta dibertigarriak erabiliz. Aldi berean, balio positiboak jorratzen ditu: adiskidetasuna, ezbeharrak gaitzeko grina eta baikortasuna. Bestalde, ilustrazioak, koloretuak, alaiak eta garbiak, bat datoz testuarekin. Haien bitartez, natura idealizatu bat marrazten du irakurlearen emozioak hunkituz.

Haur literaturako klasiko eder baten aurrean gaude, non abentura txiki honek era guztietako bidaiari egitera gonbidatzen gaitu gure barruko alderdi sakonenak jorratu ahal izateko.

Landa, Mariasun

Amona, zure Iholdi

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-253-X; 978-84-9746-253-2

Amona hegazkinen joan-etorria zuzentzen egongo da zeruan, baina denbora izango du Iholdi lurrean egiten duena ikusteko, hau da, behintzat, Iholdi uste duena.

Bizirik zegoenean elkarren artean zuten konplizitatea areagotu egin da amona hil zen egunetik. Amonari zuzendutako gutun baten bidez emango dio gertaera baten berri. Martin lehengusuak eta berak benetako pistola bat aurkitu dute usategi zahar batean. Gai honekin kezkatua dago eta laguntza bila zuzenduko zaio amonari, eta, betiko moduan, behar zuen aholkua aurkituko du amonarengan.

Mariasun Landak unibertso propioa sortu du haurren eguneroko arazo txikiak kontatzeko orduan. Haurrak izan ditzakeen hausnarketetan barneratzen da, eta hortik abiatuta istorioak asmatzen ditu. Haurren eguneroko bizipenetan, sentimenduetan...murgiltzen da, eta haien ikuspuntutik hitz egiten du; haurren ahotsada, azken batean, benetako protagonista

"Amona, zure Iholdi", 2000. urtean argitaratu zen lehen aldiz, baina Iholdi bera aspalditik ezagutzen dugu. Orduko istorioak ahaztezinak bilakatu dira, eta

gure haur literaturan merezitako lekua bete dute. Honako Iholdi hau haren jarraipena dugu, urteak pasa dira eta bizipenak aldatu dira, baina funtsean guztionak bezalako arazoak dituen neskatila berbera dago oraindik..

Asun Balzolaren marrazki berriek ilustratzen dute azken argitalpen hau. Nabaria da bi emakume hauen arteko harremana oso sakona izan dela.

Landa, Mariasun

Alex

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-252-1; 978-84-9746-252-5

Alexek ahalmen berezi bat du, etorkizuna ikus dezake, baina ez da hori liburu honen ardatza. Alexek lagun berezi bat du, Nina izenekoa, eta adiskidetasun hau dugu hain zuzen gertatuko den guztiaren oinarri: bere bizipenak, sentimenduak, desioak, beldurrak...

Ospitaletik kontatuko digu Alexek zergatik dagoen bertan, zer gertatu zen Ninarekin, nola salbatu zuen eta nola "antiabentureroak" izan arren, ezohiko aventura baten protagonistak bilakatu diren.

Ezustez heroi bilakatu diren antiheroien aventura kontatzen da liburu honetan. "Ezberdinak" sentitzen direnen sentimenduak ezagutuko ditugu, ausartak ez direnen bizipenak. Barne arazoak ditu gustuko Mariasun Landak, irakurlearen barnea ukitzen dituztenak. Neurri handi batean, guztiok izan dugu inoiz ulertuak izateko beharra.

Landa, Mariasun

Izeba txikia

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-251-3; 978-84-9746-251-8

Izeba txikia, familia bateko zortzigarren alaba txikiena izanik, Maite bere ahizpak izan behar duen umeak izaba egingo du.

Mariasun Landak lan honetan denbora, altxor preziatu hori, hartzen du umearen etorreraren zain. "Geranioa landa ezazu eta loratzen denean, Etorri Behar Duena azalduko da", naturari utzi natura izaten, gizakiaren erritmoari utzi bere bidea egiten, esaten digu autoreak. Izeba Txikiarekin batera umearen zain gaude denok, denbora dastatzen, naturaren erritmoa esperimendatzen, bihotzeko taupadak entzuten. Eta zein esperientzia ederra oparitzen zaigun!

Gurea den idazleak haur baten jaiotzaren bizitzaren magia, sinbologia eta misterioa erabiliz, istorio biribila kontatzen digu, hasiera eta amaiera maisukiro lotuz.

Asun Balzolaren ilustrazioek osotasun bikaina ematen diote liburuari. Benetan irakurketarekin gozatzeko aukera paregabea.

LANDA, Mariasun

Elefante txori-bihotza

Ilustratzailea: Emilio Urberuaga

Bilbao: Anaya Haritza, 2001 (Liburu zopa; 14)

“Interes kulturalak dituen elefante talde batek maistra dinamiko eta abenturazale baten beharra du. Etxebizitza, oihan afrikar batean. Dieta, begetarianoa. Soldata, ehun tona banana”

Narratzailea andereño bat da, ohar hau irakurri eta interes intelektualak dituen elefante talde bati klaseak ematera Afrikara joan dena. Elefanteek galdera oso arraroak egiten dizkiote eta berak, galdera horiei erantzun ahal izateko, liburuak irakurtzea proposatzen die. Baina elefanteak haserretu egiten zaizkio eta andereñoak ez daki nola asmatu.

Mariasun Landak, gaztetxoenei zuzenduriko liburu hau erakargarri egiteko, elefanteengan pertsonifikatzen ditu gazteen izaera eta pentsamendua: jakin-min ikaragarria dute elefanteek, galdera oso arraroak egiten dituzte eta, nagusitan, astronauta edo antzeko zerbait izan nahi dute.

Hunkigarria benetan ipuina. Ezberdinak direnen eta ezberdin izateagatik baztertzen direnen defentsan egindako literatur lan bikaina zalantzarik gabe. Ikusi dugunez, elefanteak dira ipuin lineal eta gutun itxuran idatzitako kontakizun honetako protagonistak. Elefanteak, azken batean, kolektibo zabalago baten sinbolo dira.

Erritmo oso ona du ipuinak, bai kontakizunari dagokionez, bai irudiei dagokienez. Izan ere, Emilio Urberuagaren irudiak ere ezin hobeak baitira.

Landa, Mariasun

Iholdi

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2005 (Iholdi)

ISBN 84-9746-250-5; 978-84-9746-250-1

Liburu hau oso era poetikoan idatzita dago, eta Iholdiren narrazioen bilduma da.

Eguneroko istorio xumeak dira, freskotasun eta sentimendu handiz idatzitakoak, eta irakurlearen bihotza emozioz eta umorez beterik uzten dituztenak. Idazlea bizitza arruntaren hondoetan murgiltzen da, eta irakurleok oso identifikatuta sentitzen gara haurren esperientziekin, barneko ikuspegi hura unibertsala baita.

Nahiz eta protagonista bat izan, istorioak autonomoak dira, eta banan-banan irakurri ditzakegu. Gainera, ozenki ondo irakurtzen badira, haur eta helduen artean lilura zoragarria sortu dezakete.

Liburua, Asun Balzolaren ilustrazio berriekin, Iholdiren (Erein, 1988) edizio berria da, eta, gure ustez, aukera ederra liburu xarmanta hau errekuperatzeko. Gure ustez, Landaren obra hau, gure Haur Literaturaren klasiko bat da.

Asun Balzolari, hain presente dagoena gure mintegian eta liburu gidan azkeneko urteetan, gure omenaldi beroena adierazi nahi diogu.

Lertxundi, Anjel

Aizak eta aizan elkarrekin dantzan

Ilustratzailea: Anton Olariaga

Donostia: Elkar, 2002 (Dona, dona; 3)

ISBN: 84-8331-823-7

Anjel Lertxundik erritmoz betetako hamaika kantu, jolas eta poematxo bildu ditu liburu honetan. Elkarrizketa egiturari jarraituz, konpainian jolasteko ezin aproposagoak dira liburu honetan agertzen zaizkigunak. Lertxundi tradizioaren altxorretik abiatu da, haur folkloretik, eta zenbait kasutan jolas moderno ere bihurtu du. Hemen agertzen zaizkigunak hizkuntzaren jolasgarri dira, entretenigarriak oso. Material ugari aurki dezakegu: kantuak, hatz-jokoak, eztei eta eske kankak. Beste egitura asko, berriz, (isipuak, marijesiak, albadak, xaribariak, etab.) hiztegian ez zaizkigu agertuko, beraz, gai hauetan ezjakintsuak garenok orain dugu parada ezin hobea horiekin gozatzeko.

Lertxundik, aspaldi, "Maria Goikoarenak" bilduma hartan, 1986koa alegia, bildu zuen antzerako materiala. Oraingo liburu eder honetan, usadioa eta modernitatea uztarturik agertzen zaizkigu, eta ez soilik testuetan, Anton Olariagak ederto ilustratu baititu marrazki zoragarriekin. Liburua bera da altxorra, hitzaren garrantziaz jabetzeko baliagarria, etxeetan, eskoletan lantzeko.

Oso liburu polita, liburu oso gomendagarria.

Lembcke, Marjaleena

Tapaniren istorioa

Ilustratzailea: Susann Opel-Götz

Itzultzailea: Xabier Uriarte

Bilbao: Anaya Haritza, 2007 (Liburu zopa)

ISBN 978-84-667-6311-0

Tapaniren istorioa ez da bakarrik Tapani deitzen den mutikoaren istorioa, Frisch jaunarena ere bada. Tapani, Finlandian bizi den haurra da, Frisch jauna, berriz, Alemanian bizi den gizon heldua. Ez dute elkar ezagutzen, ez dute inongo loturarik...baina egun batean Itsaso zabala dela medio, eta gomazko ahate gorri batzuen bitartez, haien bizitzak gurutzatzen dira eta hau da, hain zuzen, ipuin honetan kontaktzen digutena.

Frisch jauna nazkaturik dago, kamioilaria da eta egun batean kamioian daraman ehundaka kaxa ireki eta barruan dauden ahate guztiak itsasora bota ditu. Badaki zoramen hutsa izan dela eta lana galduko duela, baina ez dio axola, Frisch jauna bizitza ezberdin bat amesten duen ameslaria baita.

Tapani, berriz, mutiko arrunta da, beste asko bezalakoxea, baina guztiok bezala bere ametsa ere baduena: futboleko jokatu nahi du lagunentzako. Egun

batean Frisch jaunak botatako ahate bat aurkitu du itsasertzean eta orduan dena aldatu da...biontzat.

Desioak eta ametsak, benetan sinesten badugu behintzat, askotan betetzen direla erakusten digun istorio atsegin eta baikorra. Kasualitateak elkartu ditu pertsonaia biak eta lotura horri esker sendotu dira pertsona bezala, eta bakoitzak desiratzen duena lortzen du.

Mundua askotan txuri-beltzez osatua egon arren, beti dago esperantzarako leku bat, beti dago koloreztatu daitekeen zerbait eta Susann Opel-Götz ilustratzaileak kolore gorria erabili du ideia hori azpimarratzeko, gorriak indarra hartzen du istorioa aurrera joan ahala.

Dagoeneko ezagunak dira Marjaleena Lembckek gazteentzat idatzitako liburuak; kasu honetan, lehen irakurlearengana hurbildu da ondo kontatua dagoen istorio goxoa eskainiz.

Le Ray, Anik

Kérity: ipuinen etxea

Jatorrizko sorkuntza grafikoa: Rébecca Dautremer

Itzultzailea: Ihintza Elsenaar Argaña (Bakun S.L)

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2010

ISBN 978-84-8394-297-0

Frantziatik datorkigun animaziozko pelikula batean oinarriturik dagoen liburua dugu honako hau. Anik Le Ray da testua osatu duena pelikularen gidoiari jarraituz eta aspaldi honetan gurean aski ezaguna bilakatu den Rébecca Dautremer ilustratzailea izan da ipuina zein filma bikain irudikatu dituen.

Natanael gaztea eta bere familia, urtero bezala, udako oporretan Kerityra doaz, Britainiako herri batera. Hango etxe batean Eleonore amona bizi zen hil zen egunera arte. Bertan jakingo dugu etxeaz gain Eleonorek opari berezia utzi diola herentzian Natanaeli; “debekatutako atearen” giltza, hain zuzen. Ate hori irekitzerakoan amonak temati ezkututzen zuen liburutegi harrigarria aurkituko du parez pare, eta berehala konturatuko da bertako liburuak bereziak direla, pertsonaiak liburuetatik salto egin eta hezur-haragizko bilakatzen hasten direnean. Hortik aurrera Natanael izango da liburutegiaren arduradun berria, baina horretarako nahitaez horman idatzitako esaldi bat irakurri beharko du, bestela pertsonaia guztiak (Pinotxo, Alice, Txanogorritxo...) desagertzen joango dira poliki-poliki. Hor hasiko da liburuetako pertsonaia klasikoak salbatzeko bizi beharko duen benetako abentura eta lasterketa, Natanael gazteak oraindik ez baitaki irakurtzen.

Literaturarekiko, liburuekiko eta irakurzaletasunarekiko gustua eta maitasuna azpimarratzen duen liburua da. Elementu fantastikoak erabiltzen ditu istorioan aurrera egiteko eta abenturari, azalduko ez dugun amaiera zorionsua emateko.

Aipamen berezia merezi dute Dautremer ilustratzailearen marrazkiek. Formatu handiko album honen orrialdeen hiru laurdenak betetzen dituzte ilustrazioek, testuak azken laurdena hartzen duelarik soilik. Tonu ilunak dira nagusi aventuraren gorabeherak horrela eskatzen duenean eta bereziki gustuko dituen kolore gorrixkak eta laranja nabarmentzen dira liburu osoan zehar.

Ikuspegi ezberdinen erabilpenak, perspektibak, panoramikak, argien eta itzalen garrantziak... gorpuzten dute. Dautremerren estilo arrakastatsua eta pertsonala.

Del mazo, Margarita

Ikusteko betaurrekoak

Ilustratzailea: Guridi

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea

Fraga: La Fragatina, 2014

ISBN 978-84-942079-9-8

Gardentasunez begiratzeko

Nolako ikusmena duzu? Betaurrekorik behar duzu? Askotan, nahiz eta ederki ikusi, betaurreko bereziak ditugu guztiok, oharkabean edo nahita; ikusteko modu propioa dugu, alegia. Edo betaurreko bereziak behar ditugu errealitate batzuez jabetzeko.

Hori da, hain zuzen, Karlitosi, gure protagonistari, gertatzen zaiona. Mutiko txikia da tamainaz, eta Inesi begira ematen du eguna. Ines neska garaia eta polita da, denen arreta erakartzen duten horietakoa. Baina Karlitosi ez dio begiratu ere egiten. Mutikoak bereak eta bi egiten ditu neskatoak begira diezaion, baina alferrik: badirudi Inesentzat Karlitos ez dagoela hor. Egun batez, itxaropena piztuko zaio: "ikusteko betaurrekoak" jarriko dizkiotela esan du Inesek eskolan, eta Karlitos sinetsita dago bien begiradek, azkenean, topo egingo dutela.

Margarita del Mazo idazleak eta Guridi ilustratzaileak lan bikaina egin dute oraingo honetan. Lehenengo orrialdetik irribarre gozo bat pizten zaio irakurleari. Karlitos maitagarria egiten zaigu, eta haren burutazioak mundialak dira. Istorioa trebetasunez kontatuta dago, eta ilustrazio zoragarriak beteta dator liburua. Erraz irakurtzen da testua, eta irudiek ere informazio aparta ematen digute; adibidez, mutikoaren aurpegiak zer itxura duen. Koloreekin eta irudien tamainarekin jolastuz, biziki errazten da irakurketa. Erritmo azkarreko liburua da, umorez betea, bizia.

Edizioa ere aipatzekoa da, azal gogorreko album bat baita, zaindua. Zentzu horretan, eskertzekoa da La Fragatina argitaletxe galiziarra egiten ari den lana. Momentuz, zortzi bat liburu kaleratu dituzte euskaraz, gehienak onak.

Bestalde, irudi barregarri eta testu alai hauen azpian badago mezu interesgarri bat: ikusten, ondo ikusten ikasiz gero, bizitza hobetu daiteke, eta denok gara horretarako gai. Hezurren bat hausten dugunean, makuluak jartzen dizkigute, eta, ondoren, errehabilitazioa dator, besoa edo hanka edo dena delakoa bere onera ekartzeko. Begiak ere baditu giharrak, baina ez digute irakatsi errehabilitazioa egiten, gihar horiek ahultzen direnean. Begia indartzeko eta osatzeko ariketak eginez gero, ordea, ikusmena berreskuratu daiteke, eta betaurrekoen beharraz askatu.

Landu ditzagun gure begiak, beraz, *Ikusteko betaurrekoak* irakurriz, gozatuz eta gure ingurua arretaz aztertuz. Ez zarete damutuko!

Ungerer, Tomi

Hiru bidelapurrak

Itzultzailea: Koldo Izagirre

Pontevedra: Kalandraka, 2001 (Amets egiteko liburuak)

Dagoeneko 40 urte pasa dira jada klasiko bilakatu den hiru bidelapurren istorioa lehendabizi kaleratu zenetik eta, hala ere, ez du gaurkotasun izpirik galdu bidean. Berriro ere Kalandraka argitaletxeari eskertu behar diogu europar haur literaturako klasiko hau euskaraz gozatzeko aukera.

Hiru bidelapurrek gaiztakeriak egiten igarotzen zuten denbora, jendea izutzen eta ahal zuten guztia lapurtzen... Baina hori guztia aldatu egiten da Uxue umezurtza bahitzen dutenean eta hark galdetzen dienean ea zertarako behar duten horrenbeste diru eta bitxi, orduan konturatzen baitira ez dakitela zertarako lapurtzen duten. Eta galdera horrek sorrarazten dien hausnarketaren ondorioz umezurtzak jasotzeari ekingo diote, umez beteriko herri oso bat eraiki arte.

Tomi Ungerer idazlearen album honetan testuak eta irudiak garrantzi bera dute zalantzarik gabe, beraien arteko oreka eta osagarritasuna erabatekoak dira uneoro. Irudietan, bi kolore nagusitzen dira besteen gainetik, beltza eta urdina hain zuzen. Kolore horien nahasketarekin gaua eta iluntasuna irudikatzen dira eta gau giro horrek sorrarazten digun beldurra eta ikara. Dena den, irakurleak sentitzen duen beldurra desagertuz joango da ipuina irakurri ahala eta, kolore beltza garrantzia galtzen doan heinean, lapurrek ere hasierako maltzurkeria galduko dute ia ohartu gabe. Haurren beldurrei aurre egiteko liburu paregabea, gaizto-gaiztoek ere beren bihotz txikia izaten baitute, askotan ezkutuan dagoen arren.

Urkiza, Ana

Nire herriak ostadarraren koloreak ditu

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Elkarlanean, 2006

ISBN 84-9783-417-8

Ana Urkizak aniztasuna, jatorria eta sustraien inguruko gogoeta planteatzen digu liburu xume eta eder honetan. Egunkari moduan kontatua dagoen istorio honetan Maren da protagonista. Udan Mutriku aldera abiatu da oporrak igarotzera. Saturrarango hondartzan dagoela, Jorge ijitu familia bateko kidea ezagutu du eta bien arteko harreman berezia sortu da: ustez hain desberdinak izanik, hainbat gauza berdin dituztela konturatu da.

Elkartasunerako eta aurreiritziak gainditzeko istorio gozagarri baten aurrean gaude, euskara gozo eta ederrean idatzia. Liburuazehar maisuki deskribaturik daude pertsonaiak: Osaba Matias: Venezian bizi da, pianoa jotzen du eta bizitzaren alderdi "bohemia" erakusten du. Jorge ijitoa: Batetik bestera dabilen ijitoa, Marenek daraman bizitzatik urrun. Aiton amonak: Mutriku besterik ez dute ezagutzen eta ez dute beste ezeren beharrik. Maren bera: Mundua deskubritzen ari den neskatoa, eta besteen bizimodua ulertzen duena. Ildo honetatik, desberdina denaren aurrean erakusten dugun beldurra eta mesfidantza era paregabean jorratuta daude liburuan zehar. Hausnarketarako eta

elkarrizketarako aukera ederra eskaintzen digu istorio honek. Gaur egun, ederki jorratzen ditu egileak pilpilean dauden gaiak, ezbairik gabe. Sail honetan, ohiko bereizgarria da, , edizioa oso zaindua da. Jokin Mitxelenaren ilustrazioek aipamen berezia merezi dute. Kolorearen trataera aparta erakusten du eta irudiak ederki uztartuta daude istorioan. Irakurle gaztea bereganatzeko hainbat elementu erakusten dituen liburu gomendagarri baten aurrean gaudela irizten diogu.

Weulersse, Odile

Nasrudin

Ilustratzailea: Rébecca Dautremer

Itzulpena: Naroa Ogando

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2007

ISBN 978-84-263-6124-0

Arabiar munduan oso ezaguna da Nasrudin pertsonaia. Ahozko tradizioetik dator eta ikasgaiak lagun eta norberaren trebetasunak besteren artean kontuan hartuz, gizakien hainbat egia kontatzen ditu hainbat istorioren bidez.

Odile Weulersse idazleak pertsonaia hau berreskuratu du bi ipuin eder idazteko: "Nasrudin" eta "Nasrudin & Astoa". Umorea, tradizioa eta agudezia, testu erraz, azkar, arin eta dibertigarriekin uztartzen jakin du non ipuinen bukaerek ez diguten inola ere hotz utziko. Horretarako, gainera, Rebeca Dautremer ilustratzaile handiaren lankidetzaz izan du. Ilustrazioak dira, hain zuzen, ipuin hauen balio erantsi aipagarriena. Izan ere, marrazten dituen eszenatokiak eta pertsonaiek erabat murgiltzen gaituzte ipuinaren istorioan, ipuinaren kokapen geografikoan...

Ipar Afrikako edo Ekialde Hurbileko zokoak, herrixkak, jantziak, ilustratzailearen estilo pertsonalaz jantzita agertzen zaizkigu; pertsonaien tratamendua, perspektibarena, eta, zer esanik ez, kolorearen magiak ere liluratuko gaitu. Honi denari, Ibaizabal etxeak argitaratu duen liburu hauen formatu handiko edizio ederra gehitzen badiogu, biziki gomendatzeko diren liburuak direla esan dezakegu.

Weulersse, Odile

Nasrudin eta astoa

Ilustratzailea: Rébecca Dautremer

Itzultzailea: Naroa Ogando

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2007

ISBN 978-84-8394-062-4

Arabiar munduan oso ezaguna da Nasrudin pertsonaia. Ahozko tradizioetik dator eta ikasgaiak lagun eta norberaren trebetasunak besteren artean kontuan hartuz, gizakien hainbat egia kontatzen ditu hainbat istorioren bidez.

Odile Weulersse idazleak pertsonaia hau berreskuratu du bi ipuin eder idazteko: "Nasrudin" eta "Nasrudin & Astoa". Umorea, tradizioa eta agudezia, testu erraz, azkar, arin eta dibertigarriekin uztartzen jakin du non ipuinen

bukaerek ez diguten inola ere hotz utziko. Horretarako, gainera, Rebeca Dautremer ilustratzaile handiaren lankidetzaz izan du. Ilustrazioak dira, hain zuzen, ipuin hauen balio erantsi aipagarriena. Izan ere, marrazten dituen eszenatokiek eta pertsonaiek erabat murgiltzen gaituzte ipuinaren istorioan, ipuinaren kokapen geografikoan...

Ipar Afrikako edo Ekialde Hurbileko zokoak, herrixkak, jantziak, ilustratzailearen estilo pertsonalaz jantzita agertzen zaizkigu; pertsonaien tratamendua, perspektibarena, eta, zer esanik ez, kolorearen magiak ere liluratuko gaitu. Honi denari, Ibaizabal etxeak argitaratu duen liburu hauen formatu handiko edizio ederra gehitzen badiogu, biziki gomendatzeko diren liburuak direla esan dezakegu.

Zubizarreta, Patxi; Igerabide, Juan Kruz

Paularen zazpi gauak

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Sondika (Bizkaia): Giltza, 2002 (Tukan; 35)

ISBN: 84-8118-709-7

Paulak ospitalean igaro zituen zazpi gauak kontatzen dizkigu ipuin honek, baina beste ipuin asko ditu barruan, bere amak, erizainak, agureak, sendagileak, sukaldariak eta abarrek kontatutakoak.

Esan bezala, ipuin hau ipuin asko dira, batzuk egileek sortutakoak eta beste batzuk munduko zenbait tokitatik hartutakoak: Amerikatik, Afrikatik, Europatik...

Juan Kruz Igerabide eta Patxi Zubizarreta dira ipuin honen idazleak; izan ere, bien aspaldiko ametsa baitzen elkarrekin ipuin bat idaztea. Lan asko egin behar izan dute istorio nagusia asmatzen, ipuin laburrak sortzen, ipuinak aukeratzen eta hori guztia, jostunen antzera, ahalik eta ongien josten.

Maitekiro eta gozotasunez landutako ipuinak dira, bata bestearen atzetik datozenak eta oso ondo lotuta daudenak.

Elena Odriozolaren ilustrazioak oso aproposak eta ederrak dira, eta liburua ederki borobiltzen dute.

10 urtetik Aurrera

Alonso, Manuel L.

Hegoaldera

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2007 (Paper txoriak)

ISBN 978-84-8325-747-0

Hamar urteko neska bat bere aitarekin elkartu behar da, iragan iluneko gizona, ia ezezaguna bere alabarentzat hainbat urtetan ikusi barik bizi izan baita.

Lehenengo zailtasunak gainditzeko, biok bidaia luze bat egitea erabakitzen dute, batere diru eta baliabiderik gabe eta zoriaren menpe utziz euren etorkizuna.

Hasiera batean oso harreman hotzak direnak liburuan zehar maitasun harreman bihurtzen dira, eta elkar ezagutu ahala estutzen doaz aitaren eta alabaren arteko loturak, erantzunak aurkitzen baitizkiete dituzten galderari. Izan ere, berriro elkarrekin bizitzeko aukera dago jokoan...

Liburu hau oso interesgarria izan daiteke gaztetxoek dituzten gurasoei buruzko ikuspegia aldatzeko edo behintzat eztabaidagarri bihurtzeko, aitaren irudi desberdin bat aurkezten du-eta. Aita hau ez da heroia, are gehiago, anti-heroia dela esan dezakegu; espetxean egonda, lan eta dirurik gabekoa, abentura zalea... hala ere, funtsezko giza balioak errespetatzen dituena, eta, batez ere, alaba maite duena.

Betiko balioak edo tradizioan oinarritutakoak eztabaidatzeko aukera eskaintzen du liburu honek.

Narratzen den istorioa edo behintzat hainbat pasadizo errealitatetik urrun samar geratzen da, eta hau da, hain zuzen, literaturak lor dezakeena, bizitzan ematen ez diren egoerak imajinaraztea.

Atxaga, Bernardo

Xola eta Angelito

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Erein, 2004 (Holaxe bizi da Xola)

ISBN 84-9746-213-0

Xola txakurraren hirugarren istorioa dakargu Bernardo Atxagak "Holaxe bizi da Xola" bilduman jasota.

Oraingo honetan, Grogoren artzain lagun baten etxera oporretan joango da bikotea udara partean. Xolak baserrian familikide bat aurkituko du, Angelito,

baserri giroan hezitako beste txakur bat. Iritsi bezain pronto, Xolak antzemango du Angelitok arazoak dituela.

Xola eta Angelitoren artean sortuko den harremana da ipuin honen ardatza. Angelitok xagu batekin duen arazoa konpontzen saiatuko da Xola eta horrek bi txakurren arteko munduak kontrajarriko ditu, baserri giroa batetik, eta kaleko giroa, bestetik. Bukaeran, hala ere, txakurren adiskidantza areagotzen den heinean, ikusiko dugu bien arteko ezberdintasunak ere gutxituz joango direla.

Atxarengan oso ohiko dugun umorea nagusi dugu kontakizun honetan eta irakurketa dibertigarria eskaintzen digu dudarik gabe. Horren harira, asko eskertzen da berriro ere Mikel Valverde marrazkilariaren lana, oso esanguratsua izateaz gain, guztiz bat datorrelako Atxagaren testuarekin.

Azkue, Imanol

Kea airean bezala

Ilustratzailea: Eider Eibar

Donostia: Elkarlanean, 2006 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-360-0

Lionel 10 urteko mutikoa da. 15 urteko arrebarekin bizi da harreraetxe baten, aita ospitalean dagoelako, buru-gaixotasun batek jota - Ama ez da agertzen eta irakurlearen esku gelditzen da haren absentziaren interpretazioa.

Anai-arrebak ondo zaindutako umeak dira, ondo tratatuak, baina ezin dute esan "hau nire etxea da". Beti daude besteen etxean, denon etxean.

Protagonista oso ondo marraztuta dago; haren ametsak, burutazioak, zalantzak, tristurak, pozak, etab. hondoraino heltzen zaizkigu. Bestalde, deskripzioak ederrak dira, buruko gaitzaren ezaugarriak barne.

Amaieran ez da ezer berezirik gertatzen; agerian ez dago aldaketarik, baina sakon-sakonean gertatzen da, bai, aldaketa: haurra handitzen doan heinean, lurra hartuz doa, eta haren desio handiak xumeak bihurtzen dira; umeak ez du eskatzen aparteko gauzarik, ez bada etxe propioa izatea. Amaiera, gure ustez, magistrala da.

Oso narrazio polita, sakona, hunkigarria

Ipuin eder honekin 2005. urteko "Lizardi Saria" irabazi zuen Imanol Azkuek.

Carballeira, Paula

Smara

Ilustratzailea: Carole Hénaff

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Iruñea: Pamiela & Pontevedra: Kalandraka, 2012 (Milagau)

ISBN: 978-84-7681-728-5

Smara, Saharako basamortuko errefuxiatu sahararren hiri batera ume batek egindako bidaiaren istorioa da. Bertan, arrotzengandik hiria zaindu izan duen Ugago amandrea ezagutuko du. Harek bere herriko magia betetako ipuin misterioitsuak kontatuko dizkio: "zergatik ez dagoen astorik zeruan", "zergatik

bizi den oraindik Ibrahim ahuntzaina”..., basamortuko hondarreen sortutako elezaharretako kultura bateko ipuinak, alegia.

Carole Hénaffek egindako ilustrazioek izugarri ondo osatzen dute Paula Carballeirak idatzitako testua. Ilustratzaileak basamortuko herrien baserri-giroko gaiak erabili ditu collage teknikaren bidez, eta egur gainean akrilikoekin irudiak eginez. Bere ilustrazioek hondar itsaso batera eramaten gaituzte, non ikusmena zeruertzean galtzen den eta denbora, geratu. Emaitza, ukitu surrealista eta misteriotsua duen narrazioa, xumea eta aldi berean artelan gorena.

Carranza, Maite

Nahi duzu izan nire ahizparen mutila?

Ilustratzailea: Jordi Sempere

Itzultzailea: Mikel Garmendia Ugarte

Donostia, Giltza, 2002 (Tukan Berdea; 36)

ISBN: 84-8118-710-0

Maite Carranzaren lan honek antzekotasun handiak erakusten ditu Elvira Lindoren Manolito Laubegi liburuko abenturekin, hala pertsonaien tratamenduan, nola ironiaren erabilera finean.

Liburu honetan, Aliziak, hamaika urteko neskatilak, bere ahizpa gogaikarriarekin bizi dituen tirabirak agertuko zaizkigu, baita bere gurasoekin dituen harreman malkartsuak ere. Bere ahizpa jasangaitzarengandik libratzeko, mutil-lagun bat bilatzea besterik ez zaio bururatzen, harreman nekagarri hartatik behingoz ateratzeko. Bilaketa horretan burutazio eta gertaera bitxiak izango ditu istorio honetako protagonistak bere lagunaren laguntzarekin: giri itxura hartzea — horretarako ilea tindatu eta ingelesa ikasiz—; edo herriko mutilen artean bere ahizparen argakia banatu bere helbidearekin batera eta zera galdetu, nahi duzu izan nire ahizparen mutila?; edo sakelako telefonoa erabili kontaktuak egiteko.

Egileak hainbat pertsonaiaren karakterizazio xumea, erakargarria, hurbilekoa egiten du: ama histerikoa, azenario gajoa, ahizpa higuinaria... “Soniak jaio nintzenetik eman dit tratu txarra. Hau da, orain dela hamaika urtetik hona tratatzen nau gaizki, gau eta egun, baina adin txikikoa denez, ez dute kartzelan sartzen eta ezin diote epaiketarik egin, naziei bezala, pertsona errugabeak torturatzeagatik”. Era berean, aipagarria da umorearen erabilera pertsonaiak deskribatzerakoan: “azenarioa liluratuta gelditzen da Aliziaren amarekin bihotzekoak jasotzeko moduan gidatzen duelako eta horregatik familiakoa bihurtu nahi du Aliziaren mutil bihurtuz”.

Haurren barne mundua, burutazio eta ateraldi bitxiak bikain islatzen ditu istorio osoan zehar: “Antonieta superatsegin ibili da eta nahi zuen guztietan utzi dit body borda eta esan dit ez zuela gehiago ingelesa izan nahi ze ingelesak zahartzen direnean zoratu egiten omen dira, etxeak katuz, txakurrez eta perikitoz betetzen omen dituzte”.

Unibertso oso hori taxutzeko egileak kaleko hizkuntza darabil, hurbileko hizkuntza, herrikoia: superarrunta, topea!, molagarriagoa, flipatu, moskeoa, etab. Ildo horretatik, irakurle gazteari hizkuntza hori hurbilekoa egingo zaio, identifikaturik sentituko da bertako egoerekin eta pertsonaiek darabilten

hizkuntzarekin. Manolito Laubegiren abenturekin gertatzen den bezala, hizkuntza herrikoia erabilera hain garrantzizkoa den lan hauekin, itzulpenaren ildotik zenbait zalantza datozkigu burura, esate baterako jatorrizko lanaren zantzua ez ote den galtzen itzulpenaren eraginez. Nolanahi ere, eta gure hizkuntzaren egoera apala ezagututa, garrantzitsua da gazteari hurbileko gertatuko zaion hizkuntza eredua eskaintzea, egunerokotasunetik hurbil dagoen eredua, alegia.

Liburu dibertigarri eta atsegina izango du liburu honen irakurketara gerturatzen den irakurle gazteak, hainbat alditan errepikatu dugun hitza berriz ere erabiliz, hurbilekoa, bertako hainbat osagaiek — hizkuntzak, pertsonaien karakterizazioak, protagonisten ateraldi bitxiak— hurbiltasuna ematen baitiote kontakizunari.

Delgado, Josep Francesc...[et al.]

Gerezi lorea, Japoniako kondairak

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Elkar, 2003 (kondairak)

ISBN 84-8331-948-9

Elkar argitaletxeak hasitako sail berrian emandako liburuetatik lehenengoa da hau. Hainbat herrialdeetako kondairekin osatutako liburuak dira, Kataluniako hainbat idazlek egokituak eta Antton Olanok euskaratu dituenak.

Honako honetan, Japoniakoak irakur ditzakegu. Ez da, baina, kondaira-liburu soila, hasieran herrialde horren berri ematen baitu sarrera gisa: herrialdeko mapa, historia laburra eta bertako erlijio, hizkuntza eta egungo egoeraren berri azaltzen du. Beraz, Japoniako giroan sarturik hasten gara kondairak irakurtzen. Lau kondaira dakartza. Badute gure herrian ezagutzen ditugunen antza pixka bat, eta segur askimunduko beste lurraldeetako kondairena ere. Beraz, tradizioen baitan, ipuin klasikoen goxotasuna daukate: irakurtzeko nahiz ahoz kontatzeko oso politak dira, bizi-biziak eta xamurtasun handikoak. Gizakion sentimenduei buruz hausnartzera gonbidatzen gaituzte: gupida, maitasuna, inbidia, fantasiarako gaitasuna... eta guztia ongi xehatuta, ipuin tradizionalei dagokien bezala.

Aukera polita da hau, beste lurraldeetako tradizioak ezagutzea garrantzi handikoa dela aldarrikatzen dugun garai hauetan.

Igerabide, Juan Kruz

Mintzo naiz isilik...

Ilustratzailea: Lorena Martínez

Donostia: Elkarlanean, 2001 (Dona dona; 2)

Honela diosku Juan Kruzek hitzaurrean:

“...Igarbizuna abstrakzio-ahalmenaren sorburuetako bat da, haurrak zazpi urtetik aurrera, gutxi gorabehera, garatzen hasten den pentsaera logikoaren laguntzaile...” Eta jarraitzen du esaten igarkizunak bizitzaren ispilu direla, “bizitza

bera igarkizuna baita, igarri nahiak errealitatearen esploraziora bultzatzen baikaitu, hizkuntzaren funtzio poetikoa eta jolasa bateratuz, erritmoa eta metafora bilduz, hitzaren zehaztasuna landuz...”.

Izan ere, liburu honetako igarkizunetan zerbait baldin badago, hori metafora baita: metafora han eta metafora hemen, metáfora leku guztietan. Alde horretatik, liburua oso interesgarria gerta daiteke, metaforaren mundu poetikoan hasteko, edota hitzaren zeharbideko labirintoetan galtzeko. Galtzeko eta aurkitzeko, noski: hitz berriak, alajaina!

Igerabideren igarkizun guztiak berriak dira eta hurrekin jolasean asmatu-rikoak: dela janaria edota animalia, dela landarea, jantzia edota gorputzeko atala. Hori bai, batzuetan hain dira landuak eta abstraktuak, non iruditzen baitzaigu nahiko zail gertatuko zaizkiela hamar urtetik beherako haurrei. Dena den, erantzunak emateko era (azkeneko orrietan) oso orijinala iruditu zaigu.

Liburuaren diseinua, bestalde, guztiz azpimarragarria da: koloretako orri ezberdinak tartekatzen dira arnas hartzeko espazio zuriekin batera.

Eta orain, Juan Kruz Igerbaideren hitzetan esan dezagun, “Isiltzera goazela. Geuk ere, igarkizunek bezala, esan nahi baikenuke esan gabe, eta bihurtu nahi baikenuke zure jakin-minaren bidelagun”.

Kinney, Jeff

Greg. Gizajo baten egunkaria

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2010

ISBN 978-84-9868-224-3

Greg Heffley gaztearen abenturak interneten argitaratu ziren lehendabizi. Lortutako arrakastaren ondoren, Jeff Kinney idazle eta marrazkilari estatubatuarrak istorioak bildu eta lehen liburua kaleratu zuen denbora gutxira. Gaztelaniaz lehenengo liburuak 2008an ikusi zuen argia eta ordutik lau titulu gehiago kaleratu dira eta bi pelikula filmatu. Gurean dagoeneko bildumaren lehenengo bi aleak euskaratu dira eta hemen ere harrera onarekin. Honako hau bildumaren lehenengo titulua dugu.

Tituluan aipatzen den bezala, liburu hau eguneroko bat da, Greg deituriko mutikoaren egunerokoa (edo egunkaria berak nahiago duen bezala). Greg, Estatu Batuetan bizi den 12 urteko mutiko bat da, mutiko arrunta da eta ondorioz, gauza arruntak egiten ditu. Egun batean amak eguneroko bat idazteko eskatzen dio eta idazten duenaren bitartez bere eguneroko gertakizunak, lagun arteko pasadizoak, institutuko gorabeherak eta bere familiako kideak ezagutuko ditugu.

Greg ez da politikoki zuzena, ez da institutuko mutikorik ospetsuena, ezta politena ere, baina bere bihurrikeriek eta batez ere bere ateraldi eta burutapenek irakurle gaztearen konplizitatea lortuko dute hasieratik. Umorea da hain justu eleberri honen ezaugarririk garrantzitsuenak, irakurlearengan barrea eragitea du helburu eta lortzen du erabat. Horretarako, ezinbestekoak dira zirriborro eran eta zuri-beltzez egindako marrazki sinple eta komikoak. Marrazki horien bitartez, aurpegia jarriko diegu eleberrian zehar hain garrantzitsuak diren

bigarren mailako pertsonaiei (bikainak benetan, Gregen ama, Manny anaia txikia eta Rowley lagun mina, adibidez).

Irakurle onentzako liburu aproposa, baina irakurtzea hain gustuko ez dutenentzat are gehiago. Dibertigarria, azkar irakurtzekoa eta gehiagorako gogoz utziko gaituena. Aipagarria da Miren Arratibel itzultzaileak egin duen lana ere, liburuaren erritmo azkarra mantentzen asmatu duelako.

Kinney, Jeff

Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar!

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2012 (Greg Heffleyren egunerokoa)

ISBN: 978-84-9868-357-8

Dagoeneko Greg mutikoak ez du aurkezpenik behar. Ia 90 miloi ale saldu ditu bere egileak kaleratu dituen aventura ezberdinekin, momentuz sei titulu daude gaztelaniaz eta euskarara itzulita, berriz, hiru. Dударik gabe, azkeneko urteetan haur eta gazte literaturak eman duen best seller garrantzitsuenetariko baten aurrean gaude baina pozgarria da ikustea batzuetan salmentak eta kalitatea elkarrekin bat datozela.

Greg alferra da, berekoia, harroa, beldurtia... baina, hala ere, eta horregatik hain zuzen, maitagarria egiten zaio irakurleari. Antiheroi honetan gure akatsak islatuta ikusten ditugu eta honek irakurlearen enpatia sorrarazten du. Izan duen arrakasta hobeto ulertu ahal izateko, honi guztiari gehitu behar diogu bilduma honek duen ezaugarririk onena, umorea. Hau lortzeko, ezinbestekoak dira zirriborro eran eta zuri-beltzez egindako marrazkiak.

Komiki eta eleberri grafikoaren erdibidean dagoen formula honen eragina ikaragarria izan da haur eta batez ere gazteentzat zuzendutako literatur ekoizpenean. Greg-en lehen istoriaren ondorioz, merkatua antzerako produktuez bete da .

Hirugarren abentura honek, besteak bezala, Gregen egunerokotasuna besterik ez du kontatzen, berea eta bere inguruan mugitzen den unibertsoarena (familia, eskola, lagunak...). Kasu honetan Gregen aitak Greg aldatzeko ahaleginak egingo ditu, eta horretarako eskolaz kanpoko kiroletan izena emateko agindua emango dio. Ondorioak, pentsa dezakegun bezala, ez dira izango aitak espero zituenak. Greg beti izango baita halabeharrez gizajo bat, baina gizajo maitagarria azken finean.

Kinney, Jeff

Gizajo baten egunkaria 2: Rodricken legea

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun: Alberdania, 2011

ISBN 978-84-9868-258-4

Greg Heffley gaztearen bilduma arrakastatsuen bigarren zatia dugu honako hau.

Udako opor nazkagarriak amaituta, kurtso berriaren hasierarekin batera biziko ditugu Gregen abentura berriak. Honako honetan, Rodrick anaia zaharrenak hartzen du protagonismoa. Heavy metaleko musika talde bateko kidea da, baina askoz gustukoago du bere anaia Gregekin liskarrean ibiltzea.

Hala ere, aurrekoan bezala, protagonista ugari ditu liburu honek. Pertsonaiek guztiek dute nortasun eta pisu nahikoa istorioari erritmoa eta arintasuna emateko (ama, aita, anai txikia eta, nola ez, institutuko lagun xelebreak).

Komikiaren eta eleberriaren arteko erdibidean dagoen generoaren aitzindaria izan da gazte literaturan, eta formula honek izugarrizko arrakasta izan du gerora gazteen artean eta hauei zuzendutako ekoizpenean.

Aurreko liburuaren estilo berbera dauka, baina ez da inola ere aspergarria edo errepikakorra. Barregarriak diren egoerak eta pasadizoak etengabe tartekatzen dira liburuan zehar. Umoreak eta gatzdun ateraldiek irakurle gaztearen barrea eragingo dute uneoro, eta horretarako ezinbestekoak dira marrazki esanguratsu eta barregarriak. Honez gain, gazteen hizkeran idatzia dago eta lortzen duen konplizitatea erabateko da.

Liburu honek gazteengan izandako arrakastak berretsi egiten du aurreko liburuaren inguruan esandako guztia. Irakurle gazteen artean erantzun oso ona izan du eta istorio hauen jarraitzaile sutsuak sorrarazi ditu, beti hurrengo atalaren zain daudenak. Lehen esan bezala, irakurle onentzako liburu aproposa, baina irakurtzea hain gustuko ez dutenentzat are gehiago.

Landa, Mariasun

Galtzerdi suizida

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Elkarlanean, 2001

Plinio zaharra da galtzerdi honen jabea. Plinio zaharra naturalista eta idazle latinoaren bazen: Historia Naturala bilduma zientifikoa idatzi zuen. Behatzen oso zalea zen, antza: Vesuvio sumendiaren erupzioa hobeto ikusteko gehiegi hurbildu eta itota hil zen. Ikusnahia zuen idazleak; jakingurak jota dago gure galtzerdia ere. Horregatik dira Mariasun Landaren liburuak bitxiak, xelebreak eta maitagarriak: kuriositatea sortzeko gaitasuna dutelako; bizitzaren inguruan hausnartzen laguntzen digutelako.

Egoera surrealista batetik abiatzen da liburua, hasiera bera da absurdua: "Orain dela aste batzuk gertatu zen: laugarren solairutik bota nuen neure burua". Horrela, bada, galtzerdi zahar eta zulatu batek, mundua ezagutzeko grinak bultzatuta, bizitza ezagutzera jaurtiko du bere burua. Abentura ugari biziko ditu: aktorea izango da, gladiadorea, bakardadea eta laguntasuna ere zer diren jakingo du. Gertaera bakoitzetik zer edo zer ikasiko du. Horregatik atalen amaieran geldione interesgarriak daude: hurrengoaren zain uzten gaitu narratzaileak.

Filosofiako esamoldeak ere badaude, edo idazleak dioenez, olerki zatitxoak: Plinioren berbak, galtzerdi protagonistak bizi izandakoaren arabera burura datozkionak, alegia, "Gazteak bururik ez, zaharrak indarririk ez", adibidez. Filosofia zein maitasuna eta sentimenduak agerian jartzen dira honakoarekin: "Maite

ninduzulako orain nago bakarrik, zerbait eman nahi zenidan ta utzi nauzu hutsik”, M. Azurmendi poetak idatzi eta Imanol abeslariak aspaldi grabatutako hitzekin.

Ipuinen osagarriak dira Antton Olariagaren ilustrazioak, sugerenteak oso, azpitik edo goitik hartutako argazkiak bezala, detaile bitxiak, kuriosoak azken horiek ere eta, aldi berean, ederrak.

Ironia eta umore fina darie pasadizo batzuei, esaterako haurrei “izaki” deitzen dienean, haurrak ulergaitzak baitira galtzerdiarentzat, portaera basati eta arraroak dituzten izakiak baitira.

Idazleak liburu honen istorioak baliaturik, biziaren alde egiten du. Baikor sentiarazten gaitu irakurketa amaitzen dugunean.

Beraz, atsegin handiz irakurtzen den liburua dugu, edozein helduri irribarrea irtenarazten dien horietakoa.

Landa, Mariasun

Marlene eta taxizapata

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Bilbao, SM, 2002 (Baporea; 18)

ISBN: 84-348-8627-6

Mariasun Landak sarri jorratzen dituen gaiekin topo egiten dugu liburu honetan: bakardadea, duintasuna, maitasuna. Oraingo istorioan katuak dira protagonistak, “Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean” liburuan bezala. Idazleak animalien ahotan jartzen ditu gizakiok bizi eta sufritzen ditugun sentimenduak, bizitzaren esperientziak gure sorbaldetan uzten duen arrastoa. Liburua irakurtzen ari garela tristurak eta poztasunak aldi berean astintzen gaitu.

Eta guk, irakurle xumeok, maite dugu idazle honen begirada ironiko eta umoretsua; maite dugu bere idazkera leun eta gozoa; maite dugu nola tratatzen dituen gai potoloak, alegia, denborak nola aldatzen digun itxura eta itxura aldaketa horrek nolako buruhausteak ematen dizkigun; maite dugu, halaber, giza harremani buruz zer erakusten digun, animaliak ardatz harturik eta galtzerdi edo zapata zaharra bezalako elementu bitxiak aukeratuz.

Eta guk, ilustrazioaren garrantzian sinesten dugunok, biziki estimatzen dugu Elena Odriozolaren trazu fin eta zehatza, kolore gozoa eta marrazki iradokitzaileak.

Idazleak eta ilustratzaileak arte-lan ederra eskaintzen digute. Eta biei eskerrak eman nahi dizkiegu lana polito eta isilean egiten dutelako, zaratarik gabe, haur literaturan orokorrean, gertatzen den legez, irakurlearen bihotzeraino iristen direlako; eskerrak, modu xumean hunkitzea zer den adierazten dakitelako.

Linazasoro, Karlos

Etzi

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Elkar, 2007 (Xaguxar)

ISBN 978-84-9783-556-5

Karlos Linazasoro idazleak Mattin mutil koxkorraren ahotik kontaktzen duen istorioan, Bruno anaiak Down sindromea du. Sindrome honen eragina duintasunez tratatuta azaltzen da ipuinean, eta, aldi berean, errealismoz, hau da, hunkigarria izan arren, ez da jausten topiko edo irudi bigunetan. Neba txikiaren bizipenak, aitona-amonaren xamurtasuna, gurasoen sendotasuna, hitz batean, familiak bizi dituen gazipozetan murgiltzen gaituen kontakizuna da. Liburu honek naturaltasunez erakusten du aniztasunaren aberastasuna eta konplexutasunak eta zertzelada apal batzuekin pertsonaia guztien erretratu psikologikoa modu bikainean egiten du.

Erabiltzen duen hizkuntza naturala eta errealista da, baina pasadizo batzuetan oso lirikoa, metaforaz eta poesiaz beterik. Idazteko era honek eguneroko jardueri zentzu sakona ematen die eta gogoetara bultzatzen du irakurlea.

Benetan istorio hurbila eta zeharo sinesgarria.

Lindo, Elvira

Ni bai ni! Manolito

Ilustratzailea: Emilio Urberuaga

Itzultzailea: Mikel Garmendia

Etxebarri: Zubia, 2001

Manolito Laubegi eta *Manolito gaixoa* liburuen ondoren, Manolito Laubegiren zaleek beren pertsonaia kutunarekin gozatzeko aukera paregabea izango dute. Aurreko bi liburuen ildo beretik datorkigu hirugarren atal hau: Manolitoen betiko lagunak (Belarrihandi, Yihad, Mostaza etab.), eguneroko abenturatxo eta bihurrikeriak, burutazio eta asmakeria barregarriak.

Manolitoen azken liburua irakurri duen haur misterioitsuaren agerpenarekin hasten da liburua. Haur bitxi horrek liburu horren irakurketak sortu dizkion galderen zerrenda luzea aurkezten dio Manolitori berari; era berean, eta nahaspilarik ez sortzearen, pertsonaia guztien zerrenda eranstearen garrantzia azaltzen dio —irakurleari keinu irriagarria egiten dio idazleak puntu honetan.

Ikasturtearen amaierarekin batera hasiko ditu Manolitok bere abenturatxo zirrargarriak. Berak duen munduaren ikuspegi berezitik ezagutuko ditugu egunerokotasunean gauzatzen diren ekintzak, hala nola Manolitoen unibertsoa osatzen duten elementuak: pertsonaia hurbilak, auzoko igerilekua, Ching-Chong jantoki txinoa, Tropezón taberna, auzokidearen etxebizitza etab.

Manolitoen bitartez, hainbat pertsonaiaren ezaugarriak zehatz-mehatz ezagutzeko aukera izango dugu. Pertsonaien karakterizazioa xumea, barregarria, erakargarria gertatzen da: “Ergela” neba maitea; Manolito bera, gehien gustatzen zaizkion gauzei uko egiteko prest nahiz eta pentsatu jendeak ez duela benetan maite; “Carabancheleko Travolta” bere aitona dantza zaletasunari erreferentzia eginez; Belarrihandi arazo psikologikoak dituen zerri traidorea; Mostaza “operako dentista”...

Manolitoen unibertsoa osatzeko, idazlea hamaika errekurtsuz baliatzen da: hizkuntza herrikoien erabilera, hiperbolearekiko joera (“hondamendi nuklear bat gertatuko balitz, intsektuek eta leku bitxi horretako biztanleek —

Carabancheli erreferentzia eginez— baino ez lukete iraungo”), telebista eta zinearekiko erreferentziak (Inurri atomikoa, Pin eta Pon, Veredicto, Ostirala 13, 3PO robota), umorearen erabilera... Izan ere, egoera aspergarriei ere alde umoretsua eransten die idazleak (hainbat aldiz ikusitako bideo aspergarriak ere baditu alde baikorrak: komunera joan, nebarekin jolasteko aukera... hasiera eta amaiera ikustearekin nahikoa izaten da). Hori izango litzateke Manolitoren ezaugarri nabarmenatariko bat eta gaurko gazteentzako irakasgaia izan daitekeena, alegia, eguneroko gauza xumeenei ere alderdi baikorra eta umoretsua ateratzea, atsekabearen aurrean imajinazioa erabiltzea.

Liburuan zehar deskripzioak ugariak dira, ironiaz beterikoak: “Aitaren aldeko aitona-amonengandik ere badatozkio belarriak Belarrihandiri. Gizajoak, Dunboren antzeko lau aitona-amona horiekin, ez zuen ihesbide genetikorik”. Lexikoaren bidez ere umorea barra-barra darabil idazleak: telefono sinalambrikoa, Carcagente herria, etab. Deskripzio eta ironiaz gain, haurraren barne sentimenduak eta arlo afektiboa ere landuko ditu idazleak kontrastearekin jolastuz.

Manolitoren abentura zaleek eta, oro har, irakurle orok, gazte nahiz heldu, ez dute aspertzeko betarik izango euskaraz argitaratzen den hirugarren lan honekin.

Meabe, Miren Agur

Mila magnolia lore

Ilustratzailea: Eider Eibar

Bilbao: Mensajero, 2010

ISBN 978-84-271-3104-0

Liburu berezi baten aurrean gaude. Eta berezia dela esaten dugu, alde batetik ederra, aparta delako eta bestetik, albuma izanik eta itxuragatik, batek baino gehiagok pentsatuko duelako haur txikientzako izan daitekeela. Baina ez da haur txikientzako moduko albuma.

“Ospitalean zaude. Buruko mina eta sukar itzela zenituen bart. Horregatik ekarri zintuen aitak. Analiak eta erradiografiak egin dizkizute. Erizainak esan du: - Debekatuta ezertxo ere jan edo edatea.

Zenbat egun beharko ote dituzu sendatzeko?”

Horrela hasten da egunak ospitalean igaroko dituen neskatilaren kontakizun xumea. Ez dago bakarrik umea. Denbora oro aita izango da berarekin eta bere marrazketa-koadernoan ere izango du. Eta aitak ekarritako koaderno horretan marraztu eta idatziko ditu bere sentsazio, bihozkada eta sentimenduak, poema eder eta iradokitzaileak bihurturik.

Liburua horrela dago egituratuta: ezkerreko orrialdean, testu txiki bat ospitaleko egunerokoekin; eskuinekoan, aldiz, koadernoan marraztu eta idatzitako poemekin.

Gaixo dago neskatila eta ez da lehenengo aldia: “Oso txarto sentitzen zara; beste batzuetan bizkorrago sendatu zara. Zein da zure desira sakonena?” Eskuineko poemak honela dio: “Bizitza. Garoa hosto batetik edatea. Marrubien saskian basoa usnatzea. Hitzen kili-kiliak azalean sentitzea. Oskilasoaren kantua

konprenitzea. Argi amandrea goroldioan igartzea. Bizitzea: erloju guztiak apurtzea”.

Liburuak amaiera irekia dauka. Ospitaleko patioan dagoen magnolia bigarren mailako protagonista bihurturik honela bukatuko da testua: “Hor dago magnolia. Bertara iritsi nahi duzu eta zure habia topatu. Lore baten barruan kukutu, txalupa baten lez. Eta kulunka-kulunka, urrunera bidaiatu. Lore bat izan, veste askoren artean. Nora zoaz orain?”

Irudiak, orri osokoak dira ospitaleko kontaeran, marrazketa-koadernokoak, aldiz, neskatilaren marrazkiak bailiran, sinpleagoak. Bi estilo, bi egoerataraz egokituak. Lan bikaina.

Liburu sinplea dirudien arren, gauza asko esaten duen liburu baten aurrean gaude. Irakurriz, pentsatzeko, hausnartzeko eta hainbat gairen inguruan berba egiteko aukera ederra emanez.

Meindert, Koos

Itsasargia

Ilustratzailea: Annette Fienieg

Itzultzailea: Uxue Alberdi

Donostia: Tarttalo, 2007

ISBN 978-84-9843-043-1

Zaharra da amona, baina zaharragoa itsasargia. Askoz zaharragoa. Istorio honen bihotza BIZITZA bera da. Belaunaldi bat dator eta beste bat badoa, itsasoaren etengabeko mugimenduaren antzera: “Itsasbehera, itsasgora, itsasbehera, itsasgora, dena ondo dago, doala denbora”. Itsasargiaren argiak biraka, bizitza biraka, denboraren metafora ederra. Argiekin batera, testuak ere errepikatzen doaz, abesti ezagun baten letra izango balitz bezala. Irakurleok itsasoaren eta haizearen murmurioa sentitzen dugu, eta pertsonaien heldutasunak eta naturaltasunak ezustean hartzen gaitu. Ez da ezer gehiago behar bizitza azaltzeko, sinplea baita.

Itsasargiak pertsonaien bidea markatuko du eta Itsasargiaren ertzean itsaso zabala, zerua, askatasunaren irudia. Maitasuna, esperantzak, zahartzarora, heriotza,... denak batera, ziklo biribiletan nahastuak, istorio klasiko bat osatuz. Koos Meindertsek erabiltzen duen hizkuntza poetikoa da guztiz, goxoa, samurra.

Ilustrazio zoragarriak Annette Fienieg-enak, indartsuak, distiratsuak. Testua eta ilustrazioak elkarrekin sendotzen dira, eta irakurleari interpretazio zabala egiteko aukera ematen diote.

Bizitza zer den ulertzeko irakurri behar den liburu ederra eta hunkigarria. Ume nahiz helduentzat oso gomendagarria.

Moure Trenor, Gonzalo

Maíto panduro

Ilustratzailea: Fernando Martín Godoy

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola

Bilbao : Ibaizabal, 2003 (Paper txoriak)

ISBN 84-8325-736-X

Maito Panduro askatasunaren eta elkar komunikazioaren metafora bat da, gizakiak gure artean hitz egiteko eta entzuteko beharraren aldarrikapena. Mutiko ijito baten historia kontatzen digu, herrixka txiro batean bizi den mutiko batena. Harreman pertsonalak dira nagusi bertan eta gure protagonistak heldutasuna lortzeko bideari tinko helduko dio.

Bi pertsona dira nagusi Maitoren bizitzan: bata, bere maistra, honekin duen harremana irakasle-ikasle harreman normal bat baino harantzago baitoa; eta bestea, bere aita, Panduro, eta espetxera marrazkiz beteriko eskutitzak bidaltzen dizkio (aitak ez baitaki idazten). Sentimenduak, amodioa eta askatasuna dira protagonistak elkar komunikazio honetan, imajinazioz beteriko eskutitz hauetan.

Nobela errealista da, hunkigarria, noiz edo noiz ironikoa, ijitoen errealitate latza azaltzen diguna. Hirugarren pertsonan idatzia da: narratzaile bat historia honen pertsonaiak eta tokiak deskribatzen doa, elkarriketa zehatz eta sakonetan oinarrituta. Gonzalo Mourek pertsonaien pozak, zalantzak, bertuteak eta miseriak bata bestearen atzetik trebezia eta dotoretasun handiz josten ditu eta istorio erakargarria sortzen du. Fernando Martín Godoyren ilustrazioek txuri beltzeko "collage"ak eta tintaz eginiko marrazkiak bateratzen dituzte. Proposamen ausarta da, baina historiari sinesgarritasun puntu bat ematen diona. Nobela zaindua, hitz zehatzez osatua, sentimenduen poesiaz betea, bai gaztetxo bai helduei eskainia

Moure, Gonzalo

Osabaren zaldiak

Ilustratzailea: Fernando Martín Godoy

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Madrid: Anaya, 2009 (Liburu zopa)

ISBN 978-84-667-8635-5

Narrazio honetako Dario gizon helduak, istorioaren protagonista nagusiak, kontatzen ditu haurtzaroko oroimenak: oporraldietako esperientziak osaba-izebaren baserrian, Asturiaseko herrixka batean. Garai horretan, mutikoari, nahiz eta oso gaztea izan, osabaren zaldien ardura ematen zitzaion eta, haien zaintza dela eta, aukera ederra izan zuen naturarekiko, harreman estua eta maitekorra bizitzeko.

Narrazioa bere muinean hor kokatzen da, naturarekiko estu eta adiskide harremanetan, eta alegatu moduko bat da natura nahiz animaliarekiko maitasunaz eta haiekiko harremanen garrantziaz.

Ongi kontatutako istorio bat, bitartekari moduan hartuz. Literatura duina non narrazioak naturaren erritmo pazientea eta presa-gabekoa hartzen duen.

Bestalde, ilustrazioak ederrak dira, memoriaren tonu melankoliotaz ukituak, irakurlea gizonaren memorian eta begiradan barneratuz.

Zubizarreta, Patxi

Xia Tenzinen bidaia miresgarria

Ilustratzailea: Jacobo Muñiz

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2009 (Paper txoriak)

ISBN 978-84-8394-338-0

Xia Tenzin Tibetean bizi den 2,40 metrotako erraldoia da. Bi helburu nagusiekin hasiera bidaia bati ekingo dio: galdutako aita aurkitu eta itsasoa ezagutu.

Bidean, mendiak zeharkatu eta Txinara helduko da Ibai Horiaren bidea jarraituz. Bideari ekin aurretik, igarle batek aurreratu zion bidean zehar topatu eta biziko zituen gertaerak, eta liburuan zehar haiek nola betetzen diren ikusiko dugu.

Ipuin klasikoaren erara, ahozko tradizioetik asko du eta azken finean bizitzaren bidea islatzen duen liburua da. Bidean bizitzan bezala une alaiak, tristeak, mingarriak, ilusioak... biziko ditu, amodioa ere aurkituz.

Bizitzaren metafora polita, ondo kontatua, erritmoarekin, errepikapenekin jolastuz eta aldi berean hizkuntzari bizitasuna emanaz.

12 urtetik Aurrera

Dahl, Roald

Errima errebeldeak

Ilustratzailea: Quentin Blake

Itzultzailea: Joseba Santxo

Etxebarri: Zubia, 2001

Roald Dahl idazle galestarra (Llandaff, 1916 – Oxford, 1990) bihurria dugu inondik ere. Alegia, oso gustuko du jende helduaren mundu arrazionala hankaz gora jartzea. Liburu honetan, errima hartuko du konplize sei ipuin klasiko ezaguni (Mari Errauzkin Jon eta babatxo miragarriak, Eburne zuri eta zazpi ipotxak, Urre kizkur, Txanogorritxo eta Hiru txerriak) buelta emateko. Izan ere, haurren istorioak helduen munduan eta helduen pentsaeraz idatzi ditu Dahlek. Horrela, ipotxak nahiz eta 7 izan, pentsaera eta izaera berezia izango dute, otsoa gaiztoak

ironia erabiliko du gehienbat eta Edurne Zuri eta Mari Errauzkin ez dira apalak eta maitagarriak izango. Ez horixe!

Ipuinak bertsoz idatzia daude, errimaturik, eta kontakizunetan umorea eta ironia dira nagusi. Ipuinei darien ironia hain nabarmena eta bihurria izanik, 52 orrialde dituen liburua irakurtzeko adin tartea zehaztugabekoa izango da; nahiz eta guk 12 urtetik gorakoentzat eta helduentzat zeharo aproposak direla pentsatu.

Beraz, irakurri, errexitatu, rapeatu eta kantatu egin ahalko dira ipuin zoragarri hauek.

Epaltza, Aingeru

Urtegijauna

Ilustratzailea: Asisko Urmeneta

Iruñea: Pamiela, 2002 (Tamaina ttikia; 42)

ISBN: 84-7681-369-4

Aingeru Epaltzak bere Urtegijauna honekin aurreko urteetan idatzi zituen Sorginkeria liburua eta Baloika liburuekin abenturazko gaia sendotzera dator. Protagonistak berak izanik, istorioak oraingo honetan pisua hartu du, eta ez soilik orrialdeei begiratuta. Liburuak erritmo bizia du, udako oporretako aproposa den erritmo bizia, eta lodikotea bada ere, irakurleak erraz jarraituko du, gertatzen diren ekintzak bata bestearen atzean datozelako. Hasierako kapitulua mundiala da: Mikeltxo abandonaturik sentitzen da, udalekuetara doa autobusean eta haserre dago bere patuarekin. Horrela, gertaerak eta mutikoaren sentimenduak tartekatu egiten dira. Azkeneko horie eskutitzen bitartez jakingo ditugu eta, gainera, gutunak idazterakoan erabiltzen duen tonu tremendista horrek barregarri bihurtzen du. Aurretik idatzi dituen beste liburuaren erreferentziak ere badaude, baina ez dira oztopo, liburu honen haria ondo jarraitzen baita.

Hizkuntzari begiratuta, nafarreraz dauden hainbat hitz aurkitzen ditugu, baina horrek ez du irakurketa zailtzen, aitzitik, aberastu egiten gaitu. Bestalde, tradizioa eta egungo giroa ere ondo islatzen dira. Agian, onak eta txarrak bereizterakoan, idazleak errazkeriara jotzen du, gaizkileak nabarmenegi azaltzen baitira. Baina horixe da, hain zuzen, abenturazko liburuaren osagarri nagusia.

Marrazkiak istorioa bezain biziak dira, Asisko eta Marko bikotearen estilo bereziarekin.

Funke, Cornelia

Tinta bihotz

Itzultzailea: Naroa Zubillaga

Donostia: Elkar, 2009

ISBN 978-84-9783-660-9

Meggie, 12 urteko neskatoa, oso irakurzalea da. Baina berarekin bizi den bere aitak, lanbidez liburu koadernatzailea bada ere, ez du sekula liburu bat ozenki irakurri. Gau batean, bere aitaren aspaldiko lagun bat joan zaie bisitan, eta

elkarrekin bidaia bati ekingo diote, liburu gorde baten bila dabilen Kaprikornio maltzurragandik ihesi.

Abenturaz jositako narrazio honetan hainbat pertsonai ezagutzeko aukera izango dugu.

Eleberrri honetan, egileak maisuki plazaratzen du bere ezagutza literarioa, nobela klasiko eta hauen pertsonaiei buruzko zaletasuna; izan ere, berpiztu eta berak sortutakoekin nahastu ditu, baliabide jakin bat erabiliz, alegia, kontakizuneko pertsonaia nagusien abilezia beren pertsonaiak berpiztu eta liburuetatik ateratzeko.

Atal ugari daude, eta bakoitzak autore klasikoek ekarpena biltzen du (Ende, Stevenson, Dickens, Tolkien, Barri, ...) aipuen bitartez hasieran, eta gero obra klasikoren batetik ateratako pertsonaia batzuk kontakizunean sartuz.

Bi zatitan bana daitekeen liburu dugu: Suspentsez beteriko lehenbizikoan, jakinmina pizten digun erritmo motela eta misteriotsua erabiliz; bigarrenean, aldiz, pertsonaiekin nolabaiteko negoziazioa dago, beren istoriak berridatzi eta amaiera zorionsua eduki dezaten.

Funkeren obrak abenturak, fantasia, irudimena eta literatura handiarekiko lilura eskaintzen dizkio irakurleari. Oso kontaketa bihozbera da, non kalitate literarioa beste alderdien eskutik doan, hala nola, adiskideen aldeko apustua, ongiaren handitasuna, leialtasuna, eta lotura familiarren indarra.

Gómez Cerdá, Alfredo

Medellingo lokatza

Ilustratzailea: Xan López Domínguez

Itzultzailea: Aitor Arana

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2010 (Paper txoriak)

ISBN 978-84-8394-364-9

Kamilo eta Andres hamar urteko lagunak, Medellingo auzo txiro batean bizi dira. Kaleko umeak dira, ez doaz eskolara eta egun osoa, hala edo hala, igarotzen dute haien kasa. Kamilok aitaren tratu txarrak jasaten ditu eta goizez etxetik irten eta gauean etxean egin nahi badu lo aitari botila bat eraman behar dio. Bizi diren txabola horretan lan egiten duen persona bakarra ama da, eta berak ere tratu txarrak jasaten ditu, Kamilok bezala.

Bestalde, bizi diren etxea Kamilok lapurtutako adreiluez eginda dago, eta lokatzez estalita; horregatik euria egiten duen bakoitzean, Kamilok berriz estali behar du Andresen laguntzarekin, adreiluak ez daitezen agerian gelditu. Baina lokatz horrek findu egiten dio eskuetako azala.

Arazo horrek auzoko liburutegira eramaten ditu gaztetxoak, eta han Mar liburuzaina ezagutzen dute. Elkar ezagutze hori bizitza aldatuko dien esperientzia izango da.

Idazleak kontaktzen duen istorioa sinplea eta ederra da, eta gaztetxo xalo batzuen hizkeran dago idatzita. Irakurlea murgildu egiten da protagonistek dituzten eguneroko kezka, arazo, eztabaida, etorkizunari buruzko amets eta burutazioetan. Auzo txiro batean kokatuta dagoenez narrazioa, testuinguru horrek ekartzen dizkio irakurleari pobreziaren, alkoholismoaren, tratu txarren,

eta abarren usainak eta kantik, modu dignoan, zakarkeriarik gabe eta hizkuntza oso atseginean.

Narrazioa oso landuta dago eta hunkigarria da, gaur egungo gizartearen pobrezia salaketa baita neurri handi batean ondo idatzita, literarioki dotore.

Hawthorne, Nathaniel

Pertseo eta medusaren burua

Moldatzailea: Olaizola, Jesus Mari "Txiliku"

Donostia, Elkar, 2002 (Branka; 86)

ISBN: 84-8331-871-7

Pertseo eta bere ama, Danae, Serifos irlara heltzen dira gaiztagin batek kutxa batean sartu eta itsasora bota ondoren. Bertan arrantzale zintzo batek hartu eta zaintzen ditu, baina Polidektesek, irlako erregeak, ez ditu arrotzak atsegin eta Pertseo Medusaren buruaren bila bidaltzen du. Polidektesek pentsatzen du Medusak Pertseo harri bihurtuko duela eta bere ama ere desagerraraziko duela. Izan ere, Medusa Gorgona beldurgarria da eta harri bihurtzen du aurrez aurre begiratzen duen edonor. Baina Pertseok, guztiz etsituta agindutakoa betetzeko benetako zailtasunak izango dituelakoan, Zilarbizirekin egiten du topo eta haren laguntzaz arrakastarako bidea aurkitzen du.

Liburu guztiz fantastikoa da, Greziako kultura klasikoak sortutako hainbat pertsonaia modu atseginean ezagutzeko aukera ematen diguna. Abenturan erraz sartzen zaitu eta deskribapen ugari eta erakargarriak ditu, izaki fantastikoak irudikatzen lagunduko digutenak. Ezin aipatu gabe utzi erabilitako hizkuntza bera ere, erraza eta aberatsa, hizkuntzaz ari garela ezaugarri-pare bikaina.

"Hona, beraz, atzoko eta gaurko gazteentzako liburu eder bat". Agian gazteren bati jakin-mina piztuko dio, gainera, bertan agertzen diren pertsonaien zein kultura klasikoak utzi dizkigun beste hainbaten berri ikertzeko...

Izagirre, Koldo

Zangozikin

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Iruñea: Igela, 2009

ISBN 978-84-87484-89-6

"Bazkalondoan, eguzkiak gogor jotzen duenean, kalean inor ez dagoela, plazara irteten naiz txingoan jolastera" (...) Honela hasten da Koldo Izagirre idazleak haur eta gazteentzat idatzi duen azken liburua. Errealitate gordina erakusten duen ipuin labur bezain mamitsua.

Lehenengo pertsonan kontatua, "Zangozikin" deituriko haurraren ikuspuntutik, zeharka hainbat etorkinaren bizitzen zertzeladak ezagutuko ditugu. Kabinara jaisten direnean, urruti dagoen etxera deitzeko asmoarekin, kontatzen duten guztia entzungo dugu Zangozikinen belarrietatik. Baina Zangozikinek jakin badaki kontatzen dutena eta bizitzen dutena ez datozela bat. Berak ere

baduelako zer kontatu, berak ere bizitza berri bat duelako eta ordutik Aurrera “Zangozokin” deitzen diotelako...

Testua eta ilustrazioa aurrez aurre, biak ezinbestekoak dira istorioa osatzeko, baina gauza ezberdinak kontatuz. Antton Olariaga ilustratzaile beteranoaren marrazkietan barneratu behar da irakurlea, xehetasunetan erreparatuz; eta horrela bakarrik osatu ahalko du testuak esaten duena. Testuak, izan ere, esan baino iradoki egiten du, eta hortan datza hain zuzen irakurlearen lana, iradokitzen dena irudikatu eta gorpuzten. Hau dela eta, irakurketa sakona eskatzen du liburu honek.

Beraz, haur literaturan ohikoa den sinplekeriatik urrun dagoen liburua, hausnarketa eskatu eta eskaintzen duena aldi berean. Hau guztia lortzen duen irakurleak benetan gozatuko du irakurketarekin. Horregatik kasu honetan (beste batzuetan bezala) oso zaila suertatu zaigu liburu hau adin tarte zehatz bati gomendatzea, inoiz baino gehiago irakurlearen baitan baitago istorioan barneratzea.

Kazabon, Antton

Isilik kantatzeko

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2010 (Ekin)

ISBN 84-8394-350-6

-Poesia-

“Irudiak eta hitzak, edo, zehazkiago esanda, argazkiak eta poemak biltzen ditu ez-ohiko liburu honek,... baina egilea ez da mugatu irudiak eta hitzak besterik gabe bildu eta metatzera. Aitzitik, argazkiak eta poemak uztartu egin ditu Anttonek, bata bestearekin txertatu, elkar osatu eta indartzeko moduan.” Horrela dio Joxerra Garziak liburuaren hitzaurrean eta inork baino hobeto azaldu du poesia liburu honen muina.

Liburua egileak berak egindako argazkiz osatua dago eta argazki bakoitzaren alboan poema bat azaltzen da. Irudia eta hitza dira, beraz, liburu honetako elementu nagusiak. Dena den, eta gure uste apalean, hitza da liburu honen bertuterik handiena. Gai ezberdinak uztartzen ditu idazleak: natura, maitasuna, herriarekiko lotura, heriotza, garai bateko balio galduak... Gauza arruntak, egunero begien bistan dauzkagunak, baina era xamurrean esanda, poesiaren hizkuntzaz idatziak.

Kazabonek gazte nahiz helduentzako poemak eskaini ditu liburu honetan. Baliabide poetiko ezberdinak erabiliz, gogoetarako uneak eskaintzen dizkigu, gozatzeko hitz jokoak, arima asetzeko soinuak: POESIA letra larrietan. Bihotzaren neurrira egindako hizkuntza. Bihotzerako kilimak.

“Hitz ederrak esan dizkidazu baina nik isildu dituzunak entzun nahi nituen”

Lacombe, Benjamin

Ondine

Euba: Ibaizabal, 2012

ISBN: 978-84-8394-664-0

Benjamin Lacombe idazleak eta ilustratzaileak istorio tragikoa eta erabat erromantikoa ekartzen digu oraingo honetan. Friedrich de la Motte-Fouqué-ren ipuin batean eta Jean Giradoux-en antzezlanean inspiratua, Ondine mito germaniarrera hurbiltzen gaitu. Ondine uretako ninfa bat da, gizakiek ume zela erreskatatua. Zaldun batekin maitemindu da eta, horrek, harrigarriki, ninfaren onena ateratzen du, baina hainbat oztopo aurkituko dituzte haren amodio istorioan.

Baldintzarik gabeko maitasuna, aldaketa eta hazkunde pertsonala, bekaizkeriaren eta jeloskortasunaren ondorio txarrak; zintzotasuna eta bestearen sentimenduekiko eta iraganarekiko errespetua aurkituko ditugu liburu ilustratu honetan. Eta ilustrazioak dira, hain zuzen, azpimarratu nahi ditugunak. Lacombe maisua da irudi eder eta iradokitzaileak sortzen. Kalko-papera erabiliz, ninfen mundu akuatikoa eta misteriotsua ezin hobeto islatzea lortu du. Ibaizabalek kaleratutako edizioak, ordea, tamaina handian, ilustrazioen indarra eta edertasuna handiesten ditu. Argitaletxeak ez du bakarrik edizioarekin asmatu, baita halako mito europarra euskaratzerakoan ere. Hizkuntza maila zertxobait jaso izan arren, pozgarria da irakurle euskaldunak mito edo ipuin klasiko hauek irakurtzeko aukera izatea ere.

Epopeia erromantiko zoragarria, gaztetxoak eta hain gazteak ez direnak amodioaz gozatzeko parada bikaina.

Landa, Mariasun

Maitagarria eta desioa

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Donostia: Elkar, 2012

ISBN: 978-84-9027-019-6

Dohain bereziz betetako neskato umezurtz batek maitagarri bati bihotz onez lagundu ondoren, haren esker ona jaso du: maitagarriak bere edozein desio beteko zuela hitza eman dio. Baina neskak egunero esaten dio maitagarriari hurrengoko egunean bueltatzeko galdera bera eginez: zer nahi duzu, zein da zure desioa? Adierazi gabeko desioa, bi tempus-eko narrazioan: neskaren tempusa eta maitagarriaren tempusa, “maitagarri-segundo bat orduak izan daitezke guretzat” dio narratzaileak eta.

Maitagarria egunero dator, baina egun hori, neskarentzat, bizitzaren etapa edo zikloa izan da. Tempus bikoitz horretan, neskatoaren bizitzaren faseen jarraipena egiteko aukera dugu: haurtzarora, gazte denbora, maitasunaren esnatzea, bikote bizitza, amatasuna, alabaren hazkuntza, penak eta pozak, momentu oparoak eta krisiak ... Beti maitagarriaren presentzian, uneoro irakurlearen gogora ekartzen “maitagarri-segundo bat orduak izan daitezke guretzat”.

Protagonistak lau dira: Emakume bihurtu den neskatoa, Bai lehenengo etapan eta Ezbai hurrengoetan, bizitzaren argi eta iluntasunen arteko ezkontzaren sinbologia moduan; Maitagarria, eguneroko fideltasunaren testigu;

Tomas, Ezbairen gizon zintzo eta trebea eta denbora, bai tempusa eta bai kronoa.

Oso narrazio sinbolikoa eta kritikoa, xumetasunari eta adiskidetasunari kantua, bizitzaren konplexutasunaren adierazle, literatura onaren erakusle. Neskaren bizi bidaiak eramaten gaitu barnera, bizitzaren oinarrizko sustraiak ukitzera, gure gizartearen hainbat ezaugarri hausnartzera eta, hau dena, gozamenez.

Mariasun Landak, narrazioan, keinu xarmanta egin dio bere lagun handi bati, eta keinuan eta istorioan aurkitzen ditugu idazlearen bihotz xamurra, munduarekiko ikuspegia eta artea.

Lertxundi, Anjel

Ezkutuko maitea

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Elkar, 2002 (Maxe; 3)

ISBN: 84-8331-927-6

Luxu bat da horrelako liburu ederrak izatea haurgazteliteraturan. Oso edizio zainduak dira Maxe sailaren bildumako istorioak. Ilustrazio bikainak, gai hurbilak, gaurko errealitatearekin lotura zuzena dutenak. Plazer handia bai irakurketa aldetik, bai liburua bera objektu zabal gisa kontutan izanda.

Liburu honetan Maxek argazkigintzan murgildurik jarraitzen du, nagusitxoagoa da, etabestelako gaiak ditu buruan: lehenengo mutil lagunak, amodiozko kantuak, musika eta kontzertuetako gogoak, etab.

Honetan, nerabeekiko harremana agertzen da, etagurasoak tartean daude, beraz, egungo familiaren isla azaltzen da, eguneroko tirabirak: diruaren kontua, gaueko orduarena, lehendabiziko mozkorraldia (eta ez soilik alkoholak eragindakoa, etab.)

Hainbat gai ukitzen ditu, gizarte honetan pil-pilean dauden gaiak, beti ere, neskaren ikuspuntutik, Maxe konturatzen baita, adibidez, mutilek ez dutela etxean laguntzen, ama beti haserre dagoela...

Oso liburu ona, alde batetik sinpatikoa delako; bestetik, gaiak direla eta, oso probetxugarria delako. Bestalde, Kirmen Uriberen olerkiak istorioan txertatzea oso interesgarria da, literatura aldetik balio handikoak baitira, eta istorioari sinesgarritasuna ematen diote.

Martín Garzo, Gustavo

Maitagarrien hiru ipuin

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide

Donostia: Elkar, 2005 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-271-X; 978-84-8118-842-4

Hiru ipuinez osatutako liburua da hau, eta bertan, maitagarriak, herensugeak, printzeak eta abar aurkitzen ditugu. Lehenengo ipuinak, Urretxindorraren

hegaldiak, zazpi urteko neska baten eta urretxindor baten arteko harremana kontatzen du. Irakurri ahala konturaratzen gara nola txoriak bere bizitza galduko duen neskatoarenaren truke. Bigarrenak, haur izan nahi zuen maitagarria, maitagarriek hurrei arima lapurtzeko duten joera azaltzen du; eta, azkenik, Printze maitea, herensugearen eta printzesaren arteko amodioaren ondorioz sortutako semearen zoritxarreko ipuina.

Liburu honen jatorrizko bertsiokoak (Tres cuentos de hadas) Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala irabazi zuen 2004an.

Ipuinak ondo egituratuta daude, eta bete-betean asmatu du, betiko ipuinei lotuta baitaude.. Honela bada, ipuin klasikoetan ohikoak diren gaiak aitatzen ditu: amodioa, heriotza, adiskidetasuna..., baina gaur egungo bizimoduari egokitutako komentarioak tartean sartuz, eta liburua aberatsagoa bihurtu du. Halaber, ipuin fantastiko hauek bikain girotuta daude; ez da zaila aintzira eta baso lanbrotsuetan murgiltzea, edo kobazuloetan barrena alegiazko gizakiekin topo egitea. Horretaz gain, sentimenduak ere ederto deskribatzen ditu era guztietako sentipenak agertuz, modu hunkigarrian gainera.

Idazleak Andersen eta Grimm anaien eragina aitortzen du; oso gustuko omen ditu maitagarrien ipuinak, eta benetan sarrarazten du irakurlea mundo fantastiko hauetan.

Elena Odriozolaren zuri-beltzeko irudiak pertsonaien sentimenduak islatzen dute modu goxo eta iradokitzailean.

Itzulpena, berriz, Juan Kruz Igerabidek egin du eta haur eta gazte literaturan duen eskarmentua ezagututa, moldapen biribila egin duela esan dezakegu.

Morpurgo, Michael

Kensukeren mundua

Ilustratzailea: Michael Foreman

Itzultzailea: Uxue Alberdi

Donostia: Elkar, 2008 (Xaguxar)

ISBN 84-9783-505-0

Morpurgoren izena ikusten dugunean liburu baten azalean, liburuak distirak botatzen ditu; baina istorioan murgiltzen garenean zero izartu baten magalean hondoratzen gara eta gozamina da esperientzia nagusia.

Horrela gertatu zaigu narrazio honekin: itsaso zabalean murgildu gara Michael eta haren guraso eta txakurrarekin, itota hiltzeko zorian egon eta esnatu gara Michael eta txakurrarekin uharte basati batean. Toki horretan, bakardadea, hondartza, itsasoa, basoa, tximuak, orangutanak eta Kensuke japoniarraren bihotz errukitsu eta jakintsua.

Idazleak izugarrizko sakontasuna eta xarma ematen dio hainbat liburu eta filmetan erabilitako gai klasikoari, eta oso istorio ederra kontatzen digu. Pertsonaiak bi dira: Michael mutikoa eta Kensuke agurea. Haien arteko harremana, elkarri ematen dioten laguntza, Kensukeren zen ona eta ontasuna, natura eta animaliekiko maitasuna, artearen garrantzia (japoniar pintura teknikak), besteak beste, dira aurkitzen ditugun gai zoragarriak, modu bikainean tratatuak. Irakurle moduan narrazioak eramaten gaitu eta batez ere emozionatu.

Amaieran, begietatik isurtzen ditugun negar tantaiaek islatzen dute gure bihotz ukitua.

Horrelako liburu onak altxorra dira guretzat!

Rowling, J.K.

Harry Potter eta sekretuen ganbera

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkarlanean & Salamandra, 2001

(Harry Potter; 2)

Harry Potter-en abenturen lehenengo atalaren oihartzuna mundu osoan zehar zabalduta da eta ordutik ondorengo atalak ezagutu ditugu (dagoeneko lehenengo hiru liburuak euskaratuak daude). Orokorrean liburu baten balorazioa egitea zaila izaten bada, are gehiago haur literaturak eman duen “bestseller” bakarrenetarikoa baten aurrean aurkitzen garenean, hitz horrek sarritan zentzu negatiboa izaten baitu itsatsita. Dena den, kasu honetan mundo mailako salmentak eta balore literarioa eskutik helduta doazela aitortu beharrean gaude zorionez.

Udako oporretan ematen zaio hasiera “Harry Potter eta sekretuen ganbera” liburuari, konkretuki Harry Potter-en urtebetetze egunean. Osaba-izeba eta lehengusu gogaikarrien lagunartea jasangaitza da dagoeneko eta Harry eskolako lagun berririk ez duelako izan nazkatua eta goibel sentitzen da. Gehiago ezin duenean, Ron adiskidea etorriko zaio bila eta biak elkarrekin abiatuko dira Hogwartseko Azti eta Sorgin eskolara. Kurtsoa hastear dago eta bigarren ikasturte honetan zehar biziko dituzten gorabehera eta ibilera guztien lekuko izateko aukera izango dugu irakurleok.

Bigarren atal honek lehenengoaren maila mantentzen du eta argi dago J.K. Rowling-ek baduela zer kontatu eta gainera badakiela nola. Pertsonaiak eta testuinguruak aldatu ez diren arren, ez dago errepikapenik eta emozio, misterio erritmo bizi eta abentura maila bera mantentzea lortzen du. Horrez gain umore ukitua ere ez da falta eta gizartearen kontrako kritika burutsua ere topa dezakegu (arrazakeria eta garbitasun etnikoaren kontrako borroka hain zuzen). Hori guztia fantasiak, magiak eta irudimenak eskaintzen dituen amaigabeko elementuekin nahasten badugu, gogaitasunaren kontrako liburu paregabe baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Irakurle gazteak, Harry-rekin identifikatuz, aztitzat hartuko du bere burua eta hamaika gauza harrigarri eta zoragarriren partaide izateko abiatuko da liburuan barrena, eta behin barruan ez du atsedenik izango.

Rowling, J.K.

Harry Potter eta Azkabango presoak

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkarlanean & Salamandra, 2001

(Harry Potter; 3)

Harry Potterren abenturazaleek ez dute aspertzeko betarik izango hirugarren liburu honekin. Aurreko bien ildo beretik datorkigu honako hau: osaba-izeba higuigarriak, ikasgai berri eta zirrargarriak, quidditch-eko partida borrokatuak, magiazko osagai berriak etab. Nolanahi ere, errepikapenean erori barik, abentura eta misteriozko kapitulu berriez gozatzeko aukera izango du irakurleak.

Hirugarren atal hau Harryren iraganean oinarritzen da, bere gurasoak hil zireneko ekintza ilunean. Ekintza horren inguruan gorpuztuko du idazleak argumentu osoa, berak maisuki erabiltzen dituen elementu magiko eta zirrargarriez baliaturik: margolanetatik irteten diren pertsonaiak, jendearen kokalekua uneoro markatzen duen mapa magikoa, animalia bihurtzen diren aztiak, denboran barren bidaiatzeko erloju bitxiak etab.

Aurreko bi liburuetan protagonismo osoa Harryk bereganatzen bazuen —bera baitzen Lord Voldmort maltzuraren aurka borrokatu eta irabazle ateratzen zena, aldiari bere lagunak laguntzarekin—, oraingo honetan, bere bi lagunak Harryk bezainbesteko protagonismoa bereganatzen dute, batik batik Hermionek. Badirudi idazleak, aurreko liburuen ildotik kaleratutako zenbait kritiken haritik, non Harryren gehiegizko protagonismoa eta emakumezkoen partaidetza urria egozten baitzaizkio, Hermioneren partehartzea eta garrantzia handitu nahi izan dituela.

Orain arte euskaraz argitaratutako Harry Potter sailaren lanik borobilena da honako hau, bai argumentuaren oparotasunagatik, bai pertsonaien karakterizazio bikainagatik. Istorioan zehar agertzen diren pertsonaiak ez dira iraunkorrak, ikuspuntu eta ñabardura ugari erakusten dituzte, eta argumentuari aberastasun handia erantzen diote. Argumentuaren korapiloan barneratu ahala, ustekabeak eta harridurakugaldur egingo dira, zaila bilakatzen baita istorioaren nondik norakoak asmatzea. Horra hor hirugarren liburu honen gakoetariko nabarmenena. Izan ere, egileak maisutasun paregabea erakusten baitu ezusteko egoerak eraikitzeke, irakurlea txunditzeke, harritzeke xedearekin. Bestalde, argumentuaren korapiloan barneratzen garen heinean, ekintzak bizitasun handiarekin gauzatuko dira, etenik gabe, irakurleari atsedean unerik utzi gabe. Ildo horretatik aipatu behar da liburuaren irakurketak arreta berezia eskatzen duela, bertan agertzen den pertsonaien andana handiak eta gauzatzen diren ekintza ugariak horrela eskatzen baitute. Egile ingelesak, ez bairik gabe, lan borobila burutu du hirugarren lan honekin, liburu honen irakurketara hurbiltzen den irakurle orori, gazte nahiz helduri, ustekabe eta harridurazko une atsegin eta zirrargarriak eskainiz.

Rowling, J.K.

Harry Potter eta suaren kopa

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkarlanean, Salamandra, 2003 (Harry Potter; 4)

ISBN: 84-8331-926-8

Udako oporrak dira eta Harry Potterrek laster hasiko du laugarren ikasturtea Hogwartseko Azti eta Sorgin Eskolan. Harry Potter 11 urterekin sartu zen barnetegian azti ikasketak egitera eta, beraz, laugarren abentura honetan 14 urte izango ditu. Azti eta Sorgin Eskolara joateko falta diren egunak zenbatzen ari da Harry: han sorginkeria berriak izango ditu ikasteko, quiddichean ere jokatu beharko du eta oraindik badu zer miatu eta aztertu Hogwartseko gazteluan. Baina Harryk kontuz ibili beharko du, han ustekabeko arriskuak baitauzka zain... Harry Potterren liburuetan ongiaren eta gaizkiaren arteko gerra dago beti. Mutikoa ongiaren ordezkari da eta badu etsai bat, Lord Valdermort, magia ilunaren edo gaizkiaren ordezkari nagusia.

Irakurle gazteak, Harryrekin edentifikatuz, aztizat hartuko du bere burua eta hamaika gauza harrigarri eta zoragarriren partaide izateko abiatuko da liburuan barrena, eta behin barruan ez du atsedunik izango. Idazkerari dagokionez, J.K. Rowling-ek aurreko liburuetako dinamika eta estilo bera erabili ditu, hau da, liburuan zehar arazoak planteatu eta aldi berean aztarnak uzten ditu, eta azkenean hori guztia kateatzen du eta utzitako pista eta arazoak azaltzen ditu.

Liburuan bertan, The Sunday Express egunkariak esaten duen bezala, "Ez dago orrialde aspergarri bakar bat ere, argumentuaren pieza guztiek bat egiten dute puzzle miragarri batean moduan". Aipamen berezia merezi du Iñaki Mendigurenek, 2002ko Euskadi Saria eskuratu baitzuen Harry Potter eta senkretuen ganbera liburuari egindako itzulpena lanarengatik.

Rowling, J.K

Harry Potter eta odol nahasiko printzea

Izultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkar: Salamandra, 2007 (Harry Potter)

ISBN 978-84-9783-484-1

Harry-k hamasei urte ditu eta Hogwarts azti eta sorgin eskolan seigarren ikasturtea hastera doa. Voldemort, Azti Iluna, agertu dela-eta, segurtasun neurri izugarriak daude bai eskolan bai azti eta muggleen (aztiak ez diren) munduetan. Harry-k, "odol nahasiko printzeak" erabili zuen liburua lortzen du eta primeran moldatzen da edabeetako klaseetan bertan agertzen diren aholkuei jarraituta. Aipatutako liburu misteriotsuan agertzen diren madarikazioak ere probatzen ditu eta ezusteko galantak jasan behar izaten ditu. Dumbledore, ikastetxeko zuzendariaren klase partikulak jasotzen ditu Harryk, bera baita Profeziak aipatzen duen "Aukeratua" lord Vordemort hiltzeko.

6. liburu honetan berebiziko garrantzia dute Draco Malfoi ikasleak eta Snape maisuak, haien artean ezkutuko lan gaizto bat baitaude.

Magia mundua alde batetik oso erakargarria da; amodio-edabeak, premiazko gela (eskatzen duenaren arabera itxuraldatzen dena), zorte ona ematen duen edabea, ikusezintasun kapa,... baina, bestalde, guztiz arriskutsua ere izan daitezke "horcruxak", hau da, azti ilunek euren arimaren zatiak gordetzeko erabiltzen dituzten tresnak, agertzen direnean. Idazleak maisutasunez murgiltzen gaitu magiaren bi aldeetan.

Nahiz eta liburu mardula izan, momentu guztietan irakurlearen arreta iraunarazi eta erakartzen du, ondoren zer gertatuko den esperoan. Liburuak badu berezko hiztegi luzea; hil-jaleak, auroreak, gogoetontzia, parsel-hizkuntza, quidditcha, eta abar, baina istorioarekin bat eginik aurkitzen direnez, irakurketak harrapatu egiten gaitu.

Harry Potterren irakurleak badaki liburu bakarra gelditzen dela istorio koropilatsu honi bukaera emateko, eta 6. liburu hau irakurrita izugarriko gogoia pizten da hurrengo ere irakurtzeko istorio luze eta interesgarri hau nola buka daitekeen jakiteko. Behin eta berriro esaten da lagunen adiskidetasuna eta maitasuna izango direla Harryk Voldemort menperatzeko izango dituen armak. Ez dute lan makala izango Azti Ilunaren horcruxak eta Voldemort bera akabatzeko. Zorte ona opa diegu.

SAINT-EXUPÉRY, Antoine de

Printze txikia

Itzultzailea: ZUBIZARRETA, Patxi

Donostia: Elkarlanean, 2001

Ez da erraza *Printze txikiaren* inguruan fundamentuzko zerbait berria idaztea, alde batetik han eta hemen hainbat eta hain ondo idatzi delako, eta bestalde, azken 50 urteotan gertatu diren aldaketa soziokulturalak nabariak eta sakonak izan direlako.

Baina, kontua da, Patxi Zubizarretaren euskarazko bertsio berria argitaratu dela, eta irakurleok berriz aukera dugula liburu "zahar" hau dastatzeko. Ez dugu azalduko Saint-Exupéry-ren historia, ezta idazlearen egoera eta motibazioak ere liburu hau idazterakoan, gai horien inguruan ugari esan delako dagoeneko.

Adieraziko duguna zera da: gure irakurketa. Eta irakurketa berezia, batez ere frantsesez edo gazteleraz hamaika aldiz irakurri dugun testuaren irakurketa delako. Horrek esan nahi du hondoko memorian daukagun hainbat sentimendu, oroitzapen eta ideia azaleratu egiten direla, eta kanporatzen diren heinean gehiago barneratzen direla; hau da, gure munduaren ikuspegia eta pertsona eraikiz eta aberastuz doaz. Eta hori egiteko gai den testu bat, zalantzarik gabe, literatura klasikoa bihurtu da.

Esango genuke Saint-Exupéry-ren *Printze txikiaren* hainbat pasarte, "ikono irudiak" direla; haien independentzia mantentzen dute, alegia, ez dira subjektuaren proiektzioak ezta erraz eskuratzen diren irudiak ere: distantzia propioa mantentzen dute eta, batez ere horregatik, argitzeko, inspiratzeko eta probokatzeko ahalmena daukate. *Printze txikiaren* hainbat pasarte jakinduria

unibertsala bihurtu dira eta haien entzule edo irakurlearentzat itxaropenaren eta argitasunarenizarrak dira.

Gozatu egiten dugu idazlearen testu poetikoekin, eta disfrutatu hainbat gairen tratamenduari: adiskidetasuna, denboraren izaera, gauza txikien balioa, harrokeriaren kritika, bakardadea... Gozatu eta denbora hartu gure hondo-hondoak entzuteko eta gizakia eta gure gizartea hobeto ezagutzeko. Nahiz eta hainbat urte pasatu lehenengo argitalpenetik, egungo obra poetiko eta kritikoa da. Hori guztia, egia esanda, une honetan ia miraria da.

Normala denez, gure haurrei eta gazteei gure historiaren eta gizakiaren lorpen onenak transmititu nahi dizkiegu. Gure ustez, Printze txikia altxor bat da eta horregatik pentsatzen dugu haurrei eta gazteei obra hau entzuteko eta irakurtzeko aukera eskaini behar diegula.

Testua ez da erraza haur txikientzat, baina guk helduok zati aukeratuak eta maitatuak eskain diezazkiekegu eta haiekin irakurri eta entzun autorearen ahotsa. Bestela, eta norberak irakurtzeko, liburua oso gomendagarria da 12 urtetik aurrera.

Zubizarretaren bertsioari buruz esan behar dugu, konturatu gabe, eta xamurtasun osoz sartzen garela testuan, eta hori da, gure ustez, itzultzaile baten meriturik handiena.

Antoine de Saint-Exupéry gertu badabil, agian iritsiko zaio gure eskerrona, bere testurik Gabe mundua ilunagoa izango zen eta.

Sepúlveda, Luis

Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katuarena

Itzultzailea: Jesus Mari Mendizabal "Bizargorri"

Irun: Alberdania, 2007 (Ostiral)

ISBN 978-84-96643-85-7

Zorbas katua oso lasai bizi da Hanburgoko portuko etxe batean, kaio bat agertu arte. Kaioa hil-zorian dago, itsasoko petrolio isuri batek kondenatua.

Zorbases hitz ematen dio errun berri duen arrautzatik sortuko den kaio-umea haziko duela, eta, gainera, hegan egiten irakatsiko diola. Eta hitza beteko du katu adiskideen laguntzaz.

Nahiz eta narrazioak urte batzuk eduki (gazteleraz 1996. urtean argitaratu zen), ez dio axola eta oso atsegin handiz irakurtzen den istorioa da.

Pertsonaiak ondo marraztuta daude, oso desberdinak dira haien artean eta horren lagun onak eta prestuak emateko bakoitzaren aberastasun eta jakintza...

Umoreak, xamurtasunak, eta, batez ere, maitasunak eta askatasunak agintzen dute lege, aurreiritzi, muga eta antolaketaren gainetik. Haien proiektua Zorbases hitza betetzea da eta denok jartzen dira lanera. Azken finean, kaio-umeari bizitza eta askatasuna eskaintzea da xedea eta hori bete arte ez daukate bakerik.

Liburuaren mezua esan dezakegu hauxe dela: ausartzen denak baizik ez du hegan egiten.

Bakoitza bere tokian, batzuk hegaz, besteak lurrean, baina denok lagunak eta maitasunaren sokaz libreak.

Olariagaren ilustrazioak atal bakoitzaren hasieran agertzen dira soilik baina oso adierazgarriak eta egokiak dira umore eta xamurtasun tonua azpimarratzeko.

Uribe, Kirmen

Garmendia eta zaldun beltza

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Donostia: Elkar, 2003 (Garmendia)

ISBN 84-9783-069-5

Kirmen Uribek liburuaren sarreran esaten duenez, asko gustatzen zaio zaharrekin hitz egitea, zaharrak kontalari onak baitira. Zaharrak legez, bera ere kontalari ona da eta abenturaz beteriko ipuin zoragarria idatzi du.

Garmendia Ameriketara joandako euskaldun bat dugu, ehun kilotik gorakoa, handia eta aurpegi biribilekoa, bertan gogoz kontra pistolari bihurtua. Garmendiari "Wilde Rose"-ko senar emazteen hilketa leporatuko diote eta Harry Garbi-ren mutilak bere atzetik ibiliko dira, Garmendia gizajoa urkatu nahian. Ihesaldi horretan Garmendiak Amelio lagun mina izango du bikote.

Lehenengo unetik, irakurlea Garmendia gizajoarekin identifikatu eta liburuan buruz buru sartzen da, guztiz harrapatuta. Liburu hau Ameriketako Mendebal Urrunean dago girotua, XIX. mendean hain zuzen. Abenturaz beteriko liburua dugu, emozioz betea, eta erritmo biziari eusten dio pasarte guztietan. Ihesaldi osoan zehar, "oeste"ko filme bat ikusten ari garela ematen du. Abentura liburu bat ez ezik, idazleak umore puntu batekin prentsa eta komunikabideen salaketa fina ere egiten du.

Liburua ederki girotua dago Mikel Valverderi esker, marrazkiak biziak eta ikusgarriak baitira, idazlearen ironia fina oso ondo antzematen dutenak.

Liburu erakargarri eta entretenigarria, esku artean gustu handiz hartzen dena.

Verroen, Dolf

Neure neure esklaboa

Ilustratzailea: Veronica Nahmias

Itzultzailea: Joseba Sarrionandia

Donostia: Elkar, 2009 (Xaguxar)

ISBN 978-84-9783-665-4

Bikain Verroen jauna! Zenbait egoera salatu daitezke literatura onaren bitartez!! Sinistu iezaguzue, Verroenen liburuak esklabismoaren bidegabekeria berriro sentitzera behartzen gaitu.

Esku artean duzuen, literatura ona da dudarik gabe, bai testuaren egituragatik, bai edukiagatik; gozatu eta erreflexionatu arazten duena. Esklabismoa apaindura eta moral faltsurik gabe kontatua. Maria da hitz egiten diguna, 12 urteko neskato zuria, bere urtebetetzean jaso ahal den oparirik onena hartu duena: bere esklaboa, Koko. Esklabo ugarien jabe den bere familiaren eguneroko bizimodua kontatzen digu, oso era naturalean: Kokorekin duen harremana, izeben bisitak eta beraien esklaboekin dituzten arazoak, aitona-

gaixotasuna, nola begiratzeko dion aitak gaztea eta polita den esklabo-eme berriari, eta nola sufritzen duen bere amak, isilean beti... Protagonistaren inozentzia puntu horrek, alegia, areagotu baino ez du egiten ipuin gogorraren gordintasuna, esklabismoa zurien ikuspuntutik kontatua.

40 kapitulu motzak, errimarik gabeko poema itxuran eratuta. Esaldi laburrek indarra eranstean diote narrazioari. Kontakizuna arina da, eta horrek kontrastea sortzen du edukiaren latzarekin.

Joseba Sarrionaindiaren itzulpena ezin hobea da eta ikatzmarrazkiek ondo laguntzen digute historia eta pertsonaiak kokatzeko.

Disfrutatu eta liburuak bukatutakoan, zer pentsatu edukiko dute irakurle gazteek zein helduagoek.

Wilde, Oscar

Printze zoriontsua

eta beste ipuin batzuk

Itzulzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkarlanean, 2001 (Klasikoen Kutxa; 8)

Eskertzekoak dira Klasikoen Kutxa bildumaren eskutik jasotzen ari garen lan ederrak: Verne, Dickens, Kipling, Defoe etab. Alde batetik, edizio erakargarriak dira, eta sarreran idazlearen biografia laburra dakarte; bestetik, itzulpenak zainduak dira. Beraz, ezin esan literatura unibertsaleko lanik ederrenetarikoak euskaraz ez ditugunik, gazteek aukera behintzat badute oraingo hauekin. Oscar Wilderen ipuin hauek arras ezagunak dira, "Printze zoriontsua" liburuari izenburua ematen diona batez ere. Baina baita "Urretxindorra eta arrosa" edo "Erraldoi berekoia", zinemara maiz eraman baitituzte.

Ipuin onak aurkitzea zaila bada ere, hain barneratuta dauzkagun ipuin hauek, umetatik oroitzen ditugun hauek, onak izan behar derrigorrez, txiki zein helduen oroimenean geratu baitira betiko. Ipuinak baino gehiago poemak dira, edertasunez beterik, poetikoak guztiz, bihotzeraino iristen diren ipuinak, hunkitu egiten gaituztenak.

Oscar Wildek erabiltzen duen ironia fina da oso; kritika soziala dago baina modu entretenigarrian. Morala ere badute ipuin hauek, baina gehiago da alegiak erabiltzen duen moral jostalaria, astintzeko egina. Ipuinen amaiera tragikoa da ia guztietan. Horrexegatik ere bereziak dira, ipuin hauek patuaren krudeltasuna islatzen dutelako. Ederrak, tristeak eta borobilak dira. Ahaztezinak.

Zaldua, Iban

Kea ur gainean

Ilustratzailea: Asisko Urmeneta

Donostia: Elkar, 2002 (Xaguxar; 118)

ISBN: 84-8331-860-1

Bitto (M^a Victoria) neska gaztea da, nerabezaroan murgilduta, errebeldea eta gainera gurasoen iritziz denerako gazteegia da: gustuko arropa jantzeko, nahi

duen musika entzuteko, lagunak aukeratzeko... Ilea luzea eramatea gustatzen zaio. "Heavy" da eta horrekarazo batzuk ekartzen dizkio, bai familia giroan, baieskolan. Gurasoak etsaiak bailiran ikusten ditu eta nebarekin ere ez da ondo konpontzen. Neska baten ikuspuntutik dago kontatuta eta eguneroko egoeramodu umoretsuan azaltzen da. Harremanek garrantzia handia dute istorioan: gurasoekin, Ander lagun heavyarekin... Neskaren errebeldia antzematen da, ez soilik musika gogorra atsegin duelako, baizik eta helduen portaera batzuk ulertezinak egiten zaizkiolako. Idazlearen begirada kritikoa agertzen da, adibidez, eskola eta gazteen interesen urruntasuna ukitzen delako, musika alorrean behintzat. Irakurketan aurrera joan ahala, tonu umoretsua errealistagoa bihurtuko da. Gurasoen banaketa agertzen da, beti ere tonu umoretsuan kontaturik eta garrantzia handirik eman gabe, hau da, transzendentalismotik aldenduz. Irakurketarekin ondo pasatzeko liburua dela esango nuke, zorrotza batzuetan, gizartean gurasoek jokatzen duten paperarekin eta ikastetxeetan hezkuntza ulertzeko moduarekin.

Liburua oso erraz irakurtzen da, gaia errealista da baina beti ukitu umoretsuarekin. Asisko Urmenetaren marrazkiek, komiki itxuraz, ondo islatzen dituzte giza taldeak: teknoa, pijoa, etab. Oso liburu aproposa gazteei begira.

14 urtetik aurrera

Aleixandre, Marilar

Etorkizunik ez

Itzultzailea: Unai Elorriaga

Donostia: Elkarlanean, 2001 (Branka; 81)

Hona hemen hamasei urteko neska baten bizitzaren tarte baten narrazioa, lehenengo pertsonan kontatua, egunkari moduan. Institutu berri batean hasi behar du familia bizilekuz aldatu delako. Aurreko etxea eta lagunen falta sumatzen du eta ez da ziur sentitzen ikastetxe berrian. Bestalde, gaixotasun bat dela eta, ilea arrada moztuta dauka eta beti daraman txanoarekin ez da eroso ez erakargarri sentitzen.

Narrazio honetan ikusiko ditugu bere senideekiko harremanak —ez beti hain errazak—, institutuan integratzeko zailtasunak, irakasleekiko tira-birak, antzerki obra baten prestatze-lanak... Protagonistak maitasun etsipena ezagutuko du eta norbait berarekin maiteminduko da... Laburbilduz, ia-ia ez da falta nerabe batek bizi dezakeen esperientziarik eta sentimendurik.

Liburuan zehar musika erreferentzia ugari egiten dira, batez ere 80ko eta 90eko hamarkada hasierako kantariei eta taldeei (Derribos Arias, La banda sin futuro, Os resentidos, Aerosmith, The Doors...). Agian erreferentzien antzinasuna desabantaila izan daiteke gaurko irakurle gaztearentzat, baina ez da oztopo handiegia izango.

Gaixotasun krudel batez hil zen Poch kantaria, oraindik gazte zelarik. Protagonistak haren irudia dauka poster batean bere gelan, eta berarekin solasean aritzen da nobelan zehar, bere kezka eta sentimenduen inguruan. Oro har, ondo narratuta dago nobela eta pasarte ondo asmatuak daudela esan daiteke (esaterako, irakasle batek ikasleei mikroskopian ikusteko espermatozoideak ekartzeko eskatzen dien pasadizoa, eta ondorioz sortzen den gatazka). Nerabe batek obra hau gustura irakurriko du –eta baita heldu batzuek ere– eta erraz identifikatuko da protagonistaren bizipenekin. Nobela 1999ko Lazarillo Saria lortu zuen.

Bondoux, Anne Laure

Mirarien garaia

Itzultzailea: Usua Lasa Urkidi (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano: Ibaizabal, 2010 (Ameslari)

ISBN 978-84-8394-318-2

“Aduanazainek kamioiaren barrenean aurkitu nindutenegunean, hamabi urte nituen. Abdelmaliken zaborrontzien gelak bezain usain txarra nuen, eta esaldi hau errepikatu baino ez nuen egiten: Blaise Fortune dut izena eta Frantziako Errepublikako herritarra naiz. Egia hutsa da.”

Hasiera-hasieratik harrapatzen zaitu hainbat sari irabazi dituen liburu hunkigarri eta eder honek, horien artean Lire aldizkariak 2009an argitaratutako gazte saileko liburu onenen artean onenari emandakoa.

XX mendeko 90eko hamarkadan Kaukason, SESBeko hainbat errepublika gerran ari dira independentzia lortu nahian. Kumail-ek badaki zer den dena utzi eta beste leku batera mugitu beharra, behin-behineko bizitokira gerra iristean; badaki zer den gosez egotea, eta zer den bere adinerako lan gogorrak egin behar izatea. Baina Kumail zorionekoa da beste gerrako biktimekin konparatuz gero; alde batetik, Gloria duelako eta bestetik, Blaise Fortune izeneko Frantziako hiritarra delako. Eta horrela, aukera izango duelako gerra ingurua utzi eta Frantziako mugan bere pasaporteak erakusteko. Gloria eta Kumail txikiaren bidaia ikaragarria izango da eta, aldi berean, zoragarria. Istorioaren bukaera guztientzat aurretik irudikatu ezina.

Nobela ez da luzea eta irakurketa oso arina egiten da. Liburuak hiru ardatz ditu: Kaukasoko gerra, Gloria eta Kumailen arteko harremana eta Frantziarako bidea.

Lehena, gerra. Eta gerra beti gerra. Muturreko egoeretan gizakiak erakusten baititu bere barneko lore eta arantzarik gardenenak. Giro honetan hasiko da nobela eta Kumail ikasi egin beharko du ingurugiro horretan moldatzen.

Bigarrena, Kumail eta Gloriaren arteko harremana. Kumail, Blaise Fortune izeneko haur frantziarra ei da, txikia zenean tren istripu batean ama galdu eta Gloriak jaso zuena. Jaso eta zaindu bere semea balitz moduan.

Eta azkenik, hirugarren ardatza, protagonista biren Frantziarako bidaia. Gerratik ihes eginez Frantziarako bidean jarriko dira. Baina bidaia luzea eta

bihurria izango dute, bidean egonaldiak egitera eta mugak legez kontra zeharkatzera behartuko dituen.

Bukaera aldera nobelak indar gehiago hartzen du eta ezingo duzu utzi amaiera zoragarria arte.

D'Adamo, Francesco

Iqbalen historia

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi

Bilbao: Aizkorri, 2003 (Topaleku)

ISBN 84-8263-416-X

“Eleberri honek Iqbal Masih mutil pakistandarraren benetako historia kontatzen digu, umeen lan esplotazioen aurkako sinboloa bihurtu dena... familia nekazariak saldu zuen... alfonbra lantegi batean egin beharko du lan egunero 12 orduz rupia bakar bateko soldataren truke familiak duen zorra kitatu arte (sekula gertatuko ez dena)...” Hori da liburuaren azal-hegalean irakurtzen dena. Gero, irakurtzen hasi eta berehala ohartuko gara prosa arinean idatzia dagoela eta erraz irakurtzen dela.

Liburuan hiru zati bereiziko ditugu: hitzaurrean, hitz gutxitan, eleberriaren muinean sartzen du irakurlea pertsonaiak aurkeztuz. Ondoren, lehenengo kapituluan, 16 urteko Fatimak Italian etorkin gisa dituen bizipenak azaltzen ditu, eta Iqbal eta bere historia gogoratzen. Horrela, beti ere Fatimaren ikuspegitik, Pakistanen murgiltzen gaitu, alfonbra lantegi batean. Bizimodu gogorra, deserosoa... haurren ustiaketa gupidagabea deskribatzen du hamasei kapitulutan zehar. Bukaeran, epilogo motz bat (Iqbal Musih-ren azken berriak ematen ditu) eta “azken solas” bat dakartza: liburuaren zergatia adierazten du, esklabotasun forma modernoak salatzen ditu, uste ez badugu ere nonahi ikus ditzakegunak. Baita “lehen munduan” ere.

Salaketa liburua dugu, beraz. Idazleak garbi adierazten du hori hasieran eta bukaeran. Amaitzeko ipini duen azken esaldian halaxe dio: “Mesedez, norbaitek konta dezala”.

Hala ere, salaketarako pentsatua dagoela garbi jakin arren, irakurketak jakin-min handia sortzen du: Haur langileak ongi marraztuta ageri dira, beren ametsek indar handia dute, ia etsipenek bezainbeste. Iqbalek lortzen du ametsak egia bihurtzeko esperantza zabaltzea. Errebeldia posible dela jabetzen dira. Eta, tartean, ezintasunaren erdian, elkertasuna... eta maitasuna. Baikortasuna dario eleberriari. Hunkigarria da.

Zaude ziur gazte literaturako apaletan eduki beharreko liburua dela.

Gavalda, Anna

35 kilo esperantza

Itzultzailea: Jesus Mari Mendizabal, "Bizargorri"

Irun: Alberdania (Osinberde)

ISBN 84-96310-08-6

Gorroto dut eskola. Beste ezer baino gorrotoago munduan.

Eta hori baino gehiago, gainera... Bizitza izorratzen dit.

Horrela hasten da lehengo pertsonan idatzitako narrazio hau. Pertsonaia, Gregoire, krisialdi serioa bizi duen bikote baten ume bakarra da. Mutikoak eskola gorrotatzen du eta horrek, eskola gaur egun derrigorrezkoa izanik, bizitza oso zaila egiten dio. Eta non aurkitzen du mutilak bizi-poza? Aitonaren ondoan, aitona erakutsi dizkion esku lanetan (aroztegia, elektrizitatea, etab.) eta hark duen txabola gunean. Mutilak izugarrizko bidea egin behar du bere ipar propioaren atzetik joateko eta askatasuna garatzeko. Testuak irakurlea hunkitu egiten du: mutikoarekin identifikarazten du, harekiko sinpatia sakona sentiarazten du.

Hainbat gai inferitzen dira irakurketan: eskola instituzioaren mugak, irakasle gutxi batzuen afektuaren garrantzia, maitasunaren askatasuna (maitasuna oparia da eta inoiz ezin da erosi), umeen pena sakonak, nagusien funtzio garrantzitsua bizitzan, bakoitzaren bizitza-ildoaren garrantzia, etab. Narrazioa oso intimista da, baina, aldi berean, gure gizartearen irizpide batzuen denuntzia bihurtzen da, eta ezberdinen eskubidea aldarrikatzen du. Narrazioaren benetako ardatza bizitzaren zentzua da.

Oso erraz irakurtzen den testua da, esaldi laburrak eta elkarrizketa ugari dauzka eta. Irakurleek oro, gazte edo heldu izan, asko disfruta dezakete gogoeta hauekin, bai eta barre eta negar egiteko emozioak aurkitu ere.

Hassenmüller, Heidi

Gabon Panpinatxo

Itzultzailea: Zabaleta, Pello

Donosita: Elkarlanean, 2002 (Branka; 83)

ISBN: 84-8331-663

Liburu errealista dugu honako hau, bortitza, garratza, saminduraz betea, haurtzaroko tratu txar eta bortxaketak era zuzen eta gordinean azaltzen dituen, moralismo eta hutsalkerian erori gabe. Garraztasun hori islatzeko, egile alemaniarrek 2. Mundu Gerraren ondorengo gizarte tirabiratsuan kokatzen du istorioa, gerrak, goseteak, eta sufrimenduak jotako gizartean, alegia. Ingurune ilun horretan kokatuko da liburuko protagonista nagusia, zazpi urteko haur gaixoa, Gaby izenekoa. Aita gerran galdu ondoren, osabaren visita jasoko du, bat-batean adeitasunez eta onginahiez azaldutako gizonaren bisita. Aurrerantzean, gizon harekiko harremana benetako infernua bilakatuko da, tratu txar eta bortxaketaz beteriko oinazea.

Liburuan zehar bikain daude islaturik haurrak sentitzen dituen traumak: suizidioa, autoestimu falta, erruduntasun sentipena, eta ingurunearekiko mesfidantza eta barne beldurrak. Honenbestez, haurraren barne psikologian barneratzeko aukera emango digu egileak, azaleko geruzatik urrun: “Lehen gauean kontatzen zizkioten ipuinak zituen maite, baina orain benetako gorrotoa die, bere aitaordekoaren irudi bortitzarekin erlazionatzen baititu”. Ildo horretatik, haurren tratu txarren etabortizkeriaren inguruko gogoetarako manual paregabea eskaintzen digu liburu honek, hausnarketarako bideak zabaltzen dituena. Nolanahi ere, tratu txarrek eta bortxaketek haurraren sortutako oinazeaz gain, itxaropen izpiak ere eskaintzen dira liburuan zehar; izan ere, haurra nerabe bilakatu delarik, ez du itxaropenik galtzen eta bizitza hobeago bat amesten du, krudelkeriatik eta saminduratik urrun: “Maitasunik balego, ez legoke gerrarik, ez zapalketarik, ez beldurrik”.

Errealismo handiz kontatzen du istorioa egileak, estilo zuzenaz baliaturik. Esaldi motzak eta zehatzak lerrokatzen dira nagusiki. Elkarrizketak ugariak dira istorioan zehar, eta kontaktari arintasun eta bizitasun handia ematen diote. Aipagarriak dira liburuan egiten diren elipsiak, horiek irakurlearengan ezkutuan gelditzen diren ekintzen inguruko gogoeta pizten laguntzen baitute; horrekin batera amaiera irekiak ere hausnarketarako beta eskaintzen du, eta hori da, azken finean, egileak bilatzen duena istorio bortitz honen bitartez: irakurlearengan hausnarketa eragitea. Eta benetan lortzen duelakoan gaude. Ezbairik gabe, maisulan handi baten lana dugu honako hau, lehen aldiz euskaraz argitaratzen den lan hunkigarria.

Landa, Mariasun

Krokodiloa ohe azpian

Olariaga, Antton

Irun, alberdania, 2002 (ostiral; 18)

ISBN: 84-95589-33-8

Liburu honen protagonista, J.J., tipo arrunta, bakartia, eta anodinoa da. Baina bere etxeko ohepean krokodilo bat ikusten hasiko da. Beste inork ikusten ez duen krokodilo bat bere etxean bizitzen jarriko zaio. Pixkanaka-pixkanaka, krokodiloa bere logelaren eta bizitzaren jabe bihurtzen hasiko da. Egoera surrealista horrek erabat gaixotuko du gure protagonista eta medikuarengana joatea gomendatuko diote. Medikiak pilulak emango dizkio gaitza sendatzeko, eta hain zuzen pilulen prospektuak irakurrita eta botikariak esaten dionari esker, J.J.k ezagutuko du krokodilo bat ohepean ikustea, gaur egungo oso gaitz arrunta eta normal baten síntoma baino ez dela, bakardadea eta pertsonen arteko harreman gabeziak sortutako gaitzarena, alegia.

Depresio baten istorioa da. Oso era umoretsuan kontatua, hala ere. Umore horrek, hain zuzen, protagonistak bizi duen egoera tragikoa modu arinagoan eramaten laguntzen digu. Idazleak animalia baten irudia hartuko du barne sentimenduen berri emateko. Krokodiloa ohe azpian ikustea, bakardade eta angustia sentimenduaren metafora baino ez da.

Gaur egun zoritxarrez puri-purian dagoen gaia izaki, atsegin handiz irakurtzen den liburua dugu hau, lehen aipatutako umore finak eta bukaeraitxaropentsua lagun dutela. Irakurle gaztetxoarengana erraz iritsiko dela deritzogu.

Kontakizun honek Tolosako Antonio Maria Labaien narrazio saria irabazi zuen 2002 urtean.

López Gaseni, Manu

Gogoa lege

Madrid: SM, 2005 (Baporea)

ISBN 84-675-0619-9; 978-84-675-0619-8

Euskal Literaturan urriak izan dira zientzia fikzioa jorratu duten egileak. Genero honek behar lukeen baino arreta txikiagoa jaso du, kontuan izanik gazteen artean jarraitzaile ugari dituela. Kasu honetan, Manu Lopezek eleberri biribila taxutzea lortu du, zientzia fikziotik haratago, eta hausnarketarako beta ematen duten hainbat gai jorratu ditu, bai maisuki jorratu ere. Liburuaren argumentua XX. mendearen amaiera aldean kokatzen da. Gizarteari hondamendi lazgarria datorkio, eta Lur planeta jadanik ez da bizileku duina gizakiarentzat, irtenbide bakarra, honenbestez, erbesteratzea izango da. Gizakiak Martitz inguruko satelite bat hartu du bizileku, baina egoera ez da batere duina hango biztanleentzat. Meatzariek lan egoera kaskarrak jasaten dituzte, eta hilkortasun maila oso altua da. Testuinguru honetan, Xarmanta doktoreak hainbat ikerketa burutu ostean, gaitza genetikoak dela ondorioztatuko du; honela, bertako langileak estazio espazialean sortutako klonak izango lirateke. Aurkikuntza harrigarri bat dela medio, estralurtar baten hezurra izan daitekeena aurkitu ondoren, sendagai gisa erabiltzea erabakitzen du: hasiera batean langileak gaztetu egingo dira, baina berehala itxuraldaketa harrigarriak gertatzen hasiko dira...

Zientzia fikzioa abiapuntu duen eleberri honek, gaurkotasuna duten hainbat gai jorratzen ditu: klonazioa, teknologia berrien garapena, giza etika, e.a. Gai hauen guztien aurrean, etorkizun iluna irudikatzen digu egileak: eskubide zibilak murriztuak daude, gizakiarentzat ez dago duintasunik eta etorkizuna ez da oso itxaropentsua. Orain arte teknologiaren garapen hutsak zorientasuna eta ongizatea ekarriko omen zituen, baina etorkizuna beste era batekoa izango da.

Istorio fantastiko batean txertatutako gai unibertsalak lantzen ditu egileak: Hilezkortasunarekiko itsukeria, handinahikeria: "Baina nork izan nahi du hilezkorra (...) Zorientsuagoak izango ginbateke? Nik nahi nukeengauza bakarra diuntasuna da." (65 or.).

Liburuan zehar intrigazko eta tentsio une handikopasarteak tartekatzen dira, irakurlearen arretabereganatzea lortuko dutenak. Hizkuntza aberatsadarrabil egileak, batik bat, azalpen zientifikoak ematen dituenean, ildo honetatik, aipatzekoa da burutu duendokumentazio lan mardula. Ezbairik gabe, liburuentreenigarri eta sakon baten aurrean gaude, ertz askoerakusten dituen, eta irakurle oro, gazte zein heldu, bereganatzeko elementu ugari dituen.

Mankell, Henning

Izarretara bidean zihoan txakurra

Itzultzailea: Mendizabal, Juan Mari

Donostia: Erein, 2001 (Perzebal; 1)

Henning Mankell (Stockholm, 1948) da seguru asko suediar idazlerik ezagunena, baita Suediatik kanpo ere. Izarretara bidean zihoan txakurra tetralogia baten lehen liburua da. Gazteentzat idatzitako eleberri honek Gazte Literaturako liburu onenari eman ohi zaion saria jaso zuen 1990ean Suedian, eta Gazte liburu onenaren saria hiru urte geroago, 1993an Alemanian.

Henning Mankell-en narrazio poetiko sakon eta hunkigarri honek mutiko gazte baten bakardadea kontatzen du: amak etxea utzi eta itsasaldeko herri batera egin du alde. Harrezkero Joel aitarekin bizi da; baina aita lanean dago beti. Joelen bakardade sentipenak liburuaren orrialde guztiak blaitzen ditu.

Baina ez da liburu tristea. Aitzitik, narrazioan azaltzen diren ez ohiko pertsonaia berezi guztiak baikorrak dira eta, neurri batean, erabakigarriak izango dira Joelen izaeraren garapenean.

Euskal itzulpena Juan Mari Mendizabalek egin du eta liburua guztioi gomendatzen digu: “12 urteko mutil baten egunerokotasuna kontatzen digu, oso modu afektiboan. Historia xumea da oso, eta osagai eta erretorika gutxirekin zuku handia lortzen du”.

Mankell, Henning

Ohe elurtuan lo egin zuen mutikoa: Joeli buruzko hirugarren kontakizuna

Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal

Donostia: Erein, 2003 (Perzebal)

ISBN 84-9746-149-5

Narrazio honek Suediako 14 urteko gaztetxo baten historia kontatzen du. Aita-semeak, amak abandonatu ondoren, bizimodu nahiko latza eta gogorra eramaten dute: diruz juxtu, bakardade handian eta emakume baten presentzia eta goxotasunaren faltan. Mutila ez da nerabe arrunta, aitaren ardura hainbat aldiz hartu behar du eta. Baina, mutilak, aldi berean, amets batzuk dauzka: rock erregea izatea, herri hartatik ihes egitea, bere burua elur izoztuan lo eginez gogortzen ikastea, etab. Giroa oso ondo dago deskribatua: irakurlea murgiltzen da Ipar Europako herri batean, egun laburretan, gau ilunetan, pausoek elurretan ateratzen duten soinuan...; irakurleak mutilaren joan etorriekin bat egiten du.

Pertsonaia nagusia, Joel, oso maitagarria da: bihotz onekoa, ausarta, mutil argia, bizitzaren lehenengo esperientzia batzuen subjektu normala (lehenengo musuak, amets erotikoak, etab.), ameslaria...

Nobela intimista, erritmo lasaiduna...; ez dago abenturarik ez bada mutilaren barne abentura, bizitzako gauza txikietan oinarritutako bizi-abentura.

Idazleak irakurleari ez dio ezkututzen bizitzaren gogortasuna, baina, aldi berean, oso ikuspegi itxaropentsua eskaintzen du. Mezu moduan zera agertzen zaio irakurleari: bizitzan garrantzitsuena maitasuna eta maitatzen ditugunak dira.

Gai ugari planteatzen dira nobelan: nerabetasuna, egoerak ama falta denean, alkoholismoa, heriotza, adiskidetasuna, esku zabaltasuna, etab. Merezi du liburua irakurtzea

Meabe, Miren Agur

Urtebete Itsasargian

Ilustratzailea: Juan Luis Landa

Donostia: Elkar, 2006 (Bizi taupadak)

ISBN 84-9783-413-5

1936ko gerrako erasoetatik eta Bilbaotik urruntzearen, gurasoek Jon 13 urteko mutikoa hartu eta Garraitzetara eraman dute, osaba farozainarengana. Hilabeterako egonaldia behar zuena urtebetez luzatu da, eta Jon, poliki-poliki, gertaerek eraginda, konturatu da izaera eta bizimodua aldatuz joan zaizkiola.

Liburu hau lehen pertsonan kontatuta dago eta bi zatitan bana dezakegu: lehengo zortzi ataletan ikusiko dugu gazte nola moldatu den bizimodu berrira (hizkuntza, ohiturak jendea, lehen maitemina, osaba eta gurasoekiko harremanak...) eta gainerako ataletan, 1936ko gerran izandako gertaerak, familiakoak, gizartekoak eta politika alorrekoak, kontatzen dira, lekuko gazte baten ikuspuntutik, betiere. Bigarren zati horretan pertsonaia eta egoera historikoak azaltzen dira.

Idazlearen hitzetan, helburua da “ Kontakizun entretenigarri baten bidez, gozarazteaz gain gazteei gerrari buruzko informazio ematea” . Horretarako, hizkuntza bera errekurtsu bilakatzen da: arrantzaleen hiztegia, bi hizkuntza (gaztelania eta euskara), pertsonaien jatorria bereizten dutenak,, abestiak , esaldi zaharrak, deskribapen zoragarriak (lekuak, pertsonaiak, gerra eta bizitza dakarten sentimenduak...), hainbat kontzeptu politikori buruzko hausnarketa ulertterazak eta oso ondo lotuak.

Pérez-Fonca, J

Iban Aldenurikoa: Thaurroken basoa

Donostia: Erein, 2011 (Perzebal)

ISBN 978-84-9746-677-6

Abentura zirrargarriak biziko ditu liburu honen irakurketan murgiltzen den irakurleak, hori baita liburu aipagarri honek uzten digun sentipena: zirrara eta emozioa. Istorioa fantasia epikoaren barnean kokatu daiteke. Iban dugu protagonista nagusia eta dohain magiko baten jabe egiten denean, lurralde misterioetsuetan zehar izaki magiko eta arriskutsuei aurre egin beharko die. Kontakizunean zehar bi istorio paralelo uztartuko dira: Ibanek bizi dituen abentura fantastikoak alde batetik, eta bere bahiketak herritarrengan

sorrarazten duen ezinegona eta atsekabea, bestetik. Honenbestez, erritmo biziko abenturak une apalagoekin tartekatuko dira maisuki liburuan zehar, bizitasuna eta freskotasuna emanaz istorioari. Irakurlea lehen lerroetatik harrapatzea lortzen du egileak aipatu erritmo biaz baliaturik, eta hori da, hain zuzen ere, liburu baten dohain garrantzitsuenetariko bat: irakurlearen arreta bereganatzea, hurrengo abenturan murgilduko duen irakurketarako grina piztea. Itzulpenari dagokionez, aipatu behar da zuzen eta dotore euskaratua dagoela.

Ildo honetatik, “Hugo Gorkhol” pertsonaia zitalaren ihesak, trilogia honetako bigarren liburua irakurtzeko gogoz utzi gaitu, eta aipatu behar dugu, jadanik, irakurleon gozamenerako, euskaratua izan dela.

Pullman, Philip

Zubi hautsia

Itzultzailea: Koro Navarro

Donostia: Erein, 2005 (Bioleta)

ISBN 84-9746-224-6; 978-84-9746-224-2

Erein argitaletxeak argitaratua du jada, Bioleta Sailaren barruan, Philip Pullman-en beste eleberri bat: “Tximeleta tatuajea” izenburukoa; honako hau euskaratu den egilearen bigarren lana da. Aurreko liburuaren ildoari jarraituz, intrigazko eleberrigintzaren barruan kokatuko genuke, hain eroso sentitzen den generoaren barruan. Kasu honetan Ginny 16 urteko gaztetxea da protagonista nagusia, ezustean ezkutukoi anaia duela ezagutuko du, Robert izenekoa, eta anaia hau oinordeko zuzena dela ere jakingo du, aitak berak uste izan arren, ez baitzen Ginnyren amarekin egitan ezkondu; horrenbestez, alboratuta eta atsekabetuta sentituko da, ordura arte sinistutakoak deus ere balioko ez duelako berarentzat. Honela bada, Ginnyk bere iraganaren inguruan egia bilatu beharko du, eta bide honetan pertsonaia eta gertaera ilun ugari ezagutuko ditu.

Egilearen aurreko eleberrian liburuaren lehen orrialdetik bertatik zer gertatuko zen jakiterik bagenuen ere, oraingoan egileak liburuaren amaieraraino tentsioan mantenduko gaitu. Liburuan zehar intriga mantentzeko informazioa emeki-emeki eskainiko zaigu, irakurlearen arreta erabat bereganatuz, aztarna edo zantzu berriek ikerketan norantz eramango gaituzten jakin nahirik. Etengabe galderak eta alderdi ezkutuak izango ditu irakurleak bere gain. Ildo horretatik, narrazioa 3. pertsonan dago kontatua, narratzaile orojakilearen ikuspuntutik. Pertsonaien deskribapenak oso landuak dira, beraien barne sentimenduak, pozak, tristurak maisuki deskribaturik daude. Intrigazko eleberri bat izaki, pertsonaien garapenak eta sentimenduek indar handia hartzen dute kontakizunean, honela bi maila gurutzaturik izango ditugu: alde batetik, Ginny pertsonaia nagusiaren bilakaera, bere garapen pertsonala, iraganari buruzko ikerketan oinarriturikoa: hau alderdi intimistagoa izango genuke, pertsonaiaren sentimenduetan finkatzen dena; eta bestetik, zubi hautsiaren misterioaren ingurukoa: hauetan pisu handiagoa hartzen dute intrigek eta ekintzen ikerketek.

Kontakizunaren garapenari dagokionez, zubi hautsiaren istorioak ez du amaiera garbirik, egileak bide baterantz eramaten gaitu, baina azkenean irekita

gelditzen da korapiloa eta, agian, intrigak indarra galtzen du amaiera horrekin. Bestela ere, kontakizunak irakurlearen arreta bereganatzea lortzen du, hasi eta bukaeraraino irakurtzea eskatzen duten liburu horietako baten aurrean gaude. Liburua euskara txukun eta irakurterrazean idatzita dago, Koro Navarroren lana aipatzeko modukoa da.

Renard, Jules

Axenariora

Itzultzailea: Itziar Otegi

Donostia: Alberdania eta elkar, 2006

ISBN Alberdania 84-96310-95-7

ISBN Elkar 84-9783-392-9

Axenario (Poil de Carotte) Jules Renardek 1894ean idatzitako klasiko bihurtu den liburua da. Ez da nobela tradizionala, baizik eta narrazio laburren bilduma, mutilaren bizitzaren pasadizoak hain zuzen.

Protagonista, mutiko ilegorri eta oreztaduna da, ama krudel eta desatsegin baten eta jaramonik ez dion egiten aitaren semea eta anaiarreba zitelen anai gazteena. Bizi modu latza du umeak!

Testuingurua asko aldatu da XIX. mendetik (familia estiloa, ohiturak, etab.) baina gizakiaren barneak antzekoak izaten jarraitzen dute.

Egileak irudi idealak apurtzen ditu: ama maitale eta maitagarria eta ume ona, inozentea, etab., baina errealitatea gordina da kasu askotan, eta fikzioa ez da hain fantastikoa. Ingurunearen biolentziak (maitasun faltak, inbidiak, bestearen kontura barre egiteak,...) biolentzia, tristura eta abandonua dakar, atzo, gaur eta bihar.

Itzultzaileak obra kokatzeko sarrera aproposa egiten du eta liburua oso ondo eta interes handiz irakurtzen da.

Rowling, J.K

Harry Potter eta Fenixaren Ordena

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkar, 2004 (Salamandra)

ISBN 84-9783-190-X

Harry Potter eta Fenixaren ordena, sail honetako bosgarren liburua dugu, bertan pertsonaiak eta testu ingurua aldatu ez diren arren, Harry-ren heldutasunaren garapenean murgildu eta emozioa, misterioa, zirrara, lilura, suspensea, sekretua eta magia bizitzeko aukeraz goza genezake.

Liburu honetan narratzaileak pertsonai nagusia udaldi luzearen amaieran kokatzen du eta, zoritxarrez, depresioaren sentipen ilunak bere barne muinetan sumatzen ditu. Jakin nahi du zergatik bere lagun minak Ron eta Hermione isil gordeka ibili zaizkion uda osoan eta Sirius bere aita-pontekoak ez dion bidali inolako albisterik.

Bere itxaropen osoa, oporrak amaitu eta Hogwartsko Azti eta Sorgin Eskolarako itzulerara atxikita dago.

Etsipen sentipenak jota aurkitzen delarik, udako gau baten Dementorrek erasotzen dute Harry. Azti gazteak, eskolatik at magia egiteko debekua hautsi eta Expecto Patronum sorginkeriaz Dementorrek suntsitzen ditu, Hogwartsko Azti eta Sorgin Eskolara itzultzeko aukera arrisku bizian jarriz.

J.K. Rowling-ek, aurreko liburuetako dinamika eta estilo bera erabili ditu; hau da, istorioan zehar arazoak planteatu eta aldi berean aztarnak uzten ditu, ondoren guztia elkarrekin kateatuz amaiera borobila eta zorionsua emanez.

Elementu eta estrategia antzerakoak istorio desberdina eta erakargarria eraikitzeko.

Harry Potterren zaleek liburu "erraldoi" hauek jarraitzen dute gustu handiz irakurtzen eta irrikan egongo dira ea noiz Iñaki Mendigurenek euskaratuko duen seigarrena eta, behar bada, hamazazpigarrena, idazleari inspirazioa ez bazaio bukatzen.

Aipagarria, euskararen goxotasuna.

Rowling, J.K

Harry Potter eta herioaren erlikiak

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkar, 2008 (Salamandra)

ISBN 978-84-9783-603-6

Harry Potter saileko zazpigarren eta azken liburua dugu honako hau. Oraingo honetan Harry eta bere lagunak, Ron eta Hermione, ez dira Hogwats azti eta sorgin eskolara bueltatzen, berebiziko betebeharrak dutelako: Voldemorten arima pusketa guztiak topatu eta suntsitu ostean Azti Iluna bera ere akabatzea. Lan hau aurrera eramatea zaila egingo zaie gaiztoak gero eta ugariagoak direlako eta beraien gizarteko alor guztiak bereganatuta dituztelako: eskola, prentsa, ministerioa, ..

Topatu beharreko horkruxei (arima pusketei) liburuaren izenburuan agertzen diren "Herioaren erlikiak" gaineratzen zaie. Hauek topatzea ere derrigorrezkoa jotzen baitute Voldemort hiltzeko aukera izateko.

Horkruxak eta Herioaren Erlikiak topatzen dabiltzala hamaika abentura, estutasun eta ezustekoren aurrean aurkitzen dira.

Liburu honetan Dumbledorek, zuzendaria izandakoak, nahiz eta hilda egon, toki garrantzitsua betetzen du, eta, berarekin batera, Snape maisu ilunak ere bai.

Kontaktaren hariak irakurlea bukaerako "borroka handira" eramaten du, bertan Harry Potter eta bere lagunak Voldemort eta bere jarraitzaileak diren hiljaleekin borrokatuko direlarik.

Liburuaren azken kapitulua egun horretatik 19 urtera bitartean kokatzen da. Azti mundua zeharo aldatuta dago eta agertzen den irudia guztiz desberdina da.

Oso liburu dinamikoa da. Uneoro ari da zerbait gertatzen eta Harryren eta bere lagunak jakin-minak irakurlea hasieratik bukaeraraino intrigarekin mantentzen du. Harrigarria da nolako irtenbide ustekabeak eta gatzdunak erabiltzen dituen idazleak protagonistek bizi dituzten estutasunetatik ateratzeko.

Irakurri bitartean, istorioan murgilduta, beraien munduan dagoen sentsazioa izaten du irakurleak. Pertsonaiekin identifikatzen da eta beraiekin batera beldurrezko, pozezko, tristurazko,.. momentuak bizi ditu.

Zazpigarren liburu honek aurreko guztiak borobiltzen ditu, bertan lotzen eta osatzen bai dira sail guztian han-hemenka utzitako aztarnak eta irakurleak denak kateatu eta istorioa osotasunean ezagutzeko aukera du.

Oso liburu egokia bai gaztetxoek bai helduek irakurtzeko, entretenigarria, originala eta "harrapatzen" duena. Irakurlearen arreta mantentzen du momentu oro, gogoz irakurtzen da ondoren zer gertatuko den esperoan. Itzulpenaren kalitatea ezin hobea. Euskara oso ona, zaindua, zuzena, adierazkorra eta aberatsa.

Stevenson, Robert Louis

Altxor uhartea

Itzultzailea: Maria Garikano

Donostia: Elkar, 2008 (Ateko bandan)

ISBN 978-84-9783-564-0

-klasikoa-

Narratzaileak, Jim Hawkins gazteak, ostatu batean egiten zuen lan bere gurasoekin batera. Egun batean, marinel bat (Billy Bones) iritsi zen hara kutxa bat zeukala, eta gau berean itsasgizon itsu bat ere bai. Gau hartan, Jimen aita eta Bones hil ziren eta, ondoren, Jimek eta bere amak ihes egiten zuten kutxarekin.

Kutxa barruan altxorraren mapa bat zegoena, eta altxorraren bila hasi ziren, hortxe hasi ziren, era berean, Jimen benetako abenturak eta desbenturak: orduantxe hasi zen ezagutzen traizioak eta adiskidetasunak, borrokak eta une goxoak. Baina azkenean Jimek eta bere lagunek altxorra aurkitu zuten eta zorionez bueltatu ziren etxera.

Idazleak narrazio honetan piraten mundua deskribatzen du era oso errealista batean: piratak maltzurak eta krudelak dira, ia betimozkortuta egoten dira; uharte ezezagunak eta paraje exotikoak oso ondo deskribaturik daude. Stevenson pertsonaiak oso gizatiarrak dira, eta badaukate handitasuna, ausardia, bizkortasuna, anbiguotasuna, beldurra, sentiberatasuna... Stevenson hitzetan "Nobela honek giza esperientzia ematen du, zeren eta ametsak eta desirak errealitatearen atalak baitira"

Itzulpena bikaina da. Itzultzaileak euskara oso egokia erabiltzen du: esaldi errazak istorioa ondo jarraitzeko eta, aldi berean, jatorrizko egitura mantenduz eta hizkuntza literarioa eta jaso erabiliz. Une guztietan hitz egokiena erabiliz, itsasoko lanabesak eta piraten tresnerien izenak era errazenean itzulita daude. Gainera egun erabiltzen ez diren terminoak bere azalpenekin agertzen dira.. Esango genuke errespetu handiz tratatu duela obra klasiko handi hau.

Swindells, Robert

Kale gorrian

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Donostia: Elkar, 2005 (Taupadak)

ISBN 978-84-9783-302-8

Kale gorrian bizi da Link, gurasoekin moldatu ezinik etxetik joan beharra duenetik. Hamasei urteko protagonista hau Londreseko kaleetan zehar dabil, nora ezean, izuak eta hotzak kizkurtuta. Linkek zailtasun askori egin beharko die aurre ez baita erraza kaleko bizitza, jateko zerbituak eta lotarako tokia aurkitzea. Egun bakoitza biziraupenerako borroka latza bihurtuko da.

Aldi berean, Shelter, Britaniar soldadu beteranoa, Londreseko kaleak garbitu nahian dabil eta eskale etxegabe edo "homeless"-en arazorekin bukatzeko baditu planak.

Robert Swindells britaniar idazleak Carnegie Medal saria jaso zuen liburu honekin.

Idazleak hiru gau egin zituen Londreseko kaleetan eskale moduan protagonistaren esperientzia bere azalean bizitzeko eta jakinaren gainean esperientziaz idazteko.

Liburua bi protagonisten egunkaria balitz bezala dago idatzita, eguneroko gertakizunak, desioak, pentsamenduak bertan irudikatuz. Pertsonai bakoitzari dagokion zatia ondo bereiztua ageri da, tipografia desberdina erabiliz.

Liburua ondo idatzita dago, erraza eta arina, gazteek gustura irakurriko dituzte Link-en abenturak Londreseko kaleetan eta eskaleen bizitzan sakontzeko aukera paregabea izango dute.

Baina gazteek ez ezik, helduek ere gustura irakur dezaketen liburu baten aurrean gaude, interesgarria oso, eskale etxegabeen bizimodu gordina ezagutzeko aukera aproposa, finean.

Tolkien, J. R. R

Hobbita edo joan-etorri bat

Itzultzaileak: Sergio Ibarrola eta Xabier Olarra

Iruñea: Igel, 2008 (Mintaka)

ISBN 978-84-87484-87-2

-klasikoa- (1937)

Narrazioa Hobitten herriaren deskribapenarekin hasten da: etxebizitzak, bizimodua, ohiturak, familiak eta inguruko paisaia guztiak zehatz deskribatuta daude. Momentu batean, Gandalf agertzen da Bilbao Bolsonen etxe aurrean. Eta hemendik aurrera Hobit honen bizitza zeharo aldatuko da: bizi lasaia eta monotonoa abenturazko bizi arriskutsua bihurtuko da Herensugearen altxor bila bidean eta etxerako buelta bidean.

Hobit fantasiazko narrazioa da, ipuin klasikoaren egituran idatzia eta episodioka kontatua.

Tolkien-ek bere haurrentzat idatzi zuen istorio fantastiko hau, lotara joan aurretik kontatzeko ipuin moduan eta hasieratik bukaeraraino istorio asmatua da, bertako testuinguru, gertaera eta pertsonai guztiak fantasiakoak direlarik.

Tolkienek sortu du mundu mitikoa eta izaki bereziak, unibertsalak bihurtu direnak, literatura klasikoan betirako daudenak: Trollak, Goblinak, wargoak, Gollum, Smaug dragoia ipotxen laguntzaileak eta kankak eta asmakizunak suspensea mantentzeko eta narrazioa luzatzeko txertatu zituenak.

Kritiko batzuek esan dute Tolkienek berak izandako esperientzien lehengo gerra mundialean alegoriak direla, adibidez, Bost gudarosteen bataila.

Dena den, garai hartan izugarrizko arrakasta izan zuen aipatutako istorioak eta, hori ikusita, garaiko editoreek eskatu zioten Tolkieni istorio fantastikoaren jarraipena egin zezan.

Horrenbestez, etxerako asmatu zuen materiala oinarritzat hartuta, jarraipena eman zion eta haren obra nagusia idatzi: Eratzunaren jauna trilogía

Fantasiako liburu klasiko bat da eta obra klasiko handi baten aurrekaria.

Valentine, Jenny

Violet parken bidetik

Itultzailea: Iñigo Errasti

Irun: Alberdania, 2008 (Ostiral)

ISBN 978-84-9868-034-8

Lukas 16 urteko gaztea, ostiraleko gaupasa egin ondoren, taxi baten bila doa eta taxi-geltokian, bulegoko apal batean errautskutxa bat ikusi ondoren, indar erakargarri bat sentitu du. Hor hasi dira Lukasen abenturak, buruhaustek eta hausnarketak.

Narrazioa lehenengo pertsonan idatzita dago, eta, Violet Parkeren errautskutxa aitzakiatzat hartuta, protagonistak bidaia ezezaguna hasi du heldutasunerantz.

Violet Park ardatza bihurtzen da istorio honetan, hari esker mutilak lotzen dituelako hainbat esperientzia eta galdera, besteak beste mutilaren bizitzan ardatza dena, alegia, aitarekiko galderak: non dago aita, zergatik joan zen, etab.

Familia agertzen zaigu ondo deskribatua: aitaita, amama, orain dela urte batzuk desagertutako aita, ama, arreba, anaia txikia eta Bob, aitaren eta amaren lagun mina, eta, horiekin batera, Lukasen bizimodua eta harremanak.

Hainbat gai aurkitzen ditugu nobela honetan: familiarteko harremanak, aitaren hutsunearen eraginak, maitasuna, adiskidetasuna, zahartzarua, nerabeen mundu konplexua, heriotza, heldutasunaren bide gogorrak, besteak beste.

Narrazioa oso ondo irakurtzen da eta hizkuntza erraza izan arren, idazleak era askotako errekurtsioak erabiltzen ditu Lukasen mundua adierazteko: pertsonaien deskribapenak zehatzak eta aberatsak dira, arazoaren eta haien konponketen zerrenda posibleak, gai garrantzitsuetan erabakiak hartzeko Lukasek egiten dituelako aldeko eta kontrako zerrendak.

Elkarrizketak oso ederrak dira, bizirik dauden pertsonekin eta bai hildakoekin edota desagertuekin egindakoak ere.

Esango genuke obra nahiko konplexua dela, gizakiaren konplexutasunaren adierazlea baina interesgarria, irakurlearen arreta lortzen duena eta ulerterraza.

2007. urtean Guardian Children's Fiction saria irabazi zuen idazleak lan honekin.

16 urtetik Aurrera

Frank, Anne

Anne Franken egunkaria

Itzultzailea: Josu Zabaleta

Donostia: Erein, 2004 (Oroimenean barrena)

ISBN 84-9746-219-X

Oraingo honetan, Josu Zabaletaren eskutik, Anne Franken egunkariaren bertsioa osoa irakurtzeko aukera daukagu. Eta, nahiz eta testua oso ezaguna izan, behin eta berriz harritu egiten gaitu 14 urteko neska gazte honek: idazteko era aberatsa, sentimenduen konplexutasuna, errealitatearekiko behaketa eta hausnarketa, barne prozesuak, etab.

Annek alegiazko adiskide bati idazten dizkion gutunek parada ematen diote Amsterdamen bizi den marko estu eta ezkutua deskribatzeko eta, aldi berean, bide zabala eskaintzen diote bere barne mundua adierazteko eta garatzeko.

Anne Franken egunkariak, hainbat ezaugarritan, gogora ekartzen dizkigu Ety Hillesum-en (1943an 29 urteekin Auschwitz-en hil zen) idazki autobiografiko bikainak (1941-1943 bitartekoak): juduen egoera larriak, nazismoaren erruki falta, emakumeen indarra, elkarbizitza-arazoak, sufritzen dutenen begiradaren zorrotasuna, bihotzaren handitasuna, gizakien inteligentzia, artearen eta izpirituaren tokia, etab. Bi emakume indartsu garai larri eta neketsuetan.

Euskarazko testua oso ondo irakurtzen da, atseginez. Lan ona iruditzen zaigu itzultzaileak egin duena.

Oso ezaguna den gaztelerazko edizio batekin konparatuz, pare bat ohar aipatu nahi dugu.

Alde batetik, euskarazko bertsioan, ez dakigu zergatik, zatiren bat falta da (ikus 1942ko azaroak 7). Eta bestetik, sarreraren gainean aipamen bat: euskarazko edizioaren sinadurarik gabeko sarrerak hiru atal dauzka. Lehenak itzultzailearen sarrera pertsonala dirudi; bigarrenak egunkariaren gainean hainbat datu ematen ditu; eta hirugarrena, testua eta argitalpena, aipatutako edizioaren sarreraren itzulpen literala dena. Ez gaitu harritzen klasiko baten sarreran beste testu batzuk erabiltzeak, baina irakurleok, oinarrizko tratu moduan, iturrien aipamena eskatzen dugu.

Hori esanda, oso liburu interesgarria da irakurle gazteentzat eta hunkigarria denontzat. Liburu aproposa giza barneak mugitzeko eta memoria historikoa eta eguneratua lantzeko.

Larreategui, Yolanda

Zaharrak berri, euriak

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Bilbao: Gero-Mensajero, 2006

ISBN 84-271-2757-X

Gabonetan Rosariok azaleak erosten ditu, azalea eder "orri berde ilunak, osasuntsuak, loraburu askorekin eta zuriak", hamar azalea neguaren hotza eta bakardadea leuntzeko beren sosegu eta argitasunarekin.

Rosario emakume nagusia da, bakarrik bizi da. Senarra, alzheimerraz jota egotetxean dago eta alabarekin telefonoz duen harremana oso hotza da. Irakurleak ez dio sinpatia handirik telefonoren beste aldian dagoen alaba horri. Aldiz, irakurlea hunkitzen da pertsonai nagusiarekin.

Narrazioak kontatzen du Rosarioren Gabon egunaren eguerdiko tartea eta murgiltzen gaitu haren historian eta bizipen sakonenetan. Eguneroko detaile txikien bitartez, ezagutzen ditugu emakumearen egoera fisikoa, psikologikoa, bakardadea, beldurrak, plazer txikiak, oroimenak, etab.

Egun horretan, bi dei jasotzen ditu emakumeak, bat, alabarena, bestea, egotetxetik: "Esteban Busturia eguerdian zendu da". Non daude gabonetako alde goxoak?

Zahartzaroa, ez gorputzik, ez gizonik, ez pasiorik. Bakardadea eta etorkizunarekiko errespetua. Bakarrik, ginebra edalontzia eskuan, azaleen zain, bakardadea eta grisa koloretzen duten lore zuriak.

Narrazioa hunkigarri eta sakon hau album formatuan editatua dago Odriozolaren ilustrazioekin. Irakurleak lehenengo bistan pentsa dezake haurrentzat dela, baina hura irakurtzeko eta edukia barneratzeko oinarrizko heldutasuna behar du

Lowry, Lois

Oroimen-emailea

Itzultzailea: Kerejeta, Mari Jose

Bilbao: Aizkorri, 2001 (Topaleku)

Jonas hamabi urte betetzera doa eta bere komunitatean ospatuko den zeremonian adin hori daukatenei jakinaraziko zaie bere bizitzako lanbidea zein izango den. Horretarako prestatu beharko du hurrengo urteetan. Komunitatean agureen batzarrak hartzen ditu erabaki garrantzitsuenak, eta, indarrean dauden araei eta antolakuntzari esker, Jonasen gizartean ez dago gatazkarik, pobreziarik, minik... ez maitasun sakonik ez eta sexu harremanik ere. Gizarte perfektu bat dirudi, partaideei egonezin guztiak ekiditeko eraturia. Baina gero eta susmo handiagoa daukagu gizakiaren alderdi garrantzitsuenetarikoak baztertu direla bidean. Alderdi horiek kudeatzen ditu oroimen emaileak, bere gogoan orain debekatuta dauden ezaguerak eta sentimenduak gordetzen dituena.

Jonasi berari suertatzen zaio lanbide hori ikastea; prestakuntzari esker, bere gizartearen antolakuntza guztiaren esanahiaz jabetuko da; sekretu asko eta beste mundu ikuskera bat ezagutuko ditu. Azkenik erabaki zail eta inportante batzuk hartu behar izango ditu.

Narrazioa gustura irakurtzen da; interesa pizten eta mantentzen du orrietan zehar. Irakurlea joaten da pixkanaka komunitatearen ezaugarriak ezagutzen — batez ere bizitza familiarra eta egunerokotasuna— Jonasen gogoeta eta ekintzei esker. Protagonistaren kezkek eta ardura etikoek konektatuko dute, batik bat, irakurle nerabearekin (Jonas bezala, gizarte batean helduak bilakatzen ari diren pertsonekin): gizabanakoaren eta gizartearen balioak hausnargai agertzen dira. Narrazioaren lehenengo parte (lanbidea emateko zeremonia gertatu arte) da pisu gehien daukana, gizarte bere alderdietan erakusten diguna; bukaera — irekia eta happy end erosorik gabe— bizkor dator, espero daitekeen azalpenik gabe agian. Edozein kasutan, ondo idatzitako istorioa da, erraz jarraitzen da eta elkarrizketa ugaritasunak are gehiago arintzen du irakurketa. Egokia, beraz, irakurle gaztearentzat.

Meabe, Miren Agur

Zer da, ba, maitasuna?

Ilustratzailea: Concetta Probanza

Donostia: Elkar, 2008

ISBN 978-84-9783-629-6

Liburuak bi atal dauzka: zabaltzen badugu liburua alde batetik, neska gazte baten narrazioa aurkituko dugu; berriz, bestaldetik irekitzen baldin badugu, mutil batena. Neskak mutilari Mister X deitzen dio eta mutilak Berezi neskari. Biak, isilpean, maiteminduta daude, isileko pasio bideak eraikitzen eta sufritzen.

Irakurleak, neskaren narrazioarekin hasten bada, neskaren burutazio, sentimendu, larritasun, ikarak, poemak, ... jarraituko ditu eta harekin bat egin. Gero, liburuari buelta eman eta narrazioak mutilaren barnean sartzeko aukera ematen dio irakurleari eta haren gorabeherak eta hausnarketak jarraitzen ditu. Narrazio biak paraleloak dira: errealitate bat, bi irakurketa.

Oso ondo idatzitako liburua da: narrazio poetikoa, hizkuntza jaso eta aberatsean idatzita eta hainbat poema tartekatuta, protagonisten bihotzaren adierazle moduan.

Narrazio goxoa, poetikoa, maitagarria eta maitalea, non ondo deskribatuta agertzen diren lehenengo maitasunaren sintomak, emozioak, beldurrak eta ametsak.

Gazte batzuek gustura irakurriko dute liburu hau, eta heldu batzuek gozatu ere bai, lehenengo maitasunaren usaimenarekin.

Morpurgo, Michael

Peaceful soldadua

Itzultzailea: Mirentxu Larrañaga Sueskun

Irun: Alberdania, 2006

ISBN 84-96643-17-4

Tommy Peaceful izeneko mutil gaztea dugu narratzailea. "Baketsu, bakezale" esan nahi du Peaceful abizen ingelesak. Charlie anaia egunsentian exekutatu dute, eta gau luze horretan Tommo anai gazteak Ingalaterran bizi izandako haurtzaroa eta fronteko istorioak kontatuko dizkigu. Nekazaritza giroko herrixka batean kokaturik, hainbat pertsonaia azaltzen dira Tommoren oroitzapenetan: Big Joe mutiko atzeratua (elizako kanpandorrea izkutatzen dena zerutik gertuago izateko), ama (maitasunaren isla), aitaren heriotza (Tommok errudun ikusten du bere burua), Molly auzoko neskatila (mutiko guztiak berarekin maiteminduta dauzka), koronela, ...Gertakari gozo eta mingotsak, alaiak eta tristeak, baina betiere Charlie anaiaren babesean. Lehen Mundu Gerrak pertsonaia hauen patua zapuztu arte. Tommo friontera doa, anaiaren atzetik, eta, han ere, banaezinak; Charlie armadako nagusien aginduari uko egingo dio, anaia gaztea zaintzeagatik. Goizeko seiak dira, eta Peaceful soldadua fusilatuko dute; koldarkeria, ihes egitea leporatzen diote.

Anaitasun istorio hunkigarri honen bidez, idazleak Lehen Mundu Gerran izandako gertakizun ezezagun bat salatu nahi du: 1914tik 1918ra artean, 290 soldadu inguru hil zituzten Britainia Handiko eta Commonwealth erkidegoko armadetako fusilatze-pelotoiek. Gerraepaiketa laburrak izan ziren, salatuek ez zuten izan gehienetan nork ordezkatu ere. Gaurdaino, ez du inork sekula ofizialki aitortu gazte haiek pairatu zuten bidegabekeria.

Morpurgok Tommo gaztearen ikuspegitik kontatzen digu injustizia; eta zirrara berezia eragiten du gazte bat narratzaile jartzeak, gerra helduen kontua baita. Gerrak ez du barkatzen, eta arrastoa utziko du pixkanaka; gazteek berehala heldu beharko dute, ezinbestean, aurrera egiten ikasi beharko dute-eta.

60 urtetik gora ditu Michael Morpurgok, eta nazioarteko gazte literaturan izen handiko idazlea da. Benetako adorea era askotan erakus daitekeela, salaketa, omenaldia eta literatura bildu ditu narrazio honetan. Belaunaldi gazteek gerraren zentzugabekeria ezagutu dezaten.

Zuzenean ingelesetik itzulita (gaztelaraz ez baitago oraindik), euskara aberatsa erabiltzen du Mirentxu Larrañagak, halako liburu eder bati dagokiona.

Emozioz irakurtzen den liburua, gazte zein helduentzat zuzenduta.

Pullman, Philip

Tximeleta tatuajea

Itzultzailea: Koro Navarro

Donostia: Erein, 2003 (Bioleta)

ISBN 84-9746-150-9

“Ekain hasierako gau epel batean (...), ezagutu zuen Chris Marshallek hil behar zuen neska”... irakurlearen arreta bat-batean harrapatzen duen esaldi erabakigarri horrekin ematen dio hasiera nobela honi Philip Pullman idazle ingelesak.

Pullmanek arrakasta handia lortu du mundu osoan bai helduentzat eta bai gazteentzat idatziz, eta trebetasun handia erakutsi du gazteen mundura hurbildu den bakoitzean. Liburu honek misterioa du, arriskua, suspensea... ezinbesteko osagaiak irakurle gaztearen arreta piztu eta eusteko. Horrez gain, Chris eta Jenny gazteen arteko maitasunezko harremana azalduko zaigu, harreman arrunta hasieran, baina tragikoa bilakatuko dena zeloak, gezurrak eta gaizkiulertuak tartekatzen direnean.

Istoria garatu ahala, barruan dauden korapilo guztiak askatuko dira eta orduan bakarrik ulertuko dugu hasierako esaldia. Oxford-en kokatua, Ingalaterrako gazteek bizitzarekiko duten jarrera ezagutuko dugu eta bertan ohikoak diren giza mugimendu batzuen berri ere izango dugu, okupa mugimenduarena kasu.

Erritmo azkarra eta bizia duen nobela, non era askotako gertaerak etengabe gainjartzen diren (tristeak batzuk, krudelak eta bortitzak besteak), aldeztu aurretik ezagutzen dugun bukaerara eramaten gaituztenak erremediorik gabe. Hizkuntza aberatsa Koro Navarrori eskertu behar diogu, azpimarratzeko baita egin duen itzulpen lan ausarta.

Saizarbitoria, Ramon

Kandinskyren tradizioa

Donostia: Erein, 2003 (Bioleta)

ISBN 84-9746-107-X

Hau da Saizarbitoria gazteentzat idatzi duen lehenengo nobela. Kontakizun honetan maitasunaren eta lehen amodioaren gainean neska erromantiko batek dituen gorabeherak kontatzen dizkigu. Antzinako ohitura errusiar batekin hasten da. Errusiar tradizioak dio urtezahar eta urteberriko gau artean neskek kalera irten eta aurkitzen zuten lehendabiziko gizonari izena galdetuz gero, hura bezala deitzen zen batekin ezkonduko zirela.

Protagonistak, Mirenek, bi maitasun istorioren berri emango digu: bata ametsezkoa, bere irudimenean dagoen maitasun istorioa, eta bestea, errealitatezkoa. Bien arteko etengabeko kontrajarpena azalduko da liburuan zehar: fikziozko maitasun istorioa neskarentzat maitasun istorio ideala litzateke: errealitatezkoa, berriz, ez du, saiatu arren, maitasun idealarekin inolako antzik.

Esaterako, Aitorrek gehienetan azaltzen duen umore txarra eta zakarkeria etsigarriak egiten zaizkio.

Idazleak erakusten digu, Aitorren pertsonaia erabilia, mutilak ez direla gai sentimenduak adierazteko. Beraz, identifikaziorako balio dezakee nobela da, eta ez bakarrik neskentzat, mutilek ere nahiko ondo islatuta ikusiko baitute euren burua. Era berean, helduek irakurtzeko ere oso liburu interesgarria da, heziketaren inguruan hainbat zalantza mahaigaineratzen du-eta.

Istoria oso sinesgarria egingo zaio edozein gazteari, paternalismotik at, naturaltasun handiz. Bukaera zoriontsua, bukaera biribila, hasierarekin lotzen da, baina Miren, hasieran eta amaieran ez da berdina izango, esperientziaz sendotuta aterako da eta.

Süskind, Patrick

Sommer jaunaren istorioa

Ilustratzailea: Sempé

Itzultzailea: Miren Lourdes Oñederra

Donostia: Erein, 2007 (Perzebal)

ISBN 978-84-9746-397-3

Protagonista zuhaitzetara igotzen zen garaietara eramaten gaitu ipuin honek, alegia haren haurtzarora. Dagoeneko heldua den mutiko baten ikuspuntutik kontatua dago, eta mutil honen bitartez Sommer jaunaren istorio tristearen berri izango dugu.

Mutikoak haurtzaroko bizipenak kontatzen dizkigu, nolakoa zen bere herria, familia, eskola, baina, batez ere, nolakoa zen Sommer jauna izeneko bizilaguna. Sommer jauna bitxia zen oso, inork ez zekien ezertxo haren inguruan, baina,aldi berean, lurraldeko pertsonaia ezagunena zen. Egunero-egunero ibilaldi amaigabeak egiten zituen, batetik bestera joaten zen, goizean goiz irten eta iluntzera arte ibiliz pasatzen zituen egunak, hilabeteak, urteak...beti horrela, makila eskuan eta motxila soinean zeramatzala.

Sommer jaunak bere misterioa berarekin eramaten du azkeneko orrialdea arte, baina irakurlearen barneak nahasten ditu, hausnarketa eragiten baitu.

Bizitzaren metafora baten aurrean gaude, non bakardadea, etsipena eta zentzugabekeria begi-bistan dauden. Hala ere, tonu pesimistahau ez da nagusi liburuan, eta umoreak ere badu lekua mutikoaren bizipenetan, Funkel andereñoaren piano klaseetako pasartea, adibidez, ahaztezina da. Sempe ilustratzaile handiaren marrazkiak ere aipatu behar ditugu, kolore goxoez osatutako akuarela alaiak oso esanguratsuak baitira.

Dena den, Süskindek "El perfume" obraren giza ikuspegi ilunarekin jarraitzen du, eta nahiz eta askoz arinagoa izan, bizitzaren gordintasunarekin harritu eta hunkitzen gaitu etengabe.

Euskaraz orain berreskuratu den liburu honekin (jatorrizko argitalpena 1991. urtekoa da) irakurle gazteak gozatuko du, eta, helduak, are gehiago.

Mila gau eta bat gehiago

Ilustratzailea: García Lema, Álvaro

Egokitzaila: Zubizarreta, Patxi

Donostia, Erein, 2002 (Gure klasikoak; 6)

ISBN: 84-9746-071-5

- Klasikoa-

Xerazade dugu liburu honetako protagonista nagusia. Eta jatorrizko klasikoan legez, Xariar erregeari ipuin bat kontatzen dio gauero, gizonari jakin-mina piztu eta hurrengo gaua pasa arte bizirik jarraitzeko. Ahozko tradizioan oinarritutako kontakizun horiek ikerturik, Patxi Zubizarretak ipuinen aukeraketa bat egin du eta hamazortzi ipuin egokitu ditu. Bertan ipuin ezagunak ditugu, hala nola Sinbad marinela, Aladin eta argiontzi miresgarria, Ali Baba eta berrogei lapurrak...

Goraipatzekoa da Zubizarretak egin duen lana, idazle ordiziarrek sakonki ezagutzen baititu Ekialde Hurbileko istorioak; izan ere, alde aurretik eginak baitzituen Pamiela argitaletxearentzat Aladin, Ali baba eta Sinbad marinelaren abenturen egokitzapen lanak. Kasu honetan, "Gure Klasikoak" bilduman eginiko moldaketa hau gazteei zuzendutako lana da eta, abentura ez ezik, beste gai batzuk ere jorratzen dira: garrantzi handia dute amodioak eta erotismoak, besteak beste. Aipatu behar da, bertan agertzen den erotismoa xumea eta gardena dela, kontu handiz idatzitakoa, Xerazade beraren istorioa bezala.

Liburuaren amaieran bibliografia dakar, egilea zein liburutan oinarritu den jakiteko zehatz-mehatz. Zerrenda horretan Borges, Mahfuz, Txiliku, Alderson, Galland eta abarren izenak agertzen dira.

Ilustrazioak, Alvaro García Lemarenak, zuri beltzean eginak daude eta testuarekin bat datoz, ipuin klasikoetako marrazkiak diruditelako. Liburu hau klasikoak maite edo ikasi nahi dituztenentzat da batik bat, eta bilduma hau gazteentzat pentsatuta egon arren, edozein adineko pertsonak irakur dezake, ipuin hauek denbora eta adin gabekoak direlako.

Zerrenda berezia

Ariztia, Mayi

Amattoren uzta: Ipar Euskal Herriko ipuinak

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga

Egokitzaila: Patxi Zubizarreta

Irun: Igela; Donostia: Erein; Iruñea: Alberdania,
2012 (Klis-Klasikoak)

ISBN: 978-84-9746-781-0

Herri ipuinen bilduma baten aurrean gaude, Mayi Ariztiak 1934. urtean Iparraldean osatua. Jatorrizko bertsioa elebiduna zen, hots euskeraz eta frantsesez argitaratua izan zen.

Patxi Zubizarretak egokitu duen edizio honetan beste molde batera ekarri ditu aipatu ipuinak oso erraz irakurri daitezkeenak. Jasotako ipuin asko, ahozko literatura eta herri ipuinak, haurren mundura ekarriak dira eta ezagunak egingo zaizkio irakurleari, beste batzuk J.M. Barandiaranek edo R.M. Azkuek beste aldaera batzuekin jasotakoen berdinak dira, ordea.

Maite Gurrutxagak oso apropos jantzi ditu marrazkiz ipuin zahar hauek eta Klik Klasikoak bildumak beste Euskal Herriko literaturaren altxor bat berreskuratzen egin duen ahalegina goraiatu baino ezin dugu egin.

Collodi, Carlo

Pinotxoren abenturak

Itzultzaileak: euskarazko itzulpena: Koldo Biguri eta Garazi

Joana Goikoetxea

Donostia: Alberdania; Erein, Igela, 2011

ISBN: 978-84-9383-688-7

Le aventure di Pinocchio. Storia di un burattino istorioa Florentziako egunkari batean agertu zen lehenengo aldiz 1882 eta 1883artean, Enrico Mazzanti-k ilustratua.

Collodik hasieran ez zuen asmorik haurrentzako istoriorik idazteko, baina kapituluka argitaratu zen istorioari editoreak berak eman zion haurrentzako titulua eta behartu autorea amaiera zoriontsua ematen. Beraz, liburua, editoreak eta irakurleak horrela exijituta, aldatuta dauka hasierako amaiera, eta istorioa luzatuta. Geroztik, liburua hogeita hamasei atalezosatu zen. Autoreak, istorio honen bitartez, pertsonen formazioari buruzko alegoria margotzen du: gizakiaren funtsak egian eta bertutean oinarritzen dira.

Gepetto arotz zaharrak desio bakarra dauka: seme bat izatea. Eta egun batean egur puzka batetik sortzen du txotxongilo bat, mutiko baten antza duena.

Hortik aurrera, Pinotxok hainbat pertsonaia izango du lagun istorian zehar: kilkerra, karramarroa, azeria, katua, atuna, Maitagarri ona, ... Mutiko bihurtu arte pasadizo asko bizi behar ditu Pinotxok, abentura, larritasuna, jarrera desegokia, agian gizakiaren bizitzaren isla.

Pinotxoren bertsio osoa irakurtzea, horrelako edizio dotorean eta zainduan eta hain egoki ilustratutako liburuan, suerte handia da gaurko irakurlearentzat.

Kantu unibertsala ontasunaren bertuteari, zentzu klasikoan eta bizitza harmonikoari, amaierako esaldi batek ongi adierazten duen moduan: “ Mutiko gaiztoak on bihurtzen direnean, gauza guztiei itxura berri eta irribarretsua emateko bertutea izaten dute, baita beren familiei ere” (168 or.)

Nahiz eta egungo paradigmatik eta moral hezkuntza oso desberdinak izan, XIX. mendeko obra hau harrigarria eta imajinazioz betea da eta istorio unibertsala, klasikoa.

Defoe, Daniel

Robinson Crusoe

Itzultzailea: Aintzane Ibarzabal

Donostia: Elkar, 2012 (Urrezko biblioteka)

ISBN: 978-84-15337-78-2

Robinson Crusoe nobela klasikoa, Defoeren libururik ospetsuena, 1719an argitaratu zen. Itsasoan galdu eta 28 urtez tropikoko irla batean bizi izan zen gizon ingeles baten autobiografia fiktizioa da. Egilea, ziurrenik, itsasoan galdutako bi gizonen istorio liluragarri eta benetakoetan oinarritu zen: batetik, hainbat urtez irla batean galduta bizi izan zen Alexander Selkirk marinel eskoziarraren bizitzan eta, bestetik, Pedro Serranorenean. Azken hori ur gezarik gabeko irla batean bizi izan zen beste gizon batekin. Istorio horiek abiapuntu hartuta, Defoek abenturanobela izugarria eraiki zuen, kolonialismo puri-purian zegoen garaian, eta baliatzen du goresteko gizakiak arazoak gainditzeko duen ahalmena, bai eta ahalmen morala ere.

Robinson Crusoe, literaturaren historian izan den mito erakargarrienetako bat, hondoratze baten ondoren bizirik ateratzen den bakarra da, bakarrik bizi da irla batean, eta aurre egiten die naturaren indarrei, irudimena eta hondoratzetik libratu dituen tresnak baliatuta. Irlako biztanleek preso daukaten gizon bat askatu zuen une beretik, lagun bat eskuratu zuen, lagun banaezina: Ostiral.

Lan honek goraiatzen du gizakiak duen ahalmena edozein toki eta egoera bihurtzeko bizitzeko aproposa. Argien mendetik sortzen den gizaki berriaren goraiapmena da, azken finean. Gaur egungo irakurleak aukera izan du istorioa kontatzen duten hainbat film ikusteko, batzuk jatorrizko nobelari hertsiki lotuak eta beste batzuk desberdinagoak, eta, nahiz eta nobela irakurri gabe izan, argudioa ezaguna du.

Itzultzaileak lan ona egin du, idazlearen hizkuntzaren sinpletasuna eta erabiltzen dituen metaforak errespetatu baititu. Irakurketa oso erraza eta atsegina da; hala ere, Robinsonen burutazio filosofiko batzuk zailak egin dakizkioke irakurle gazteari.

Diaz, Maria Julia

Hegaztiak

Ilustratzailea: David Daniel Álvarez

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Iruñea: Pamiela & Pontevedra: Kalandraka, 2012

ISBN: 978-84-7681-744-4

Album Irudidunentzako 2012ko Nazioarteko Compostela Saria irabazi du maisulan eder honek. Gizatartutako mota ezberdinetako txoriak dira istorio honen protagonistak; zuri-beltzean eta zehaztasun handiz eginiko irudi bikainak dira. Estetika honek, erromantizismoz beteriko marrazkietan oinarrituta, poetikotasun puntua emango dio kontakizunari. Testu gutxiko liburua izanda bi orrialdetan margoturiko irudi panoramikoak guztiz betetzen dute adierazi nahi duten guztia.

Gizateriaren historiari buruzko metafora baten aurrean gaude, nola gizakiak behinik behin jakituria, aurrerakuntza eta ongizatea lortu nahi dituen, baina ahalegin horretan oinarrizko helburuak ahaztu egingo ditu eta indarkeria, bortizkeria eta ahulen zapalkuntza irabaziko dute. Hala ere, paradoxa honen barruan, argi izpiak ikusten dira eta itxaropenerako bide bat zabalduko zaigu azkenean.

Irakur maila desberdinak dituen album baten aurrean gaude. Haurrak gozatuko dute xehetasunez beteriko marrazki ederrei begira, eta, aldi berean, helduek hausnarketarako gai baten aurrean aurkituko dira. Beraz, irakurri, ikusi, hausnartu eta goxatu.

Durruty, Begoña

Mitxitxi marriau

Donostia: Erein, 2011

ISBN 978-84-9746-681-3

Ahozko tradizioan oinarritzen diren liburuak, orohar, leunduak, goxatuak, iristen zaizkigu esku artera. Kasu honetan, ordea, Begoña Durrutyren eskutik, modu zuzenean, inolako iragazki edo goxotasun zantzurik gabe iritsi zaigu tradizio unibertsalean barreiatuak dagoen istorio hau. Istorioa ezaguna baita, hainbat bazterretan aldaera desberdinetak dituen: amak semea hil zueneko, aitak jan eta arreba berpiztu.

Ildo horretatik, irakurketa berezia eskatzen du istorioak, ahazko tradizioetik eratorritakoa izaki, mito baten oihartzuna da, Jose Mari Satrustegik dioen bezala: “haurra gaztarora aldatzen deneko adierazpen ederraren mezua darama haurtxoaren heriotzak”. Berezitasunak berezitasun, interesgarria deritzogu euskal ahazko tradizioan oinarritutako tankera honetako liburuak argitara emateari, ipuinaren mamia errespetatuz, aberastu egiten baitute bazterretan ezkutaturik dauden kontakizun hauek gure tradizioaren altxorra.

Etxaniz Erle, Xabier

Puntan punta bat. (Haur Folklorearen bilduma)

Ilustratzailea: Luis Martorell Pérez

Iruñea: Pamiela, 2009

ISBN 978-84-7681-596-0

Puntan punta bat, zer da, zer ote da? Jostorratza! Bada, bai; baina, kasu honetan ez, zeren kasu honetan liburu baten izenburua da: Puntan punta bat, haur folklorearen bilduma interesgarria, zaindua bezain eraberritua; izan ere, lehen aldiz, 1986an argitaratu zen Xabier Etxanizen eskutik, Haur folklorearen bilduma izenburupean. Hona Xabier Etxanizek lehen edizio hartako hitzaurrean zeritzona: “Bi izan dira Haur Folklorearen bilduma hau egitera bultzatu nauten arrazoiak: alde batetik, euskal Folklorearen garrantzia eta aberastasuna; eta bestetik, honelako baten beharra”. Eta esan dezakegu, zinez, urte haietan denetan liburuak bete zuen zuloa handia izan zela (Urte haietan ez ezik, gaur

egunean ere, oraindik orain, ikastetxeetan betetzen duen papera ezinbestekoa delako). Halere, hogeitaz urte ez direnez alferrik pasa, eraberritzeko aldia ere iritsi zaio liburuari. Hona Xabier Etxanizen hitzak: “Hogeitaz urte baino gehiago joan dira liburu hau lehenbiziko aldiz plazaratu zenetik, eta hainbat berrinprimaketa izan ondoren, edizio berria egiteko beharra ikusi dugu. Izan ere, hogeitaz urte hauetan gure hizkuntza eta gure kulturaren egoera nabarmen aldatu da”. Dena den, nahiz eta gure kulturaren egoera nabarmen aldatu eta behar berriak sortu, liburuari ez zaio gaurkotasunik falta. Inondik ere ez! Alderantziz baizik! Egia da, urte hauetan denetan argitaratu direla han eta hemen liburu berriak, haur folkloreak gaia ukitu izan dutenak; alabaina, gure ustez, liburu honetan bezala hainbeste atal agertzen duen folklore bildumarik ez dago merkatuan. Hona, esaterako, liburuan aurki ditzakegun atalak: zotz egiteko formulak, aho-korapiloak, jolasak, poemak, kanta, lo-kanta, igarkizunak, haur hizkera, gabon kanta, ipuin hasierak, ipuin bukaerak, esaera zaharrak (era guztietakoak: zenbakienak, eguraldiarenak, umorezkoak, abere eta izate bizienak, gorputz atalenak, sukaldekoak, herrietakoak ...).

Beraz, guztiz gomendatzen dugu liburua irakasleei (haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan dabilzaneiei, bereziki), gurasoei eta oro har haur folkloreakin interesaturik dagoen edonori. Zeren, urte hauetan guztietan, gure haur folkloreak oinarritzeko erreferentzia ezinbestekoa izan bada liburua, etorkizunean ere, halaxe izaten segitzea espero dugu.

Fisher, Robert

Armadura herdoilduko zalduna

Itzultzailea: Usoa Wyssenbach Ibarra

Iruñea: Igela, 2011 (Bidelagun)

ISBN 978-84-87484-97-1

Bazen behin lurralde urrun batean, zintzoa eta maitekorra zen zaldun bat. Zaldun guztiek ohi zuten bezala, etsai gaizto eta zitalen aurka borrokatzen zen, dragoiak hiltzen zituen eta “damatxo politak” erreskatatzen zituen. Baina egun batean, bere armadura kentzera zihoala, konturatu zen gorputzean itsatsita zuela eta ezin zuela kendu.

Etsita, emaztea eta semea euren gaztelu dotorean utzita, konponbide baten bila abiatu zen. Horrela, bidaia luze eta aldapatsu bati ekin dio, Merlin magoaren aholkuak entzun ondoren: isiltasunaren gaztelua, jakinduriaren gaztelua eta ausardiaren gaztelua.

Geldiune bakoitzean, hausnartze-lan sakon baten ondoren, armaduraren barruan preso gelditu den zaldun honek, bere ni-ari entzuten ikasi du, bere burua hobeto ezagutzeko. Gainera, ezintasun emozionalak eta besteengandik aldentzen dituen maskara eta harresiak desezteko saioak egin ditu. Eta, azkenik, bere bizitzaren zentzua aurkitu du. Aurkikuntza bakoitzarekin armaduraren zati bat desegin da, benetako persona agerian gelditu arte.

Zaldunaren bidaia gure bidaia propioa islatzen du: itxaropena/etsipena, fedea/desilusioa, barrea/malkoak.

Bestalde, elezaharren itxura izan arren (protagonista zalduna, Merlin magoa...) gure garaikotzat hartu ditzakegu bertan deskribatzen diren arazoak.

Robert Fisher-en liburu honetan, modu argian eta dinamikoan, zoriontsu izateko klabeak agerian uzten zaizkigu, geure burua maitatzen eta besteak aintzat hartzen ikastea.

Usoa Wyssenbach Ibarrek egindako euskal itzulpenak ezin hobeto jasotzen ditu idazleak erabilitako umore keinuak zein literatura baliabideak.

Igerabide, Juan kruz

Ur euriaren liburua

Ilustratzailea: Elena Odriozola

Berriozar: Denonartean, 2014

ISBN 978-84-15756-48-4

Elkarlanean egindako proiektu berezi honek hiru egile nagusi ditu: testua Juan Kruz Igerabide olerkariak osatu du; ilustrazioak, Elena Odriozolak, eta musika, berriz, Oihane Igerabidek. Hala ere, beste hainbat parte-hartzaile ere aurkituko ditugu, hala nola testuak errezitatzen edo abestien koruetan.

Argitalpen hau pentsatua dago irakurtzeko, entzuteko eta jolasteko. Kartoizko kutxa baten barruan aurkituko ditugu liburu bat, disko bat, irudi batzuk eta jolaserako gonbitak dituen liburuxka bat.

Liburuan zenbait ipuin eta poema batzen dira, eta diskoan, berriz, testu horiek, errezitatuta, eta abesti batzuk. Horrez gain, paperezko eta plastikozko fitxa batzuk ere badaude, haien artean konbinazioak egin eta euriarekin jolasteko. Euria baita, hain zuzen, proiektu honen gai nagusia, egileek diotenez txikitako euri-jolasen oroitzapenetik jaio baitzen liburu hau egiteko ideia.

Liburuxkan, berriz, familian, ikasgelan eta liburutegian gauzatzeko jarduera batzuk proposatzen dira. Horretarako, bitartekarien lana lagungarri izango da material horri guztiorri forma emateko. Norberaren adinaren eta irakurketa-abiaduraren arabera, era ezberdinean murgilduko gara liburuan: irakurriz, entzunez, jolastuz edota hiru gauzak aldi berean eginez.

Proposamen ausarta eta originala, bai forman, bai edukian. Material bitxia, adin guztietarako aproposa.

Juventeny, Raimon

Ibiltzaile onaren eskuliburua : deskribapena hogeitaurratsetan

Itzultzailea: Jose Angel Irigaray

Iruñea: Pamiela, 2014

ISBN 978-84-7681-841-1

Ibiltzearen magia

Ibiltzea omen da botikarik onena gizakiarentzat. Halaxe zioen Hipokratesek, medikuntza modernoaren aitak, orain dela mende asko. Baina asko aldatu dira gauzak harrezkero, eta pazientziarik gabeko garai hauetan uko

egin diogu soseguz ibiltzeari. Ibili, ibiltzen gara, baina ez era egokian: korrika, amorratuta, neurgailuak erabiliz, zenbat urrats egin hainbat kaloria erre, beti estrespean, amaigabeko lehia batean.

Raimon Juventenyk, liburu honetan, plazer hutsagatik ibiltzea proposatzen digu. Irriñoz bizitzea, naturari begiratzea, ingurua entzutea, senak eta zentzumenak suspertzea, pausatzea, pentsatzea... Ibiltzaile ona gogoak ematen dionean joaten da paseatzera, ez du inoiz presarik; eraman handiko pertsona da, eta hizlari trebea, norbaitekin topo eginez gero. Badaki hodeien formak dastatuz eta txorrotxioen doinuak abestuz atsedean hartzen. Ibiltzaile onak ondo egiten du lo. Ibiltzaile ona etxera itzultzen da gogo duenean.

*Ibiltzaile onaren eskuliburu*a astirotasunaren edo slow movement ekimenaren barruan koka daiteke. Zergatik ez lasaiago bizi? Zertarako podiumak eta konpetentzia? Liburu xume honen bitartez, bai idazleak, bai Carl Honoré-k — hitzaurrearen egileak—, printzipio-adierazpen garbia egiten dute, bizimodu pausatuago baten aldeko aitortza. Ez dago aholkurik, ezta bete beharreko helbururik ere. Hogei urratsetan deskribatzen da, labur eta zehatz, ibiltzearen magia. Era soil eta naturalean, ura bere bidean doan bezala.

Handi den liburu txiki honetan, kolore okreak eta pastel-marrazkiak nagusitzen dira. Testuarekin bat datoz, eta irakurketa osatzen dute. Erraz irakurtzen da, testuak laburrak baitira, zuzenak. Hitz-jolasei eta Jose Angel Irigarayren itzulpenari esker, poesiaz ziprztinduta dago. Egitura biribileko eskuliburu berezi honek ez du adinik: zortzi urtetik hasi eta ehun urte arteko irakurleentzat aproposa da. Aparta iruditzen zaigu bereziki maite duzun horri oparitzeko.

Beraz, hartu patxada, aukeratu leku lasai bat, eta, liburu txiki honek aholkatzen digun eran, egin paseo luze eta atsegin bat. Eta ez ahaztu: ibilian goazelarik, era egokian, erabat bizirik gaude!

Lacombe, Benjamin

Madama Butterfly

Itzultzailea: Uxoia Iñurrieta

Bilbao: Ibaizabal, 2014

ISBN 978-84-8394-844-6

Opera famatu baten egokitzapenarekin datorkigu oraingoan Benjamin Lacombe, Pinkerton kapitainarekin ezkontzen den japoniar gaztearen drama erromantikoarekin. Egilearen aurreko lanetan gertatu bezala, aipatzekoak dira edizioaren berezitasunak; izan ere, indar izugarri betetako margolan koloretsu eta esanguratsuek biribiltzen baitute istorioa. Oraingoan, gainera, arkatzez eta akuarelaz margotutako tolesgarri erraldoi bat zabaltzeko aukera izango dugu, istorioaren tonu lauso eta goibelarekin maisutasunez bat egiten duten marrazkiz hornitua. Estetikoki, gozamen izugarria da liburu honen orrialdeetan murgiltzea.

Ezbairik gabe, maisulan bat da. Zentzumen guztiak edertasunez eta samurtasun bereizgarri bustiko dizkigu aparteko lan honek.

Lacombe, Benjamin; Pérez, Sébastien

Maitagarrien belarrak

Ilustratzailea: Benjamin Lacombe

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola

Bilbao: Ibaizabal, 2011

ISBN 978-84-8394-538-4

XX. mende hasieran Rasputinek berak aginduta, Frantziako lurralde miresgarri batera joan da zientzialari errusiar bat bere ikerketa botanikoak egitera. Misterioz betetako gertaera batek, hala ere, ezusteko amaiera batera eraman du, eta hori guztiori jakingo dugu bere egunerokoa, eskutitzak eta ikerketa lanak irakurrita. Maitagarrien belarrak albuma da, eta ilustratzailea Benjamin Lacombe Paristar ilustratzaile gaztea da. Sebastian Perez idazlearekin sinatu du lan hau eta ez da elkarrekin egiten duten lehenengoa.

Liburu eder baten aurrean gaude. Formatu handiko albuma, non detaile ñimiñoena ere zaindua eta adierazia dagoen. Marrazki ikusgarriak ditu, koloretan, grafikoak eta eskemak txertatuz, pertsonaiak Lacomben hain berezia den estiloan: begi handi eta begirada tristez jantzia. Egia da, bestalde, batzuek dioten bezala, malenkonia kutsu bat dsariela, Tim Burton edo Edgar Allan Poe egileen eragina sumatzen zaiela bere protagonistei. Edizioan ere, orrialde batzuk trokelatuak, landare-orriak tartekatuta edo tipografia desberdinez berezitatutakok konposizio ugari ageri da. Irakurketa mailak ere gainezartzen dira: eskutitzak, egunerokoa, prentsa oharra, ikerlariaren lan koadernoko deskribapenak...

Maitagarrien ipuin bat bai, baina berezia, zoragarria, xeheka irakurtzen joan behar dena. Ñabardura asko ditu, nahasmena, batzuk fantastikoak eta beste batzuk oso errealistak. Emozioa, edertasuna, misterioa eta malenkoniak hartuko zaitu, eta berriz irakurtzeko gogo eman ere.

Landa, Mariasun

Txan fantasma

Ilustratzailea: Jon Zabaleta

Donostia: Elkar, 2011 (Klis-klasikoak)

ISBN 978-84-15337-46-1

Karmentxu autismoa duen neskatxa bat da, eta ondo konpontzen ez den izeba batekin bizi da. Umezurtza da eta bere irudimen emankorrari esker, Txan izeneko fantasma batekin sortuko duen harremana kontatzen da istorio honetan. Izan ere,

Txan arituko da haurren ikuspuntutik, pertsonaiak bizi duen bakardade egoera eta helduekin dituen harreman zailduak kontatzen. Kontakizun gordina baina samur eta goxo kontatuta, amaiera gogor baina itxaropentsua eta gogoetarako bidea ematen duena era berean.

EGAN aldizkarian argitaratu zen urte berean, 1982. urtean, Mariasun Landak Lizardi Saria irabazi zuen obra honekin. Euskal Haur eta Gazte literatura adituek lan garrantzitsutzat kontsideratu izan dute Txan fantasma euskal literaturaren historian.

Izan ere, errealismoa haur literaturan ageri zen lehenetariko obra euskalduna izan baitzen.

Galtzagorri Elkarteak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan sortutako Klis-klasikoak bilduma hau, euskaraz eta haur eta gazte literaturako lan klasikoak aurkeztea du helburu; hots, 4 eta 16 urte bitarteko irakurleei euskarazko literatur obra kanonikoak eskueran jartzea zein beste hizkuntzetako klasikoen itzulpen egokiak eskaintzea du xede nagusi. Txan Fantasma duela 30 urte argitaratu zen eta hizkuntza askotara itzulia izan da. Mariasun Landa idazleak berak hitzaurrean dioen bezala: “bide luzea egin du Txanek farola gainean egonik”. Eta argi dago oraindik ez duela bide hori bukatu.

Lechermeier, Philippe

Zirku magikoa

Ilustratzailea: Sacha Poliakova

Itzultzailea: Usoa Iñurrieta Urmeneta

Euba: Ibaizal, 2012

ISBN: 978-84-8394-668-8

Kalitatezko edizio zainduan dago argitaratua Ibaizabalek aurkezten digun proposamen iradokitzaile eta ausart hau.

Aipatzekoa da kolorearen erabilera egokia, koloretsua hainbat unetan eta iluna bestetan, lortu nahi den eraginaren arabera. Zirkoaren ikuspegi berezia eskaintzen zaigu, magiaz eta liluraz beteriko mundu magikoa: denborarekin jolasten duen akrobata, aireko neskato miragarria, mago traketsak, barrea eragiten duten munstroak eta beste hainbat, baina irakurlea bera murgil dadila eta goza dezala umorez eta magiaz beteriko zirku berezi honetan, ez baitu axolagabe utziko.

Ezusteak eta une harrigarriak orrialdeetan barna etengabe barreiatu daude. Imajinazioa eta lilura askatzeko gonbite paregabea dugu honako hau. Goza dezazuela guk egin dugun bezala.

Lertxundi, Anjel

Batbirulau!

Ilustratzailea: Antton Olariaga

Donostia: Alberdania: Erein; Igela, 2011 (Klis-klasikoak)

ISBN 978-84-9383-687-0

Klis-klas!, eta atea zabaldu da. Galtzagorri Elkarteak Eusko Jaurlaritzarekin batera martxan jarritako Klis-klasikoak bilduma berriaren lehenengo lau izenburuetako bat da Maria Goikoak batbirulau!. Argitalpen zainduan ateratako ale berri hau Erein argitaletxeak 1984 eta 1986 artean ateratako lau libururen batura da –Tximinitik gora, Auskalo mendian, Titiritero titirimundi, Elegantzia Frantzia–

Anjel Lertxundik euskal kulturaren tradizioetik jasotako kontakizunak, jolasak, kanta, asmakizunak, ateraldiaketa abar aurkezten dizkigu bilduma honetan, Antton Olariagak eginiko ilustrazio bizi eta adierazgarriekin batera.

Liburua ez da jarraian irakurtzekoa. Bertan azaltzen diren harribitxiak apurka-apurka, eta dastatuz, irakurtzekoak dira.

“Ale, ale, ale,
Koxme arrantzalek
bederatzi sare,
itsasoa bare
arrantza debalde,
bisigurik ez,
gure Koxmek
bazkaldu ezetz!”

Liburua oso aproposa da irakasleak haur hezkuntzan zein lehen hezkuntzan gelan eskura izan dezan, eta tarteka edota egunero, aho-korapilo, igarkizun, kanta bat irakur dezan.

Literatura Eskola Bilduma:

Alan Poe, Edgar

Urrezko kakalardoa. Mourgue kaleko hilketak

Itzultzailea: Koro Navarro

Barcelona: Vicens Vives; 2014 (Literatura-eskola; 2)

ISBN 978-84-682-1966-0

Conan Doyle, Arthur

Baskervilletarren zakurra

Itzultzailea: Antton Olano

Barcelona: Vicens Vives, 2014 (Literatura-eskola; 7)

ISBN 978-84-682-1971-4

Christie, Agatha

Sagutegia

Itzultzailea: Koro Navarro

Barcelona: Vicens-vives, 2014 (Literatura-eskola; 1)

ISBN 978-84-682-1965-3

London, Jack

Basabizitzaren deia

Itzultzailea: Victor G. Ambrus

Barcelona: Vicens Vives; 2014 (Literatura-eskola; 5)

ISBN 978-84-682-1969-1

Priestley, J,B

Inspektore bat ate joka

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Barcelona: Vicens Vives; 2014 (Literatura-eskola; 6)

ISBN 978-84-682-1970-7

Steinbeck, John

Perla

Itzultzailea: Miren Arratibel

Barcelona: Vicens Vives; 2014 (Literatura-eskola; 3)

ISBN 978-84-682-1967-7

Klasikotzat jotzen diren liburu batzuk argitaratu dira Literatura-eskola bilduman, autore hauen obra bana bilduta: Edgar Allan Poe (1809-1849); Arthur Conan Doyle (1859-1930); Jack London (1876-1916); John B. Priestley (1894-1984); John Steinbeck (1902-1968); Agatha Christie (1890-1976).

Liburu bakoitzean sarrera bat dago, euskarazko itzulpena, eta, amaieran, jarduera didaktiko batzuk, narrazioa ikuspegi literario zein etikotik ulertzeko eta ikasleekin komentatu ahal izateko.

Gure mintegian, urtean zehar argitaratzen diren literatur lanak aztertzen ditugu, baina ariketa didaktikoak ez ditugu aintzat hartzen; horrenbestez, helburu didaktikoz egindako narrazio-egokitzapenak aurkitzen ditugunean, ez ditugu aintzat hartzen, eta ez dira agertzen gure irakurritako liburuen zerrendan. Oraingoan, ordea, salbuespena egin dugu, arrazoi hauengatik:

Alde batetik, iruditu zaigu liburuen sarrerak kalitate handikoak direla, autorea eta haren testuingurua ulertzeko lagungarriak. Kontuan izan behar dugu egungo irakurleentzat ezezagunak diren gizarte eta paradigma soziokulturaletan kokatuta daudela obra horiek, eta ez dela erraza obra bat irakurtzea eta ulertzea, autoreaz eta testuinguruaz ezer jakin gabe. Gure ustez, beraz, lagungarria da sarrera on hauek eskura izatea.

Bestalde, iruditzen zaigu klasikoak euskarara ondo itzulita izatea aberasgarria dela guztiontzat, balio ukaezina duela horrek. Oso gustura irakurri ditugu goian aipatutako tituluak, eta, gure ustez, onuragarria da gazteek obra hauek eskura izatea.

Bukatzeko, esan behar dugu ez diegula erreparatu ariketa didaktikoei, eta, beraz, ezin dugu iritzirik eman haien kalitateaz. Horrenbestez, klasikoen irakurketa on!

Safirstein, Julie

Ingurumarian

Itzultzailea: Aztiri itzulpen zerbitzuak

Donostia: Ttarttalo, 2014

ISBN 978-84-9843-526-9

-Jolasteko liburua-

Gomendatzen dugun liburua harrigarria eta polita da. Haurrentzako liburu bat izanik, bereziki gustatu zaizkigu, zabaltzen diren leihatilak, orri trokelatuak eta tolestagarriak erabiltzeaz gainera, liburuaren tamaina eta paperaren kalitatea.

Liburua zabaltzen dugunean, hainbat bide agertzen zaizkigu aurrean, haurrekin kontzeptu ezberdinak aztertzeko: espazioa, denbora, tamaina, koloreak, zenbakiak eta abar. Kontzeptu horiek, ordea, era poetiko eta jolasgarri batean jorratzen dira, eta ez modu didaktikoan.

Autoreak orrialde bikoitzak erabiltzen ditu bere ideiak garatzeko; hala, paisaia zabalak edo unibertso irekiak eskaintzen dizkio haurrari bere istorioak asmatzeko, jolasteko edo amesteko.

Etxeko txikiekin jolasean, formak, tamainak, koloreak eta hainbat gauza deskubritzeko liburu aparta da hau. Liburu jostagarria, hasieratik bukaeraraino. Jolastuko gara?

Twain, Mark

Tom Sawyer-en abenturak

Ilustratzailea: Guillermo Gonzalez

Itzultzaileak: Iñaki Mendiguren, Sarah J. Turtle

Irun: Alberdania; Donostia: Erein; Iruña: Igela, 2012

(Klis-Klasikoak)

ISBN: 978-84-9746-785-8

Nobela honek, Tom Sawyerren bizitza kontatzen digu. Mutikoa umezurtza zen eta bere izeko Polyrekin bizi zen, St Petersburg, Mississipi ibai ondoan hiri lasai batean. Bere bizitza oso arrunta zen, baina askotan zuen irakurzaletasunarekin egun normal bat bihurtzen zuen edozein abentura. Eskola ez zuen oso gogoko eta bere Huck lagunarekin, piper egiten zuen, abentura bila joateko. Batzuetan abentura hauetatik ondo irtetea nahiko zaila izaten zen, baina bere azerikeriaz eta ernetasunaz hala edo hola beti bere izeko eta herriko ingurukoei limurtzea lortzen zuen, nahiz eta bere lehengusua Sid, jeloskor, izorratzeko eta bere erruak botatzeko prest zegoen.

Haren abenturak asko dira, baina ezagunenen artean aipatzeko da kanposantuan gertatutakoa. Hara joan ziren Tom eta Huck garatxoak kentzeko errito bat probatzera, hortaz zegoenean hilketa baten lekuko bihurtu ziren. Edo etxetik ihes egin zuenean Joe indioaren epaiketarik eta horrekin lotuta zeuzkaten arazoak ahazteko, aste baten ondoren, herritarrek hilda zeudela pentsatu zuten. Hileta elizkizunetan agertu ziren. Hauez gain, Becki Thacherren amodiozko

arazoak eta etxe zahar abandonatu batean altxor bat aurkitu zuten, honekin diru arazoak behintzak konpondu zituen.

Idazleak, nobela honetan, bere autobiografian oinarritua kontatzen digu Tomen bizitza. Baina bera ez zenez hain ausarta, pertsonaia osatzeko miresten dituen bi lagun nortasunen ezaugarriak hartzen ditu. Horrela lortu zuen Tom pertsonaia ausarta, argia, abenturazalea, sentibera.....izatea. Pertsonaien bidez erraz bereizten dira, garai hartako gizarte mailak, herriko ohiturak eta erlijioaren eragina beraiengan. Gizakien irrikak, ametsak, eguneroko arazoak.

Iñaki Mendigurenek 1995an itzuli zuen lehengo aldiz nobela hau. Oraingo itzulpena egiteko jatorrizko novela "The adventures of Tom Sawyer" 1876ko edizioan oinarritu dira Iñaki Mendiguren eta Sara Turtle. Bertsio berriak hizkuntza oso egokia eta zuzena erabiltzen du, idazlearen ironia eta errealismoaren kritika matenduz.